2023-04-28 EGUBAKOITZA / 990. ZENBAKIA / 23. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Zu hemen zaude.

# goiena



+ Erlauntzetik eguzkiaren epelera irten da erlea

Larkin Poynton dantzariari elkarrizketa
















M-28

# Hautagaitzak plazara eta proposamenak aukeran

Aurkeztu dituzte maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendak; Debagoienean, 34. Orain, datozen lau urteetarako proposamenak aurkeztuko dituzte alderdiek / 04

Debagoieneko herrietan udal hauteskundeetara aurkeztuko diren hainbat alderdiren hautagaiak. GOIENA





Ikaslan Gipuzkoaren 30. urteurreneko ekitaldiko talde-argazkia. IKASLAN GIPUZKOA

# Ikaslan Gipuzkoaren sortzaileak gogoan

Bi urtean behin ematen duten Ikaslan Saria banatu zuen Ikaslan Gipuzkoak 30. urteurreneko ekitaldian, eta elkartea sortu zuten hamalau zuzendariei egin zieten aitortza; haietako bi ziren Xabier Urzelai aretxabaletarra eta Jose Mari Larrañaga bergararra

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ARRASATE

Ikaslan Gipuzkoak, Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetako zuzendarien elkarteak, 30 urte bete zituen martxoaren 31n, eta urteurrena ospatzeko ekitaldia egin zuten apirilaren 21ean Donostiako Tabakaleran, gaur egungo zuzendari, zuzendari ohiekin, elkartekideekin eta eragileekin. Gutxi gorabehera, bi urtean behin Ikaslan Saria banatzen dute, Lanbide Heziketaren alde lan egin dutenei aitortza egiteko. Aurten, 1993an elkartea sortu zuten hamalau zuzendariek jaso zuten aitortza; tartean, Xabier Urzelai aretxabaletarrak eta 2021ean zendu zen Jose Mari Larrañaga bergararrak. Ikaslan Gipuzkoako koordinatzailea da Kepa Altube arrasatearra, eta, haren esanetan, "lan handia" egin, LH indartu eta gizarteratzeko hazia ipini nahiz proiektu berrietan parte hartzeko indarra eman zutelako omendu zituzten sortzaileak. Halaber, 30 urteetako garapena "sekulakoa" izan dela azpimarratu du; bai metodologian, bai proiektuetan, baita instalazioetan ere.

### Debagoiena sorleku

Bergarako Altzasu Elkartean sortu zen Ikaslan Gipuzkoa, 1993ko martxoaren 31n. Garai hartan, Gipuzkoan LHko hemeretzi ikastetxe publiko zeuden, eta haietako hamalau zuzendarik Ikaslan Gipuzkoa sortzea erabaki zuten indarrak batu eta elkarren artean, talde lanean, interes-guneak atzeman eta proiektu berriekin aurrera egiteko. Xabier Urzelai zen Aretxabaletako Leniz Lanbide Ikastegia Institutuko zuzendari –gaur egun, Aretxabaleta Lanbide Eskola–, eta Jose Mari Larrañaga, berriz, Bergarako Miguel Altunakoa. Biak lagunak, orduko egoera gogoan du Urzelaik: "Zerbait egin behar zela ikusi genuen. Goikoen laguntzarik ez geneukan eta pribatuan hobeto zebiltzala ikusi genuen".

Urzelai 1987-1988an hasi zen Aretxabaletan zuzendari, eta, denera, bederatzi urtez egon zen –lehendabizi, sei urte egin zituen, eta, urtebeteko etenaren ostean, beste hiru–. Bilerei buruz galdetuta, oso "giro ona" zutela dio, eta argi zeukatela LHri oihartzuna eta indarra eman nahi ziotela, baita proiektuetan sartu ere. Duela 14 urte erretiroa hartu bazuen ere, oraindik eskolara bisitak egin eta laguntzera joaten dela aitortu du.

Jose Mari Larrañaga 1991 ezkero 11 urtez izan zen Miguel Altunako zuzendari, eta, Ikaslan Gipuzkoaren bultzatzaile izateaz gain, Aretxabaleta Lanbide Eskolako zuzendari ere izan zen, eta Eusko Jaurlaritzan ere jardun zuen, LHrekin lotuta. Altubek izan zuen Larrañaga ezagutzeko aukera: "Uste dut LHn pertsona garrantzitsua izan dela; gutxienez, bizitza erdia eman zion LHri. Lanetik pasioa egin zuen eta haren lanpostutik beti goraipatzen zuen LH. Oso oroitzapen onak ditut haren alaitasunaz, jarreraz eta lan egiteko eraz. Asko erakutsi zidan".

### Debagoieneko datuak

Egun, LHko 27 ikastetxe publikok osatzen dute Ikaslan Gipuzkoa. Haietako hiru Debagoienean daude: Aretxabaleta Lanbide Eskola, Miguel Altuna LHII Bergara eta Oñati Institutua. Elkarteko koordinatzaileak gaineratu du mila ikasletik gora daudela bailarako zentroetan eta arlo profesional gehienetako eskaintza dutela: "Geroz eta jende gehiago ari da hurbiltzen LHra, eta etorkizunera begira aukera ona da garapen pertsonalerako eta profesionalerako. Ikasleen % 90etik gora ikasketak amaitu eta lanean hasten dira; beste batzuek ikasten jarraitzen dute. Gutxi doaz langabeziara".

# Laboral Kutxak 150,5 milioiko irabaziak izan zituen iaz

Kontseilu Errektoreak Adolfo Plaza hautagaia proposatuko du lehendakari posturako

**I.B.** ARRASATE

Apirilaren 22an, Laboral Kutxak ohiko batzar nagusia egin zuen Kursaal jauregiko areto nagusian, Donostian. Hala, onartu egin zituzten 2022ko ekitaldiko urteko kontuak eta gai-zerrendan proposatutako gainerako puntuak. Adibidez, Adolfo Plaza proposatu zuen Errektore Kontseiluak Txomin Garcia egungo presidentea ordezkatzeko.

Bildutako bazkideek joan den urtean egindako gestioa berretsi zuten, eta, era berean, aukera izan zuten 2023ko ekitaldian kooperatibaren jarduera egituratuko duten jardunbide nagusiak ezagutzeko ere. Besteak beste, Txomin Garcia Laboral Kutxako lehendakaria "pozik" agertu zen lortutako emaitzekin. Izan ere, 2022an Laboral Kutxak 150,5 milioi euroko irabazi garbi bateratua lortu zuen. Garciak azpimarratu zuenez, emaitzen hazkundea "oso nabarmena izan da eta sobera gainditzen du Gestio Planean aurreikusitakoa". 2023ko Gestio Planari dagokionez, entitateak hazten jarraituko du merkatuko bolumenetan eta kuotetan, finantzen eta arriskuen kudeaketan zorroztasunari eutsiz.

LANBIDE HEZIKETA PUBLIKOA
DEBAGOIENEAN ATEAK ZABALIK
Etorkizuna zure esku
Fp Euskadi
ikasLAN Gipuzkoa

ARETXABALETAN:
Maiatzaren 10ean, 18:00etan
ALE - Aretxabaleta Lanbide Eskola
Etxebarri auzoa, z/g - 22 Pk. • 20550 ARETXABALETA
943 79 79 00 / Whatsapp: 688 811 489
ia@iaretxabaleta.com
www.ale-aretxabaleta.eus

BERGARAN:
Maiatzaren 13an, 11:00etan
Miguel Altuna LHII Bergara
Agirrebidea, 2 • 20570 BERGARA
943 899 270 / 943 899 271
info@maltuna.eus
www.maltuna.eus

OÑATIN:
Apirilaren 27an, 18:00etan
Maiatzaren 6an, 11:00etan
Oñati Institutua
Larraña auzoa, 16 • 20560 OÑATI
943 899 300
info@onati.net
www.onati.net

2023 - 2024 IKASTURTERAKO AURREMATRIKULA MAIATZAREN 8TIK 26RA


Baso Biziak Plataformako kideak zapatuko agerraldian. LARRAITZ ZEBERIO

# Azken bi urteetako balorazioa egin du Baso Biziak Plataformak

Onartutako mozioek bete dute agindutakoa; halaber, basoa antolatzeko mailak proposatu ditu taldeak

**Idoia Aranbarri Arzuaga** ELGETA
Duela bizpahiru urte, basogintza-eredu berri baten inguruko mozioak aurkeztu zituzten Baso Biziak Plataformako kideek zenbait udaletan, eta mozio horien jarraipena eta balorazioa eta aurrera begirako proposamenak egin zituen plataformak joan den zapatuan egindako agerraldian. Gaur egun, hemezortzi taldek osatzen dute Baso Biziak Plataforma. Kideei eskerrak eman zizkieten, eta halako taldeak sortzen jarraitzeko dei egin. Halaber, gaineratu zutenez, azken landaketa denboraldian (2022-2023) 26 hektareatan 22 espezietako 9.223 zuhaitz landatu dituzte.

Azaldu zutenez, bi galdera bidali dituzte mozioa onartu zuten udaletara, bilakaera zein den ezagutzeko; hain zuzen ere, *Zein atal bete dira eta nola?* eta *Zer atal ez dira bete eta arrazoiak?* Jakinarazi zutenez, zenbait udaletatik ez dute erantzunik jaso eta "handik eta hemendik" kideek emandako datuekin egin dute balorazioa. Hori horrela izanda, orokorrean, onartutako mozioek eginkizuna bete dutela adierazi zuten: "Onartu ez diren udaletan monolaborantzak aurrera egin du inongo oztoporik gabe, baita eukaliptoak landatuz ere".

Plataformako kideek ulertzen dute litekeena dela mozio horiek martxan jartzerakoan arazoren bat edo besterekin topo egin izana, baina ohartarazpena bidali zieten: "Hauteskundeak hurbil dauzkagunez, baso bizien aldeko dinamiketan sartu diren hainbat herriri gogoratu nahi diegu mozioak osoko bilkuretan onartzeak herritarren aurrean urratsak egitera behartzen dituztela, onartutakoa haizeak eraman ez dezan eta ez dadin itxurakeria berde bihurtu".

**Hiru proposamen**
Basoa antolatzeko hiru maila proposatzen ditu plataformak: alde batetik, onura ekosistematikoak dakartzan kontserbaziorako basoak bultzatzea; bestetik, hurbileko baso produktiboak bultzatzea espezie autonomoekin eta landaketa monoespezifiko mugatuekin; eta, azkenik, fruta-arbolekin baso jangarriak bultzatzea. Bestalde, uste dute lurraldea ondasun komun bihurtzeko "apustu garbia" egin behar dela, eta monolaborantzak erregulatzea eta murriztea ezinbesteko ikusten dute. Era berean, nabarmendu zuten erakunde publikoek basogintzaren sektorean legeak egiterakoan dituzten erantzukizunak ezin direla sektoreko interes pribatuen menpe jarri: "Baso-kudeaketa irizpide zientifikoetan oinarrituta egin behar da, eta ez soilik produktiboetan".

**BASO-KUDEAKETA IRIZPIDE ZIENTIFIKOETAN OINARRITUTA EGIN BEHAR DELA DIOTE**

# Goieskolaren Jolas eta Kirol Topaketa Oñatin

Pandemiagatik bertan behera geratu zen 2019-2020ko ikasturteko topaketa, eta aurten berreskuratuko dute, maiatzaren 5ean; Debagoieneko LHko bederatzi ikastetxe publikoetako 303 ikasle batuko dira, jolas tradizionaletan eta orientazioan aritzeko

**I.A.A.** DEBAGOIENA
Goieskolaren Jolas eta Kirol Topaketa egingo dute maiatzaren 5ean Oñatin, Debagoieneko Lehen Hezkuntzako bederatzi ikastetxe publikoetako laugarren mailako 303 ikasleek. 2015ean eta 2016an Aramaion eta Aretxabaletan egin zuten ekimena; 2019-2020ko ikasturtean Oñatin egitekoak ziren, baina pandemiagatik bertan behera geratu zen.

**Helburuak lantzeko egitaraua**
10:00etatik 12:30era euskal jolas tradizionalak antolatu dituzte Oñatiko plazan –eguraldi txarra bada, kiroldegian–, eta, ordubeteko bazkalorduaren ostean, orientazioa egingo dute 13:30 eta 15:30 bitartean alde zaharrean barrena, armarriak eta iturriak aitzakia hartuta. Ondo pasatzeaz gain, beste helburu batzuk ere baditu lehiarik gabeko topaketak, Goieskolako koordinatzaile Ainhoa Belategiren esanetan: "Debagoieneko Eskola Publikoko ikasleek elkarren artean ezagutu eta bailarako herri bat ezagutzeko aukera dute. Jolas topaketan eta orientazioan taldekatu egingo ditugu, eta orduan izango dute aukera elkar ezagutzeko. Bestalde, kirola euskaraz sustatzea da helburua, baita galtzen ari diren jolasen berri izatea ere".

Belategik adierazi du aste hauetan ikasleak jolasen trebakuntza ari direla egiten. Azaldu duenez, ikastetxe guztietan egin duten lanetako bat izan da jokoen arauak idaztea, egunean bertan denek berdin jolasteko.

**DBHkoen txanda urrian**
DBHko topaketa aurten egingo dute lehen aldiz; urrian eta Arrasateko Institutuan izango dela aurreratu du Goieskolako koordinatzaileak, DBH-4ko ikasleekin: "Batxilergoa aukeratzen dute askok. Beraz, helburua da bailarako institutuetan dagoen aukera eta nolakoa den erakustea eta euren adinekoak ezagutzea".

DEBAGOIENEKO
PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

BEGOÑA LASAGABASTER
ARRASATE / Iturriotz 15, 1 A
Tel.: 943 79 98 86
blasaga@icagi.net

RAFAEL ARANBURU
BERGARA / Irizar 5
Tel.: 943 76 10 81

ARKITEKTOAK

BIARK ARKITEKTOAK
ARRASATE
Usaetxe plaza 1, behea
Tel.: 943 79 80 33
www.biark.net

AHOLKULARITZAK

ANDRA MARI AHOLKULARITZA
ARETXABALETA
Araba ibilbidea 20, behea
Tel./Faxa: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ALBERDI ASESOREAK
BERGARA / Matxiategi 36
Tel.: 943 76 90 83

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK
ARRASATE
Pablo Uranga 3, behea
Tel.: 943 79 51 25
uribesalgo@uribesalgo.es

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu 943 25 05 05 zenbakira.

# 34 hautagaitza aurkeztu dituzte sei alderdik

## Hasi da hauteskundeetara begirako atzera kontaketa

**Imanol Beloki Unamuno** DEBAGOIENA
Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendak osatuta dituzte Debagoienean aurkeztuko diren talde guztiek. 34 hautagaitza aurkeztu dira: EH Bilduk –kide guztiak debagoiendarrak–, EAJk eta PSE-EEk, zortzina; PPk, bost; Elkarrekin Podemosek 4, eta Leintz Gatzagako Hautesleen Elkarteak bat. 34 alkategaietatik, 10 dira emakumezkoak. Bestetik, 24 dira debagoiendarrak. Eguaztenean argitaratu zituzten zerrendak. Maiatzaren 2ra bitartean hauteskunde mahaiko kideak izendatzeko zozketak izango dira herriz herri, eta alderdiek, berriz, maiatzaren 12an hasiko dute hauteskunde kanpaina.

M-28
**Alkategaiak**


ARRASATE
**MARIA UBARRETXENA**
EAJ


ARRASATE
**MAIDER MORRAS**
EH BILDU


ARRASATE
**ARITZ MURUA**
PSE-EE


ARRASATE
**EVA ABUIN**
ELKARREKIN ARRASATE


ARRASATE
**FRANCISCO DE BORJA ALTUZARRA**
PP


BERGARA
**GORKA ARTOLA**
EH BILDU


BERGARA
**MIKEL LETE**
EAJ


BERGARA
**ALBERTO ALONSO**
PSE-EE


BERGARA
**ANDRES DIEZ**
ELKARREKIN BERGARA


BERGARA
**MIGUEL ANGEL SANTANO**
PP


OÑATI
**IZARO ELORZA**
EH BILDU


OÑATI
**AMAIA EROSTARBE**
EAJ


OÑATI
**AITZIBER FERNANDEZ**
PSE-EE


OÑATI
**RICARDO GUISADO**
PP


ARETXABALETA
**MIKEL URIBETXEBARRIA**
EAJ


ARETXABALETA
**GARIKOITZ ITURBE**
EH BILDU


ARETXABALETA
**VERONICA MAYORA**
PSE-EE


ARETXABALETA
**RAFA BERNAL**
ELKARREKIN ARETXABALETA


ARETXABALETA
**JESUS POSTIGO**
PP


ESKORIATZA
**JOSERRA ZUBIZARRETA**
EAJ


ESKORIATZA
**EDORTA ZUBIZARRETA**
EH BILDU


ESKORIATZA
**JUAN LUIS MERINO**
ELKARREKIN ESKORIATZA


ESKORIATZA
**LUIS MARIA JAVIER LOMAS**
**PSE-EE**


ANTZUOLA
**OLATZ LEZETA**
EH BILDU


ANTZUOLA
**JOSU XABIER ARANGUREN**
EAJ


ANTZUOLA
**MIREN GALLASTEGI**
PSE-EE


ARAMAIO
**IBAN HERRARTE**
EH BILDU


ARAMAIO
**ALBERTO AMENABAR**
EAJ


ARAMAIO
**DANIEL SOLANA**
PSE-EE


ARAMAIO
**HILARIO ALFARO**
PP


ELGETA
**IBON UNZETABARRENETXEA**
EH BILDU


ELGETA
**IKER LAKA**
EAJ


ELGETA
**ELIAS DE CASTRO**
PSE-EE


LEINTZ GATZAGA
**DORLETA ELKOROBARRUTIA**
LEINTZ GATZAGAKO HAUTESLEEN TALDEA

# Judith Zubiak saria

CAF-Elhuyar sarietan dibulgazio-artikulu orokorraren saria Judith Zubia arrasatearrak irabazi du, *Garena egiten gaituena, egiten duguna idazteko* izeneko artikuluarekin. Eguaztenean banatu zituzten sariak, Usurbilgo Sutegi aretoan; dibulgazio-artikulu orokorraren sariaz gain, beste hainbat ere banatu zituzten.


ELHUYAR

# EAJk, Oñatin aurkezpena

Debagoieneko alkategaiak aurkeztu zituen EAJk joan den egubakoitzean. Ekitaldi politikoa Oñatin egin zuten, eta bailarako alkategai gehienak han izan ziren. Haiekin batera, han izan ziren Gipuzkoako ahaldun nagusi izateko hautagai Eider Mendoza eta Gipuzko Buru Batzarreko presidente Joseba Egibar.


IMANOL SORIANO

# MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

# “Lan esperientzia izugarria izan da, *DUAL* eredua biziki gomendatzen dut”




## Andoni Romero Astaburuaga (Arrasate)

**Sare eta Informazio Sistemen Administrazioa (ASIR) Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ)**

Bigarren maila ikasten ari naiz, eta, bertan ikasten nengoela, Fagor Healthcare enpresan dual orokorra eta aurreratua egiteko aukera eskaini zidaten. Geroztik, bertan jarraitzen dut.

**FAGOR HEALTHCARE** gaixo kronikoen atxikimendua hobetzen laguntzen duen farmazia-zerbitzua eskaintzen duen enpresa da.

Nire lanpostua bezeroei zerbitzua ematean datza. Hainbat motatako gorabehera eta zalantzei aurre egiteko. Ohiko Laguntza Teknikoko Zerbitzu (LTZ) lana egiten ibili naiz, bezero guztiei laguntza ematen. Gure zuzeneko bezeroak farmaziak dira gaur egun, euren bitartez gure produktuak gaixo kroniko polimedikatuei iristen baitzaizkie.

Enpresaren produktuak hardware eta software atalak ditu, eta haien funtzionamendua azaltzea, erabileran arazoak badaude aholkularitza ematea eta, bereziki, erantzuna ematea da nire lana. Bestetik, konpondutako makinen bidalketak antolatzen aritu naiz eta huts egiten dutenak edo akatsen bat dutenak biltzen ere aritzen naiz; horien eguneratzean eta behar diren instalazioetan laguntzen ere aritzen naiz.

Enpresaren lan-esparrua oso lan-aukera egokia bilakatu da, ASIR zikloan ikasitakoarekin ongi lerrokatu dagoelako bertan egin behar ditugun lan guztiak betetzeko orduan; noski, batzuk ez ditut gelan ikasi, han oinarri egokia lortu dut gero enpresan ondo aritzeko. Hala ere, egunero ikasten nabil.

Zikloko ikasketak egiterakoan praktika asko egin ditugu, ariketak eta, bereziki, erronkak, indibidualki eta talde-lanean egindako proiektuak, baina, noski, lan-esperientzia izugarria izan da. Dual eredua biziki gomendatzen dut.

Pertsonalki, enpresan praktikak egiteak lan-esparruan sartzen lagundu dit. Gainera, neure buruarengan konfiantza handiagoa hartzea ahalbidetu dit. Gustura nago, lanean lagundu egiten dudala ikusten dut, eta hori oso baliagarria zait.

**#LanerakoGertu**

**Eman izena!**

**MGEP:** 664 298 683 // 664 298 704

**ATE IREKIAK:** ***Maiatzak 6*** *11:00*

# Bizitzaren garestitzearen erdian dator Maiatzaren 1a

Sindikatuek langile klasearen bizimoduaren zailtzean kokatu dute 2023ko Langileen Nazioarteko Eguna. Manifestazioak egingo dituzte astelehenean Hego Euskal Herriko hiriburuetan; LABek Eibarren ere egingo du, eta GKSk Ermuan, bihar

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Egutegiak datorren astelehena jaieguna dela dioen arren, Maiatzaren 1a, langileen eskubideen defentsa egiten duten sindikatuek argi dute kaleak hartzeko eguna dela. Hala, manifestazio gehienak Donostian, Bilbon, Gasteizen, Iruñean, Maulen eta Baionan izango dira, baina Debagoienetik gertuagoko herrietan ere egingo dituzte mobilizazioak. Esaterako, Deba Bailarako Kontseilu Sozialistak Ermuko Lobiano kulturgunean egingo du ekitaldi politikoa bihar, zapatua, 12:00etan, *Alternatiba sozialista eraiki* lelopean. Hitzordu horretan dei egingo dute astelehenean Iruñera joateko.

**LAB: "Altxa, langileok!"**

Langile Abertzaleen Batzordeak zortzi mobilizazio egingo ditu, denera, gehienak hiriburuetan. Eibarko kaleetan ere entzungo da haien aurtengo leloa, *Beste mundu bat,* 12:00etan Untzaga plazatik irtengo den manifestazioan. Ana Sebalek, LAB sindikatuko eskualdeko ordezkariak, salatu du "euskal langileriaren kaltetan kapitalak aberastasuna metatzen jarraitzen duela". Bizitzaren garestitzea ere izan du hizpide: "Argindarra igotzen eta erosketa-saskia garestitzen dabilela ikusita, zaintza, enplegu eta aberastasuna banatu eta berrantolatzea aldarrikatuko dugu, zerbitzu duinak eta oinarrizko eskubideak bermatu daitezen, hala nola pentsioen, soldaten, etxebizitzaren eta energiaren arloan".

Hortaz, euskal langileriak kalera irteteko arrazoi asko dituela gaineratu du, eta batzeko dei egin die "pentsiodun, emakume, gazte, migratu eta arrazializatuei".

**ELA: "Greba da bidea"**

Eusko Langileen Alkartasuna sindikatuak, berriz, afiliatu, militante eta lagunei Bilbora eta Iruñera joateko gonbidapena egin die. *Borrokan irabazteko* lelopean hartuko dituzte kaleak. Deba eskualdeko ELA sindikatuko arduradunak, Amagoia Lasagabasterrek, "mezu positiboa" dela azpimarratu du, "borrokan egiten duenak bakarrik" irabazten duela aintzat hartuta. Ildo beretik, grebaren estrategia "bide egokia" dela arrazoitu du, "2022an 86 garaipen ekarri dituelako".

Hala ere, egungo testuingurua kezkaz ikusten du, "lan munduko prekarietateari bizi baldintzen trakestea" gehitu zaiolako. ELAk horri buelta emateko borondatea duela aipatu du: "Ez agintari politikoek eta elkarrizketa-mahai sozialean elkartzen diren sindikatuek bezala, paperean geratzen diren neurri ez-eraginkorrak onartzera mugatzen dira eta".

**MAIATZAREN LEHENA KALEAK HARTZEKO EGUNA DELA DIOTE SINDIKATUEK: "EGOERA ZAILDU DA"**

**ESK: "Pribatizazioak gelditu"**

Ezker Sindikalaren Konbergentzia sindikatuak, bestalde, "era guztietako promesek etenik ez duten hauteskunde-testuinguruan" kokatu du Maiatzaren Lehena. Era berean, pribatizazioetan jarri dute arreta: "Hezkuntzan eskola-segregazioa dakarte, eta osasunean azpikontraten aldeko apustua egitea, osasun publikoan zerbitzuak deseginez; negozio-eredu horiek udaletan edo aldundietan ere sartu dira apurka-apurka". Horiek eta kontu gehiago salatzeko martxa egingo dute Oreretatik Donostiara, 09:45ean hasita, CNT eta Steilas sindikatuekin batera.

Gainera, ESK-k asteon inauguratu du Bergaran egoitza berria, Artekale 10etik Fraizkozuri 5era lekualdatu baitira.

**CCOO eta UGT, batera**

Espainia mailako sindikatuek ere egingo dituzte elkarretaratzeak EAEko eta Nafarroako hiriburuetan, Comisiones Obrerasek eta UGTk, besteak beste. *Soldatak igo, prezioak jaitsi, irabaziak banatu* leloa aukeratu dute elkarrekin.



LABen pankarta eta ELAren kartelak Arrasaten. H.L.



Hiru ikastoletako ordezkariak Irunen, jasotako materiala entregatzen. IRAITZ SALEGI

## Migratzaileei babesa helarazi diete bailarako hiru ikastolek

Aranzadik, Txantxikuk eta Arizmendik elkartasun-proiektua gauzatu dute Irungo Harrera Sarearekin

**H.L.** DEBAGOIENA

*Euskal Herria, harrera herria* izena jarri diote bailarako hiru ikastolek martxotik hona garatu duten ekimenari. Helburua izan da ikasleekin migratzaileek Irungo administrazio-mugan bizi duten egoera landu, salatu eta pertsona horientzako bitartekoak batzea. Hauxe adierazi du Iraitz Salegik, Aranzadiko komunikazio-arduradunak: "Ez dugu urrutira joan beharrik errealitate horren aurpegi latzena ezagutzeko, Bidasoa ibaiaren bi aldeak, Irun eta Hendaia, ezinbesteko muga-pasabidea baitira aukera berriak bilatzeko beren jatorrizko lekuetatik desplazatuta dauden pertsonentzat. Guk, Irungo Harrera Sarearekin elkarlanean, pertsona guztiek harrera duina izateko duten eskubidea aldarrikatu dugu".

Hasteko, ikasleekin kontzientzia astintzeko ekintzak egin zituzten. Amets Arzallusen *Miñan* liburua irakurri zuten ikasgeletan, eta idazleak berak solasaldia eskaini zien Bergarako Seminarixoan 250 gaztetxori. Gainera, DBHko zenbait ikaslek Irun bisitatu zuten, problematika bertatik bertara ezagutzeko.

**Ikasleen ekarpena**

Material bilketa ere egin zuten, muga mendiz zeharkatzeko arropa, oinetako eta osagarriak eta eskuko telefonoak batuta. "Erantzuna izugarria izan da! Eskerrik asko, batez ere, Oñatiko Hotz elkarteari", esan du Salegik. Horrez gain, Bergarako Ikastolako LH-6ko ikasleek azoka solidarioa antolatu eta 1.400 euro batu zituzten Irungo Harrera Sarearentzat. Hango kideekin asteon elkartu dira Irunen hiru ikastoletako ordezkariak, bilketetan jasotako baliabide emateko.

## Gurutze Gorriaren Urrezko Zozketarako txartelak salgai

Debagoieneko Gurutze Gorriak ohiko Urrezko Zozketarako txartelak saltzeko kanpaina hasi du. Uztailaren 20ra arte Debagoieneko hainbat dendatan, tabernatan eta jatetxe laguntzaileetan erosi ahalko dira txartelak. Lehen saria 3 milioi eurokoa izango da, bigarrena milioi bat eurokoa eta hirugarrena milioi erdi eurokoa. Bestalde, 250.000 eta 50 euro arteko milaka sari zozkatuko dituzte, eta sariak diruz edota urrez kobratu ahalko dira.

Salmentekin bildutako funtsak Gurutze Gorriak Elorregin dituen ibilgailuen egungo flotaren –anbulantziak, laguntza-ibilgailuak eta garraio egokituko ibilgailuak– ekipamendua mantentzeko eta hobetzeko erabiliko dituzte, baita Debagoieneko kolektibo kalteberentzat zuzendutako gizarte-proiektuetarako ere. Iaz, modu horretan, 600 lagun artatu zituzten bailaran.

# "Debagoiendarren eskola da Gamarra"

**AITOR ETXEBARRIA** GAMARRA OSTALARITZA ESKOLAKO IRAKASLEA

Lanbide Heziketako Gamarrako Ostalaritza Eskolak hiru ziklo eskaintzen ditu ikasketa mailaren arabera, eta euskaraz egin daitezke erdi eta goi mailako ikasketa guztiak

Ostalaritza ikasi nahi duten ikasle eta irakasle debagoiendar gehienek Gasteizko Gamarrako Ostalaritza Eskola aukeratzen dutela dio Aitor Etxeberria (Bergara, 1971) irakasleak.

**Zer da Gamarrako Eskola?**
Lanbide Heziketako ikastetxe integratua eta publikoa. Oinarrizko Lanbide Heziketa, erdi mailako eta goi mailako prestakuntza zikloez gain, langabeentzako eta langileentzako prestakuntza eskaintzen du. Ikasketa guztiak doakoak dira. Ikastetxean 40 irakasle eta 300 bat ikasle gara.

**Ze ziklo eskainiko duzue?**
Maiatzaren 8tik 26 bitartean irekita egongo da aurrematrikulazio epea. Ezinbestekoa da aipatutako epean aurrematrikula egitea, aurrerago matrikula egin ahal izateko. Izen-ematea online egitea oso erraza da. Hezkuntzaren webgunearen bitartez edo gure ikastetxean bertan. Bestalde, maiatzaren 8an, 10ean eta 22an ate irekiak egingo dira, 16:30ean. Eskolako webgunean izena eman daiteke. Honako hau da eskaintza: erdi mailan, Sukaldaritza eta Gastronomia zikloan bi talde egongo dira, bata A ereduan eta bestea D ereduan; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza, eta Jatetxe Arloko Zerbitzu zikloetan, berriz, talde bana, B+ ereduan.



Aitor Etxebarria, ezkerrean, eskolako irakasle eta ikasle debagoiendarrekin. GOIENA

Bestalde, goi mailan, Sukalde Zuzendaritza zikloan bi talde izango dira, A eta D ereduetan. Eta, gainera, beste ziklo berri bat eskainiko dugu datorren ikasturtean; goi mailako Jatetxe Arloko Zerbitzuen Zuzendaritza D ereduan.

**"GURE ESKOLAN ERDI ETA GOI MAILETAKO ZIKLO GUZTIETAN DAUKA PRESENTZIA EUSKARAK"**

**Euskaraz ziklo guztietan?**
Bai. Gure ikastetxea lan handia egiten ari da alor horretan.

**Nork eman dezake izena eskolan?**
Erdi mailako zikloak egiteko, gutxienez, DBH edo Oinarrizko Lanbide Heziketa gainditzea beharrezkoa da. Goi mailakoa egiteko, berriz, batxilergoa edo erdi mailako zikloren bat.

**Nolako ikastetxea da Gamarrakoa?**
Maila handiko profesionalak daude. Eguneratuta, eta eskarmentu handikoak metodologia berrietan. Bestetik, benetako praktika bidezko ikasketak egiten ditugu gure jatetxean, dendan eta hainbat eskaintza gastronomikotan. Bestalde, ikastetxeak aurrera eramaten ditu honako hezkuntza-proiektu berritzaile hauek: ETHAZI, etekin handiko zikloen metodologia, erronketan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza; ERASMUS+, ikasleek ziklo amaierako lan-praktikak Europako enpresaren batean egiteko aukera eta Europako hainbat ikastetxerekin ikasle-trukeak egiteko aukera; txandakako erregimeneko LH Duala, zeini esker ikasleek partekatu ahal izango duten ikastetxeko prestakuntza eta enpresaren batean lan eginez trebatzea lan kontratu edo beka baten bitartez; eta berrikuntza proiektuak, eskola-baratzea ekonomia zirkularra garatuz –baratzetik mahaira, zero kilometro–, berdintasun proiektuak, Agenda 2030 eta beste batzuk.

Ikastetxea guztiz berrituta dago: sukaldeak, gozotegia, okindegia, jangela, kafetegia… Ikasgela asko eta tailerrak ere berritu, handitu eta eraldatu ditugu, errendimendu handiko metodologiak ikaskuntza prozesuan aplikatu ahal izateko. Punta-puntako ekipamenduekin. Zentzumenen Gela, Gela Teknologikoa eta Gela Adimentsua gehitu ditugu.

**Zein lanpostutan egingo dute lan ikasketak amaitu ondoren?**
Zikloaren arabera. Sukaldaritza eta Gastronomia zikloa eginda, sukaldariak edo gozogileak izango dira jatetxeetan, hoteletan, administrazioan –ospitaleetan, zahar-egoitzetan, eskoletan…–; Okintza, Pastelgintza eta Gozogintza eginda, okinak, gozogileak edo gozoginak izango dira elikagai industria alorreko enpresetan, eta gozogileak ostalaritza enpresetan. Azkenik, Jatetxe Arloko Zerbitzuak eginda, zerbitzariak, tabernariak, maitreak, sommelierrak, jangelako arduradunak edo jatetxe arduradunak izan daitezke. Goi mailako Sukalde Zuzendaritza zikloa eginda, sukaldaria, sukaldeburua, sukalde zuzendaria, *catering* eragiketen burua, janari eta edari zuzendaria… Administrazioko hainbat arlotan lan egiteko baliagarria den ikasketa da.

Kontuan izan behar dugu, gainera, ostalaritza oso arlo egokia dela esperientzia izan eta gero nork bere enpresa sortu ahal izateko. Gure ikastetxeko zenbait ikaslek bide hori hartu dute eta pozik daude enpresari lanetan; horretarako, Urratsbat programaren laguntza eskaintzen dugu.

**Ikasketak amaitzen dituzten ikasleek erraz topatzen dute lana?**
Ostalaritza eta elikagai-industria sektoreek pisu handia dute gure ekonomian. Gure zikloen batez besteko lan-txertatze maila %85 ingurukoa da.

**Zein harreman duzue ikasketak amaitu dituzten ikasleekin?**
Oso hurbila. Ikastetxeak 30 urtetik gora daramatza eta promozioen ospakizunak ere egiten dira. Ez dira gutaz ahazten. Bestalde, eskolak lan-poltsa bat kudeatzen du. Eskaintzen dizkiguten lan-aukerak ikasle ohiei helarazten dizkiegu, eta, lana aldatu nahi izanez gero ere, eurek deitzen digute eskolara, ea zer izan dezakegun eskaintzeko.

**"ZIKLOEN BATEZ BESTEKO LAN-TXERTATZE MAILA %85 INGURUKOA DA GURE ESKOLAN"**





FORMAKUNTZA:
TABERNA-KAFETEGIA
SUKALDARITZA
GOZOGINTZA
SUKALDE-ZUZENDARITZA
OKINGINTZA
JATETXEA





ESKOLA PUBLIKOA ETA DOAKOA
Eman izena
maiatzaren 8tik 26ra

gamarra
ostalaritza eskola · escuela de hostelería

Informazio gehiago
Tlf. 945 25 80 25
gamarra@gamarraeskola.com
www.gamarra.eus



ZABALIK

AMAGOIA LASAGABASTER

# Esan bai, baina egin...

Inkoherentziaz beterik dago nire bizitza. Oreka xumeak egiten ibiltzen naiz egunero. Gizakion ezaugarritako bat dela esango nuke. Hau esan, eta bestea egin. Kontraesan horietako batzuekin zerrenda egin dut.

Azken boladan tematuta dabiltza Lan sailetako gobernariak lau eguneko lanaldiak baduela etorkizunik esan eta arautu nahian. Baina, aldi berean, pentsioen erreforma berri baterako akordioa egin eta, oraindik, 67 urterekin jubilatu beharko dugula berretsi dute.

Euskal gehiengoa ordezkatzen duten alderdi abertzaleen ahotan *independentzia* eta *soberanismoa* hitzak entzuten dira sarri askotan. Errepublikaren eta erabakitzeko eskubideen aldeko itun solemneak egiten dituzte, baina, egunerokoan, Madrilgo eta Pariseko gobernuen agindu guztiak txintxo betearazten dizkigute.

**ALGORITMOAK, ADIMEN ARTIFIZIALA... DEITU NAHI DUZUEN MODUAN, BAINA EZ GARA ASKE**

Klima larrialdiaren aurkako neurriak hartu beharrean gaude, nahi eta nahi ez; amildegia gero eta hurbilago dagoela agerian dago. Gizartearen interesen artean gehien kezkatzen omen gaituen gaia da, baina, sarri, gure ekintzek kontrakoa esaten dute. Harrotasunez iragarri zuten medioetan Aste Santuan Louiko aireportuko trajina. Pentsa, egun bakar baterako 151 hegaldi omen zeuden programatuak. Basque Country ezagutzen batzuk eta *basque countryar*-ak eguzkia bilatzen beste norabait.

Bukatzeko, zer da garrantzitsuago gizakiaren askatasun aldarria eta eskubidea baino? Baina egunerokoan beste norbaitek erabakitakoa kontsumitzen dugu. Algoritmoak, adimen artifiziala, robotika... deitu nahi duzuen moduan, baina ez gara aske.

Zerrenda luzeagoa da, baina horiek nire bizitzako kontradikzio txiki eta handiak dira eta ez ditut hemen aireratuko. Inkoherentzia batzuk barkatzeko modukoak direla uste dut, beste batzuk nahi eta nahi ez errotik konpontzekoak, eta beste batzuekin bizitzen asmatu behar. Esan moduan, oreka xumeak aurkitu beharko ditugu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

### Arma, tiro eta pum

**GOIZALDE LANDABASO**
**'BERRIA'-N ARGITARATUA**
HTTPS://LABUR.EUS/FQNKE

Hogei urteko Kaylin Gillis-en heriotza izan zen lehenengoa. Berez, ez zen lehendabizikoa izan, baina erne egotera eraman ninduena bai, bera izan zen. New Yorkeko estatuan lagun batzuekin autoan zihoan beste adiskide baten etxera. Bidean, baina, okertu eta etxebizitza pribatu bateko bidean sartu ziren. Jabetu zirenean atzera egiten hasi ziren, baina ordurako etxeko jabeak eskuetan zuen tiro egiteko arma. Eta arma, tiro eta pum. Kaylin Gillis hil zen bizitzari eutsi ezinean. Orduan jakin nuen Kansas Cityn jazotakoa: 16 urteko Ralph Yarl, afroamerikarra, anaia txikien bila joan zen, baina kalearen izena txarto apunturik zuen eta anaiak egongo ziren etxeko txirrina jo zuenean gizon zuri bat arma eskuetan agertu zen. Eta arma, tiro, pum. Ralph Yarl, ordea, bizirik dago. Egun batzuk geroago hirugarren albisteak ere antzerako istorioa zekarren. Texas-eko herri batean, Payton Washington eta Heather Roth gazteak supermerkatu batean erosi ostean autora joan eta, nonbait, eurena ez zena zabaldu zuten. Okerrak zuzentzeko astirik ere ez zuten izan: barruan zegoen jabeak (25 urteko gizonezkoa) atoan erantzun zien. Arma, tiro eta pum. [...]

Txundituta nauka honek denak. Ziurrenen gauza asko nahastuko dira hemen: beldur asko, eta beharbada armen banalizazioa ere bai. 2020-2022 tartean estatubatuarrek 60 miloi arma erosi zituzten. Milaka kilometrora urrun ikusten da hau dena, ezinezkoa Europan. Bada oraindik AEB paradisua dela pentsatzen duenik? Daniel Markovits filosofo eta ekonomialaria da, eta Yale-ko Unibertsitatean eskolak ematen ditu. Eta AEB ondo ikertu izanak ematen dion jakituriarekin argi esaten du: "Amerikar ametsa fartsa hutsa da".

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

**Argitaratzailea**
Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

**Lehendakaria**
Monika Belastegi.
**Zuzendari nagusia**
Iban Arantzabal.
**Eduki zuzendaria**
Eneko Azkarate.

**Erredakzio batzordea**
Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

**Zuzendari komertziala**
Mireia Larrañaga.
**Administrazio zuzendaria**
Agurtzane Gaintzarain.

**Diseinu arduraduna**
Iñaki Iturbe.
**Hizkuntza arduraduna**
Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa arduraduna**
Igone Osinaga.

**Sailetako arduradunak**
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
**Maketazioa**
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
**Publizitatea**
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

**Administrazioa**
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Nerea Artola.

**HARPIDETZA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*harpidetza@goiena.eus*

**PUBLIZITATEA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
*publi@goiena.eus*
**EGOITZA NAGUSIA**
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
*berriak@goiena.eus*

**Lege Gordailua:** SS-965/2014
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 18.500 ale
**Difusioa:** 18.723 ale

**Inprimategia:**
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala, Bergarako Udala, Oñatiko Udala, Aretxabaletako Udala, Eskoriatzako Udala, Antzuolako Udala, Aramaioko Udala, Elgetako Udala, Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

# GUTUNAK

## Animalien aurkako tratu txarretan oinarritutako ikuskizunetan indarkeriaren kultura bultzatzen dute gure herrietako jaietan

**YOLANDA JIMENEZ SUDUPE**
ARRASATE

Gaur egun, era batera edo bestera eraso egiten zaien animalia babesgabeekin egiten diren ikuskizun krudel eta ankerrak –txalo artean– ikuskizun dibertigarritzat dauzkagu, eta zail egiten zait gizarte aurreratu batek entretenimendu soilerako besterik erabiltzen ez diren animalien sufrimenduaren aurrean itsu jokatzen duela ikustea.

Animaliak –eta ugaztunak, bereziki– minarekiko eta sufrimendu fisiko eta psikikoarekiko sentikorrak diren izakiak direnez eta beren ezaugarri biologikoen arabera bizitzeko eskubide naturala dutenez, gizarte osoaren eta erakundeen defentsa eta babesa jaso beharko lukete.

Herri baten garapen-maila haren animaliei ematen zaien tratuan hautematen dela esan ohi dute, eta, horregatik, gure udalek aurrerapausoa eman eta animalien ongizatearen aldeko aldarrikapena egiteko garaia iritsi dela uste dut.

Gure herria gobernatzen dutenen proiektua errespetuan oinarritzen dela diote, eta balio horien artean elkarrekiko zaintza azpimarratzen dute. Printzipio horietan oinarritutako politika batek ez luke animalien aurkako tratu txarrik onartu beharko.

Gure udalek animaliekiko tratu txarrak baztertu beharko lituzkete, pertsonen aurkako indarkeria onartzen ez duten bezala –matxismoa, arrazakeria, xenofobia, homofobia, transfobia, *bullying*-a...–.

Ondo legoke gure udalek eta haien jai batzordeek zezenketarik ez antolatzea eta, hala, jaiez gozatzeko aukera izatea; animaliei sufrimendurik eragin gabe.

## Osakidetzako Etxeko Ospitalizazio Zerbitzuari

**BEGOÑA GARAI**
ESPERANZAREN SEME-ALABEN IZENEAN (ESPE, ARANTZA, JOSEBA ETA BEGOÑA)
ARRASATE

Idatzi honen bidez, Osakidetzako Etxeko Ospitalizazio Zerbitzutik jasotako arreta eskertu nahi dugu.

Monica Estebani, Asun Portillori, Maitane Izagirreri eta Alaitz Olaberi gure eskerrik beroenak, hil berri den gure ama Esperanza Nafarrate enpatiaz, berotasunaz, gizatasunaz eta profesionaltasunaz zaindu dutelako eta seme-alabak ere horrela tratatuak sentitu garelako.

Esker mila, berriro ere.

## Udaberri eta uda artean hasiko dira Fukushiman

**JOSU GARITAONANDIA**
'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN ARDURADUNA
BERGARA

Urteetan ur erradiaktiboa ahal izan duten neurrian depuratu eta gordetzen ibili dira, eta, toki barik gelditu direnez, laster hasiko dira itsasora isurtzen. Tritioa gelditzen zaie depuratzeko, baina oraindik ez da asmatu horretarako teknologiarik; beraz, tokirik gabe gelditu direnean, itsasora isuri eta kito! Lasaitzeko asmoarekin, aditu batzuek esaten dute munduko zentral nuklear guztiek isurtzen dutela ura tritioarekin.

Hori entzunda, logikoa da pentsatzea: "Auskalo zenbat gauza gehiago isurtzen dituzten".

Ez ahaztu oraindik su nuklearrak piztuta jarraitzen duela; ez dakite noiz arte egongo den piztuta, eta, kontrolpean eusteko, ur erradiaktiboa sortzen dute hondakin bezala.

Gai horiek ez dute aintzat hartzen energia nuklearra merkea dela esateko orduan, eta inork ez daki zer ondorio dakarren ondorengo belaunaldientzako, baina gauza onik ez.

Oraindik energia nuklearra erabiltzen duten argindar-enpresei erosten diezu argindarra?

## Maiatzaren 7an, 'Gari etxera' kalejira

**ENEKO BARBERENA MONDRAGON**
ARETXABALETA

Hamaika aldiz idatzitako gutuna da hau, eta hamabi aldiz irakurria. Bai, badakit. Baina idatzi beharra bera da esanguratsua. Ez dago zertan hau luzatu, soilik eskatzen dugu ez diezaiotela etsaien zuzenbidea aplika. Ez Gariri, ez Joseba Arregiri, ezta beste guztiei ere. Gradu erregresiorik gabe, Auzitegi Nazionalaren oztoporik gabe, gorrotorik gabe; bakar-bakarrik edozein presok dituen eskubide berak eduki ditzatela, ez gehiago eta ez gutxiago.

Idazle batek, akaso, bestela idatziko zukeen. Metaforak, anaforak eta kataforak sartu han eta hemen. Berbekin olgetan egin, irakurleari zer pentsa eman. Baina idatzi beharreko (ia) guztia idatzita dago. Gari etxean nahi dugulako, behar dugulako, maiatzaren 7an, 12:30ean, kalejira egingo da Portasoleko geltokitik hasita Herriko Plazaraino, Gari Atxabaltara ekimenak antolatuta. Plazer baduzue, han egingo dugu bat.

## Eskerrik asko, bihotzez

**LARRAITZ URIBESALGO**
BERGARA

Duela urtebete hil zen ama, ELA gaitzak jota. Hilabete gutxi batzuk izan ziren, baina luzeak eta oso gogorrak: maldan behera bultzatu gintuen bizitzak bortizki eta itsu.

Egoera latzenetan balioesten da bidelagunen garrantzia, eta guk onenak izan genituen alboan. Bergarako osasun zentroan A. Valverde, Blanca Cebrian eta Maika Guridi –beti gauzak erraztén–; Arrasateko Etxeko Ospitalizazioko talde osoa, Jesus Millas medikua, Ariane Arruti eta gainerako erizainak; Zainketa Aringarrietako taldea, Iñaki Peña buru –eskerrik asko, bihotzez–. Bizitzak goxoagoa behar luke zuen moduko pertsonentzat: *business class*-eko hegaldian urte oparoak merezi dituzue, traturik onenarekin.

Izenak eman ditut, eta horrek bere arriskuak ditu, norbait kanpoan gelditu daitekeelako. Baina izenak garrantzitsuak dira, pertsonen jarrerak, profesionaltasunak eta bihotzetik egindako lanak dena aldatzen duelako. Eskerrak gure osasun sistema publikoak halako altxorrak batzen dituen; zain dezagun, benetan zortedunak gara eta.

Ama entzuten dut urrunean zuendako ospitalera erreileno eta tostoiak bidaltzeko eskatzen, baina nik uste dut jendaurreko aitorpena eta esker ona direla egin daitezkeen opari onenak. Zuen lanak ez du preziorik eta ezin da merezi duen moduan eskertu. Zuek zarete gure ongizate eta duintasunaren zaindari, bizitzak zaurgarrien egiten gaituen uneetan.

**GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

# HAUXE BAI JENEROA!

**GARBINE UBEDA**



# 25. urteurrena ospatzen ari da Harreman Denda

Hainbat ekintza egingo dituzte maiatzean. Lehenik, 'Norte salvaje' filma proiektatuko dute maiatzaren 2an, martitzena, Amaia antzokian, 19:30ean, eta, bukatzean, solasaldia egingo dute Zehar Errefuxiatuekin gobernuz kanpoko erakundeko kideekin

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE

Harreman Dendak 25. urte betetzen ditu aurten eta urte horietan guztietan "merkataritza justuago baten erreferentea" izan da bailaran, Harremaneko kideek azaldu dutenez. "Neurri batean, Euskal Herrian ere bai, ez baitira halako denda asko".

Bidezko merkataritza "boluntario askoren lanari esker" bultzatu da bailaran, eta lan isil horren poderioz sentsibilizazio kanpainak egin dituzte, eta Hiper Eroskiko denda fisikoan Fairtradeko produktuak eskaini diete herritarrei. "Horrez gain, inguruko komertzio, elkarte, udal zein enpresekin elkarlanean aritzea lortu dugu".



Harreman Dendako boluntarioak Seber Altuben. E.A.B.

Etorkizunera begira ere bide beretik jarraitu gura dute lanean. "Bidezko merkataritza pobreziaren kontrako tresna eragingkorra delako. Eta mundu justuagoa lortzeko, beharrezkoak diren irizpide sozial, ekonomiko eta ekologikoak hartzen dituelako kontuan".

Halaber, bidezko merkataritzak hainbat onura dituela nabarmendu dute: "Elikagaiengatik prezio justu eta egonkorra adosten da produktoreekin; aurrefinantzaketa eskaintzen zaie, enpresak bideratzeko; luzerako erlazioak izaten dira; soldata justua jasotzen dute; lan-baldintza duinak dituzte; haurren eta nagusien lan esplotazioa ekiditen da; genero berdintasuna bultzatzen da; parte-hartzea demokratikoa eta kooperatiboa da; eta ekoizpen ekologikoa lehenesten da".

### Film proiekzioa eta gehiago

Martitzenean emango duten filmak Mexikoren eta AEBen arteko mugan eta Espainiaren eta Europaren artekoan gertatzen dena kontatzen du. "Sinbolismoz betetako kontakizunean, indarkeriaren gordintasuna parajearen edertasunarekin kontrajartzen da. Jendeak ihes egiten du Ipar Basati baterantz, eta han diskriminazio eta hesi gaindiezinekin egiten dute topo. Azken finean, zer da, ba, basatiagoa? Pertsona bat muga bat gainditu nahian ala mugaren existentzia bera?". Saio horrez gain, maiatzaren 13an Harreman Dendako produktuak jarriko dituzte salgai Antzuolako azokan, Anelkarren eskutik, eta hilaren 20an bertako produktuen azokan izango dira, Seber Altuben.


ARRASATEKO EAJ

## EAJk ere badauka zerrenda

"Aniztasuna, esperientzia eta ezagutza" dituen zerrenda aurkeztu du Arrasateko EAJk udal hauteskundeetararako. Honako hauek dira lehen hamarrak: Maria Ubarretxena, Ander Garay, Edurne Unamuno, Jon Apraiz, Agurne Juldain, Asier Muxika, Maitane Muñoz, Bixente Etxeberria, Ibon Arrupe eta Amaia Zeziaga (Zerrenda osoa, Goiena.eus-en).


ELKARREKIN

## Koalizioan aurkeztuko dira

Hasiera batean ezetz bazirudien ere, azkenean, koalizioan aurkeztuko dira Podemos Ahal Dugu, Ezker Anitza-IU, Berdeak Equo eta Aliantza Berdea, Eva Abuin zerrendaburu dela, Elkarrekin izenarekin. Ezker Anitza-IUko Juankar Davila izango da bigarrena zerrendan eta Yira Alonso (Podemos Ahal Dugu) eta Luis Miguel Barbero (Ezker Anitza-IU) joango dira gero.

Matrikulazio epea zabalik!
2022-2023 JAIOTAKOENTZAT
IZEN EMATEA
Apirilaren 24tik maiatzaren 16ra
ON LINE
www.haurreskolak.eus
Zatoz gu ezagutzera
AURTEN, DOAKOAK
Arrasateko Haurreskolak


MUSAKOLA haurreskola
Elkano 8 • Tel.: 943 79 13 03
BEDOÑABE haurreskola
Alfontso VIII 1 • Tel.: 943 79 76 86
ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO




Brigitte Castro berbetan; ondoan, osoko bilkuran atera zuten pankarta. E.A.B.

# Aurrera egin du Amerika elkartearen mozioak

Pertsona migratzaileen ezohiko egoera erregularizatzea eskatzen duen mozioa aurkeztu zuen Amerika elkarteak martitzeneko osoko bilkuran, agintaldiko azkenean, eta udalbatzak aho batez onartu zuen; elkarteko kideek pozez hartu zuten onarpena

**Eneko Azurmendi Barrena** ARRASATE
Brigitte Castrok egin zuen berba Amerika elkartearen izenean, eta azaldu zuen irregulartasun egoerak esplotaziora kondenatzen dituela: "Baita instituzioen aurrean ikusgarritasunik ez izatera eta oinarrizko zerbitzu publikoak jasotzeko aukerarik ez izatera ere. Ezkutuko ekonomiak gure egoera fiskala zailtzen du. Beraz, erregularizazioak lagunduko luke gizarte-segurantza osasuntsuagoa izaten, gure ekarpen fiskalen eraginez".

Mozioaren bidez, Arrasateko Udalari gaiarekiko konpromisoa eskatu zioten. "Badakigu Udalak ez dituela eskumen guztiak gure arazoei aurre egiteko, baina gauza asko egin ditzake bide horretan. Guk geuk ate guztiak zabalik ditugu edozertan laguntzeko, lanerako ideia berriekin eta freskotasunarekin", nabarmendu zuen Castrok.

Elkarteko kideak "pozik" azaldu ziren mozioak aurrera egin zuelako, baita Udal Gobernua eta oposizioa ere.

### Kreditu aldaketa ere onartuta

Era berean, kreditu aldaketa ere onartu zuen udalbatzak, eta, modu horretan, 2022ko udal aurrekontuko 1.205.000 euro 2023ko udal aurrekontuan txertatuko dira. "Egoera osasuntsuan ditugu aurrekontuak. Aldaketa horrekin, 5.000.000 euro pasatxo geratuko zaizkio hurrengo Udal Gobernuari, hark ondo deritzon proiektuetara bideratu ditzan", zioen Anuska Ezkurrak, Udal Gobernuaren bozeramaileak.

Podemos Arrasatek eta EH Bilduk aurka bozkatu zuten. "Alde batetik, guk aurrekontua egiterakoan proposatutakoak izan dira hainbat gauza, orduko hartan ez zirenak onartu eta orain bai. Bestalde, soberakinak herrian inbertitu behar dira eta hori ez da gertatzen ari azken urteotan", azaldu zuen Maider Morrasek.

### Elorregiko geltoki berriaz

Bestalde, Elorregiko biribilgunean autobus geltokia eta komuna egokitzeko lankidetza-hitzarmena sinatzeko proposamena ere onartu zuten, aho batez. "Hiru udalen eta Aldundiaren arteko hitzarmenaz gain, Debagoieneko Mankomunitatearekin ere adostu dugu hura arduratzea Elorregin jarriko duten komunaren kudeaketaz", adierazi zuen Maria Ubarretxena alkateak.

### Beste mozio bat, epez kanpo

Podemos Arrasateko Eva Abuinek salatu zuen Katearen Lotu-

**1.205.000 MILIOI EURO 2023KO UDAL AURREKONTUAN TXERTATZEA ONARTU DU UDALBATZAK**

rak elkartearen mozioa osoko bilkurara eraman ez izana. "Epez kanpo erregistratu dela da argudioa, baina Gobernuak ere ez ditu arau propioak betetzen, osoko bilkurak ia inoiz ez baitira egiten hileko lehen martitzenean. Malgutasun handiagoa eskatzen dugu herriko eragileekiko. Izan ere, irailera arte ezingo dute mozioa aurkeztu".

Ubarretxenak erantzun zion betiko prozedura jarraitu dutela oraingoan ere: "Ez da lehen aldia. Amerika elkartearen mozioa ere martxoan aurkeztu zuten, epez kanpo, eta gaur etorri dira horregatik. Beraz, hurrengorako erregistratuko da". Morrasek zera erantzun zuen: "Guztiok dakigu beste batzuetan onartu izan dela, epearen barruan ez egonda ere, adostasuna lortuta. Beraz, oraingoan ere posible zen. Borondate kontua da".

### Agintaldiko azken osoko bilkura

Agintaldiko azken osoko bilkura izanik, agurrekin eta esker oneko hitzekin bukatu zuten saioa, zenbait udal ordezkarirentzat azkena izan baitzen; besteak beste, zortzi urtez Udal Gobernuko bozeramaile lanetan aritu den Anuska Ezkurrarentzat. Gobernukideei zein oposizioko kideei eskerrak eman zizkien Ezkurrak: "Gobernukide guztiei eskerrak, emandako babesagatik, eta oposizioari ere bai, haiekin ere asko ikasi baitut".



HASIER LARREA

## Protokoloa aurkeztu dute

*Euskaldunon hizkuntza eskubideen aldeko Arrasateko protokoloa* aurkeztu dute asteon, "Arrasaten euskararen normalizazioaren eta erabileraren alde egitea" helburu daukana. Protokoloaren xehetasunak azaldu dituzte eta eragileei dei egin diete ekimenera batzeko. Aldizkari honek zabal landuko du gaia datorren astean, eragileen ahotsak jasoz.

## Sanjuanetako lelo lehiaketa martxan da, hilaren 10era arte

Aurten ere lelo lehiaketa antolatu du AED elkarteak sanjuanetara begira, Arrasateko Udalarekin elkarlanean, eta dagoeneko zabaldu dute leloak aurkezteko epea. Maiatzaren 10era arte egongo da horretarako aukera, *aed@aedelkartea.eus* helbidera bidalita. Sanjuanak euskaraz bizitzea helburu hartuta, lelo lehiaketa antolatu du aurten ere AED elkarteak eta, hala, jaien bueltan aterako diren euskarrietan erabiliko dute lelo irabazlea: lepoko zapian, pegatinetan eta abarretan. "Erabilera hori kontuan hartuta, esaldi laburra eta argia izatea baloratuko da", diote AEDtik. Informazio gehiago, *Goiena.eus*-en.

## Zuztarrak Errotuz-ek bi hitzaldi antolatu ditu maiatzerako

Urteroko ohiturari jarraituz, Zuztarrak Errotuz taldeak udaberriko hitzaldi-zikloa egingo du, Arrasateko Udalaren laguntzarekin, eta bi hitzaldi antolatu ditu maiatzerako: lehenik, hilaren 3an, eguaztena, *Euskal nazioaren epika, Irulegi eta Veleiaren astindua* hitzaldia egingo du Patxi Zabaleta legelari, ikertzaile eta idazleak, Kulturateko areto nagusian, 19:00etan.

Bestetik, *Los castillos navarros de Atxorrotx y Arrasate en defensa de Gipuzkoa* hitzaldia egingo du Iñaki Sagredo historialari eta ikertzaileak hilaren 10ean, eguaztena. Hori ere Kulturateko areto nagusian izango da, 19:00etan hasita.

## OHARRAK

### Haurren danborradarako izen-ematea

Maiatzaren 8an egin beharko da, 17:00etatik 18:30etara, SUDCek Kulturolan daukan lokalean. Derrigorrezkoa da izena ematea.

### Familia-meza egingo dute domekan

San Juan Bataiatzailea parrokian izango da, 11:00etan. Jose Maria Arizmendiarrieta gogoratuko dute.

### San Andres auzoko jaiak

Asteburuan ospatuko dituzte (Egitarau osoa, *Goiena.eus*-en).

### 'Pertsonengan oinarritutako preskripzioa'

Naiara Fernandezen hitzaldia martitzenean, 17:30ean, Kulturaten.

# "Gazteengan dago San Feliperen etorkizuna"


Xabier Bengoa, Biteriren omenezko eskultura parean, Grupo San Juanen. GOIENA

**XABIER BENGOA** SAN FELIPE ELKARLAGUNTZAKO LEHENDAKARIA

Bihar, zapatua, Juan Arzamendi Musika Etxean egingo duten batzar orokorra baliatuko dute San Felipe Elkarlaguntzaren urteurrena ospatzeko (10:30)

**Xabier Urzelai Atxa** ARRASATE

San Felipe Elkarlaguntzak 125 urte bete ditu. 125 urte bizitzako azken uneak iristen direnean, alegia, heriotzaren aurrean, familiek egin behar izaten dituzten tramiteetan laguntzen, "momentu delikatu hori samurtzen". Gaur egun, 11.000 bazkide pasa dituzte eta gehientsuenak arrasatearrak dira. Elkarteko lehendakari Xabier Bengoaren (Arrasate, 1949) esanetan, gazteengan dago elkartearen etorkizuna.

**Zer dela-eta sortu zuten arrasatearrek elkarte hau?**

Normalean, beharrak eraginda egiten dira gauzak, eta orduan ere halaxe izango zen. Seguruenik, herrian heriotza asko izango ziren eta familia askok zailtasunak izango zituzten gastuei aurre egiteko. Asko eta asko familia xumeak ziren, eta ez zuten gaitasunik halako gastuei aurre egiteko. Eta orduan sortu zuten mutua moduko bat, San Felipe Elkarlaguntza.

**San Felipe, zehazki, noiz sortu zuten, halako dokumentu ofizialik ez dago.**

Ez. Jasota daukaguna da garaiko prentsan aurkitu duguna. *La voz de Guipúzcoa* egunkariaren 1898ko apirilaren 14ko zenbakian badator San Feliperen aipamena. Haren arabera, San Felipek dokumentazio bat aurkeztu zion Gobernuari, agiriak onar zitzan. Eta, gainera, Protokoloen Oñatiko Artxibategiko datuak ere lortu ditugu. 1895ean, San Felipek dokumentazioa aurkeztu zuen elkarte bezala onartua izan zedin, baina orduan ez zuten lortu.

**125 urte asko dira. Zein da arrakasta horren gakoa?**

Esango nuke San Felipetik eskaini den zerbitzuagatik izan dela, eta herritarrengandik oso gertu egon den elkartea izan delako. Horren ondorioz, San Felipe gaur egun herritarren artean oso sustraituta dago. Oso lokala edo bertakoa izan da; ez dugu nahi izan edozein modutan hedatzea, eta soilik gure auzoetara eta Aramaiora zabaldu gara historikoki. Bazkide ia-ia gehienak arrasatearrak dira. Akta-liburuan jasota dago Angiozarko hamaika baserrik elkartera sartzeko eskaera egin zutenekoa, eta onartu egin zituzten, Arrasateko langileak zirelako denak. Funtzio sozialeko kontzientzia izan du San Felipek, hemen egiten den lana boluntarioa da, eta hori garatzen dihardugu.

**Gipuzkoan gaur egun zenbat elkarte daude San Felipe modukoak?**

Guk dakigula, lau kofradia edo elkarte egon litezke ehorztetxe kalifikazioarekin.

**Funtsezkoa izango zen elkartea behar berrietara egokitzen joatea...**

Zalantza barik, eta hor egon da aurrera egin izanaren beste gakoetako bat. Lehen, mezak goizetan izaten ziren, eskelak aldatzen joan dira, estatutuak euskaratu egin ziren, gorpua sanderoek eraman beharrean 1967an auto bat alokatu eta egokituta zerbitzu hori eskaintzen hasi ginen, jendea hasi zen gorpua errausteko eskatzen, arrasatearrak kanpoan ere hiltzen ziren eta gorpuak ekarri egin behar ziren; esaterako, Benidormetik... Zerbitzua digitalizatu egin behar izan zen... Aldaketa mordoa egon dira, akta-liburuak berak erakusten duen moduan. Liburua bera ere konpontzera eramango dugu aurki; dagoeneko dokumentu historikoa bilakatu da, 115 urte ditu.

**Ekonomikoki egoera onean dagoen elkartea da San Felipe?**

Bai, egoera ekonomiko onean, eta kontuak ondo zainduta daude. Azken urteotan beherakada izan da, baina, hala ere, orain momentuan 11.500 bazkide inguru ditu San Felipek, eta, bazkideen seme-alabek elkartean jarraitzen badute, San Felipek etorkizuna izango du. Hori bai, elkartea uzten hasten badira, beste kontu bat izango da, hor egongo da gakoa.

**Zein da erronka aurrera begira?**

Zerbitzuaren kalitateari eustea, eta horretan oinarrituta bazkide gehiago egitea. Gure bazkide gehienak familiak dira, eta familietako seme-alabek 40 urte betetzen dituztenean aukeratu egin behar dute ordaindu edo ez. Horregatik diogu gazte haiei eustea dela erronka.

**Zapatuko batzar orokorrerako zer duzue prestatuta?**

Batetik, asmoa bada urte hauetan elkarteak bizi izandakoak modu laburrean kontatzea. Udala gonbidatu dugu, eta koru parrokialak lau kantu abestuko ditu; horietako azkena, *Aita gurea*. Izan ere, San Feliperen akta-liburuak azaltzen du elkartearen bilera guztiak *Aita gurea* kantuarekin hasten edo bukatzen zituztela. Eta ohiturari eutsiko diogu.



San Felipe Elkarlaguntzako batzordekideak, Grupo San Juango egoitza parean. X.U.








**Ford Puma 1.0 EcoBoost 92kW (125cv) Titanium**

**288 €/hilean**



# Arrakastatsua izan da Arrasateko 1.Autoen Azoka!

Auto berrien, zero kilometrokoen eta bigarren eskukoen azoka handia izan dugu joan den asteburuan ARRASATEKO gure instalazioetan eta arrakasta handia izan dugu!

EASO MOTOR TALDEAk eskerrak ematen dizkie bezeroei eta bertaratu zareten guztioi, gugan jarri duzuen konfiantzagatik eta jakinarazten dizuegu AZOKAKO DESKONTUAK hilabetea amaitu arte mantenduko ditugula.

**Stockaren likidazioa eta prezio berezia, haiek agortu arte**

GRUPO EASO MOTOR

www.grupoeasomotor.com

**Ford Easo Motor, San Andrés kalea, 6 - Arrasate** 673 80 28 84 **grupoeasomotor.com**

# Hirietan ugaltzen diren hegaztiak ezagutzen

Aranzadi Zientzia Elkarteak 2021ean martxan jarri zuen Enara proiektua aurkeztu du. Helburu nagusia da hegaztien kontserbazioa sustatzea. Horretarako, laguntza eskatu dute: herritarrek enarak non dauden koka dezakete sareko aplikazioan

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARRASATE

Aranzadi Zientzia Elkarteak eta Arrasateko Udalak sustatuta, Arrasateko enarak ezagutzeko hitzaldia egin dute Kulturateko areto nagusian asteon. Olatz Aizpurua Aranzadiko Ornitologia Saileko teknikariak gidatu zuen saioa, hogei bat herritarren aurrean.

Solasaldiaren helburu nagusia Aranzadi Zientzia Elkartearen Enara proiektua herritarrei ezagutaraztea izan zen. Bide batez, herritarrak biodibertsitatearen garrantziaz hezi eta sentsibilizatu nahi izan zituen Aizpuruak, batez ere, inguru urbanoetako hegazti-faunaz.



Olatz Aizpurua ornitologoa Kulturaten, habia motak erakusten. M. AGIRRE

**Proiektuaren funtsa**

Enara proiektua 2021ean hasi zuen Aranzadik. Herritar-zientzia proiektua da eta helburu nagusia da hirietan eta herrietan ugaltzen diren hegaztien kontserbazioa sustatzea. "Proiektua, gehienbat, enaretan, enara azpizurian eta sorbeltzetan dago oinarrituta. Espezie horiek guztiak intsektiboroak dira eta intsektuen izurriteak kontrolatzen laguntzen digute. Gainera, haien biziraupena gizakien menpe dago, habiak eraikinetan kokatzen baitituzte", azaldu du Olatz Aizpurua ornitologoak. Aizpuruak nabarmendu du enarak migratzaileak direla eta beti habia berera itzultzen direla; baina, egun, gero eta toki gutxiago dutela ugaltzeko eta, horren ondorioz, gero eta gutxiago daudela.

**Enaren kokapena mapan**

Hegaztien kontserbazioa sustatzeko, herritarren parte-hartzea eskatu dute. "Laguntza eske gatoz, eta proiektuan parte hartzeko eskatzera. Eskatzen duguna da kokatzea sareko aplikazioan non ikusi dituzten enarak", nabarmendu du Aizpuruak. Hain zuzen, ataria da *aranzadi-enarak.eus*. Han, bisorea botoia klikatuta EAEko mapa ikus daiteke; eta mapa horretan enarak non dauden identifikatu dituzte. Modu horretan, herritarrek gehiago jakingo dute enaren gainean; eta, bestalde, "tresna egokia" izango da udalentzat. "Fatxada bat berritu behar bada, Udalak kontuan izatea han habiak daudela, kalte hori konpentsatzeko. Enara azpizuriaren habia-kutxa bat jar daiteke lehen habia zegoen tokian, enara berriro ere leku berera etortzeko", azaldu du.

**PROIEKTUAREN ATARIAN IKUS DAITEKE NON DAUDEN ENAREN HABIAK**

**Enara motak**

Enara proiektuaren barruan sei hegazti mota jasotzen dituzte: enara arrunta, enara ipurgorria, haitz-enara, enara azpizuria, uhalde enara eta sorbeltz arrunta. Hala ere, Arrasateko hitzaldian hiru enara mota azaldu zituzten, ohikoenak direnak: enara arrunta, azpizuria eta sorbeltz arrunta: "Sorbeltza ez da enaren familiakoa, baina jendeak nahastu egiten ditu, eta horregatik jarri dugu hemen, jendeak ezagut dezan eta maite dezan".

Enara arrunta da baserrietan egoten dena; ukuiluetan egiten du habia. Oro har, ez du hirigune handietan umatzen, abere-eremuetan hegan ehizatzen dituen intsektuak baitira haren elikagai-iturri nagusia. Txori nahastezina da, aerodinamikoa, hegal luze eta luzexkak eta buztan urkilatua duena. Enara azpizuria hirietan egoten da. Hirundinido txikia, uhalde-enara baino pixka bat handiagoa. Hegal luze eta zorrotzak ditu eta isatsa urkila formakoa, baina enara arrunta baino askoz laburragoa. Espezie horrek nahiago izaten du uraren hurbiltasuna, eta teilatu hegal azpian ugaltzen da, eta koloniak eratu. Azkenik, sorbeltz arrunta dago, ia bizitza osoan airean igarotzen duen espeziea, ugalketa garaian bakarrik pausatzen da eta. Moko motza eta laua; eta, hain zuzen, hegan balezta forma du.

## Italiako street punk doinuak Koolturren eskaintzaren baitan

Maiatzean hiru emanaldi egongo dira; tartean, datorren asteko eguenean, Gli Ultimi italiarren musika

**A.E.G.** ARRASATE

Dagoeneko prest dute maiatzeko Kooltur eskaintza. Hiru kontzertu izango dira: maiatzaren 4an, 18an eta 25ean.

Datorren asteko eguenean, esaterako, Italiatik etorritako talde baten emanaldia entzuteko aukera egongo da: Gli Ultimi erromatarrak. 2008an eratutako taldea da eta street punk rock musika egiten dute.



Musikari italiarrak. 'NAPOLIKE.IT'

Maiatzaren 18an, aldiz, emakume bakarlari baten txanda izango da: Birkit. Birkite Alonsok 2017an bakarlari moduan hasitako proiektua da Birkit. Nazioarteko folk eta rock independentea da haren oinarria; gainera, musikaria eta emakumea izatearen identitatearen gainean dihardu.

Maiatzaren 25ean, *Petti eta etxeko uzta* emanaldia izango da Arrasateko gaztetxean. Beratarrak ondoan izango ditu herrikide diren beste musikari batzuk: Igor Telletxea, Iñigo Telletxea eta Joseba Irazoki, esaterako.

Emanaldi guztiak Arrasateko gaztetxean izango dira, 22:00etan, 7 euroren truke.

### 'Kantari' saioko emanaldiak bihar grabatuko dituzte

Goienak antolatzen duen euskarazko *Kantari* saioko emanaldiak bihar grabatuko dituzte, Amaia antzokian. 7 eta 11 urte bitarteko arrasatearrak igoko dira taula gainera; 10:30etik 14:30era eta 16:30etik 19:30era. Bederatzi talde. Edonor joan daiteke saioak ikustera, eta doan izango da. Hurrengo asteburuan emango dute Goiena telebistan.

### Doke antzerki taldeak antzerki udalekuak antolatu ditu

Doke antzerki taldeak antzerki udalekuak antolatu ditu uztailerako. Adina kontuan hartuta bi talde bereiziko dituzte: 8 eta 11 urte bitartekoek uztailaren 3tik 7rako izango dute ikastaroa; eta 12 eta 16 urte bitartekoek, uztailaren 10etik 14ra bitartean. 10:00etatik 13:00etara izango dira. Idatzi *dokeikastaroak@gmail.com* helbidera.

### Big Band-aren doinuak Kanarietan entzungo dira

Arrasate Musikaleko Big Bandeko musikariak Kanariar uharteetan dira; han hiru emanaldi egingo dituzte. Bi kontzertu Santa Cruz Tenerifekoan izango dira, Firgas eta Taraconte herrietan, eta hirugarrena, aldiz, Las Palmas Kanaria Handikoan, La Laguna herrian. Hango taldeekin batera joko dute Arrasateko musikariek.

### Mondrako ohorezko gazteak animatzera joateko deia

Ohorezko gazte mailan dihardue Mondra taldeak hil edo biziko partidua izango du zapatuan. Lider dagoen Azkoitiko Anaitasuna taldea izango da Mojategin, 18:30ean. Dei egin dute Mojategira joateko taldea animatzera; izan ere, Gipuzkoako mailarik altuenean jarraitzeko, etxeko partiduak irabaztea ezinbestekoa izango da.



Eguazteneko batzarrean parte hartu zuten gazteak, Txirritolako kideak eta udal ordezkaria. OIHANA AMEZKUA

# Aisialdi hezitzaileari forma ematen dabiltza

Nerabeei zuzendutako Tximista Aisialdi taldeko hezitzaile izateko interesa dutenendako bilera irekia egin zuten eguaztenean. Txirritola euskara elkarteak eta Udalak gidatutako saioa izan zen. Maiatzaren 15ean izango da hurrengo bilera

**Arantzazu Ezkibel Galdos** ARAMAIO
Txirritola Euskara Elkartek eta Udalak deituta, bilera irekia egin zuten eguaztenean, Tximista Aisialdi taldeko hezitzaile izan nahi dutenei zuzenduta. Hiru gazte joan ziren batzarrera, eta beste bik, agertzerik izan ez zuten arren, hezitzaile izateko interesa erakutsi dute. "Balorazio ona izan da. Proiektua da herritik herrira egindakoa; ez dugu nahi izan kanpotik hezitzailerik ekarri, interesgarriagoa iruditzen zaigu herrikoak izatea", azaldu du Txirritolako kide Amaia Bellosok.

Ikusi dute Udalak eta Txirritolak dituzten helburuak bat datozela batzarrera joan ziren hezitzaileen beharrekin.

**Proiektua aurkeztu zuten**

Hezitzaileekin harremana izan eta esku artean dituzten proiektuak azaltzea zen batzarraren helburu nagusia. Hala, Gazte Txoko proiektuaren nondik norakoak azaldu zituzten, baita Gazte Uda kanpaina ere. Hain zuzen, momentu honetan, udako eskaintza prestatzea da premia handien duena. "Beste urte batzuetan, eskaintza udako eskaintzara mugatu da. Aurten, eskaintza hori luzatu egin gura dugu", dio Bellosok. Gazte Uda kanpaina antolatzeko maiatzaren 15ean egingo dute hurrengo batzarra.

**Euskararen helduleku**

Tximista Aisialdi taldea 12-16 urte bitarteko nerabeei zuzendutakoa da. "Euskararen egoeraren hausnarketa egin genuenean ikusi zen nerabeek salto handia izaten dutela Arrasatera joaten direnean ikastera. Euskaratik gaztelerara salto egiteko ohitura hartzen dute askok. Horregatik, uste dugu garrantzitsua dela ohitura batzuei eustea eta herriarekin lotura mantentzea", esan du Bellosok. Tximista euskararendako heldulekua izatea nahi dute. Horrez gain, ikusten dute nerabeen aisialdian eskaintza murritza dela: "Umeek ludoteka dute, baita eskolaz kanpoko ekintzak ere; 16 urtetik gorakoek gaztelekua dute... Ikusten genuen nerabeekin bide bat jorratu behar dela dinamikak sortu ahal izateko".

**KIROLDEGIAN EGOKITU DUTE GAZTE TXOKOA IZAN DENA; ALTZARIAK JARTZEA FALTA DA ORAIN**

**Gazte Txokoa**

Kiroldegian egokitu dute Gazte Txokoa izango dena. "Obra bukatuta dago; orain falta dena da espazioari forma ematea, altzariekin eta...", azaldu du Hezkuntza eta Euskara zinegotzi Oihana Amezkuak. Udalaren asmoa da nerabeekin eurekin elkarlanean antolatzea Gazte Txokoko espazioa, euren beharretarako egokituta.



ERREZ KOOPERATIBA

## Autoko kristalak, txikituta

Errez kooperatibako autoari eraso zioten aste bukaeran. "Triste gaude eta ez dugu ulertzen gertatutakoa", adierazi du Iñaki Etxebestek. Hala ere, aste bukaeran gertatutakoaren aurrean "babestuta" sentitu direla nabarmendu du. Uste dute Errezen aurka propio egindako erasoa izan dela, inguruan aparkatuta zeuden autoak ez zeudelako kaltetuta.



ARAMAIOKO EH BILDU

## EH Bilduren hautagaiak

Iban Herrarte Arana (Aramaio, 1974) izango da EH Bilduko Aramaioko alkategaia maiatzeko udal hauteskundeetan. Egun, Aramaioko Udalean zinegotzi da; hain zuzen, Zerbitzuak Saileko batzordeburua da Herrarte. Fagor Ederlanen egiten du lan, mantentze-teknikari. Irudian, EH Bilduren zerrendan joango diren bederatzi hautagaiak eta hiru ordezkoak.

## OHARRAK

### Ekainean mendi irteera Pirinioetara

Orixol Mendizale elkarteak antolatuta, Bisaurin eta Castillo de Acher igoko dituzte ekainaren 9tik 11rako asteburuan.

### Ekiola proiektua

Aldundiak martxan jarri duen Ekiola proiektuari buruzko informazioa Aramaioko udaletxean emango dute martitzenetan, 09:30etik 14:00etara eta 17:00etatik 20:30era.

### 'Emakumeen egoera Afganistanen' hitzaldia

Emakumeek Afganistanen dituzten aukeren eta erronken gainean berba egingo du Nadia Ghulman errefuxiatuak maiatzaren 2an, 18:30ean, Aramaioko kultura etxean.

# Indarkeria matxistaren biktimei arretarik onena

Orain dela hamabi urte sinatutako lehen protokolo hark hainbat eguneratze izan ditu eta berritutako azken dokumentua eguaztenean aurkeztu zuten. Indarkeria matxistaren aurkako prebentzioa eta esku-hartzea koordinatzea da haren helburua

**Mirari Altube** ARETXABALETA
*Aretxabaletan indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta hobetzeko erakundeen arteko erakundeen arteko koordinazio eta arretarako tokiko II. protokoloa* izeneko dokumentua aurkeztu zuten eguaztenean. Sortzen Aholkularitzak jardun du horretan eta herriko hainbat eragilek hartu dute parte; besteak beste, Gazteria, Berdintasuna eta Gizarte Zerbitzuetako udal sailek, herriko ikastetxeek, gaztelekuko hezitzaileek, osasun zentroak eta Erdu talde feministak. "Emakumeen indarkeria artatzen duten eragile guztiekin elkartzen saiatu gara", azaldu du Sortzeneko Sheila Melconek.

**Lau ardatz dituen tresna**
Lan-tresna horrek lau ardatz nagusi ditu: indarkeriarik gabeko bizitzak; segurtasuna eta biktimen babesa; ahalduntzea eta erreparazioa; eta adingabeak. Hala, indarkeria matxistaren baitan dauden kasu guztiak artatuko ditu protokolo horrek, Gizartegintzako zinegotzi Karmele Uribarrik adierazi duenez: "Genero indarkeria baino indarkeria mota gehiago sartzen dira matxismoaren aterkipean, eta haiek guztiak aurreko protokoloan ez zeuden jasota". Erakundeen arteko sareko lana indartu nahi da, biktimei "ahalik eta erantzun onena" emateko, gida eta laguntza gisa balioko dieten jarraibideak eskainita.


Sheila Melcon, protokoloa aurkezten. MIRARI ALTUBE

## "Kasuen koordinazioa mahai teknikoaren ardurapean egongo da"

**MALENA GONZALEZ ALTUNA** BERDINTASUN TEKNIKARIA

Protokoloari jarraipena egiteko mahai teknikoa osatu dute, eta horren gidaritza Berdintasun teknikariak izango du.

**Zein da protokoloaren muina?**
Behar batetik abiatuta landu da. Aurretik zegoena zaharkituta zegoen legeari dagokionez, eta, gainera, herriko eragileak ez zituen orain beste barneratzen; hala, uste genuen informazioa galtzen ari ginela, eta horrek berbiktimizazioan erortzeko arriskua zekarren.

**Mahai teknikoaren funtzioak zeintzuk izango dira?**


GOIENA

Batetik, formakuntza. Bertako kideok trebakuntza saioak jasoko ditugu; bestetik, kasuen koordinazioa, zelan bideratu erabakitzeko; eta azkenik, datu-jasotzea. Protokoloa bizirik mantenduko dugu, lege berria txertatuta, eta herriaren beharrei erantzuteko.

**Dokumentuan gai asko jaso dituzue; adibidez, erantzun publikoa zelan eman.**
Biktima edo bizirauelea den pertsonaren nahiak errespetatzea da kontua, ez dadin izan Udaletik ezarritako zerbait. Herriarekin harremanetan egon behar da, kasuan kasu aztertzeko eta erantzun ezberdinak adostu.

**Mahaiaren hurrengo pausoak zeintzuk dira?**
Lanerako gogoz dagoen talde polita sortu da eta ekain inguruan elkartuko da. Urtean bi aldiz elkartzea da asmoa, koordinazio lanetarako, baina, premiaren arabera, sarriago bilduko da.


Uribetxebarria, Uribarri, Mendoza eta Peña. EAJ

# Adinekoendako zentroaren lanak ezagutzen izan dira EAJkoak

"Zaintza-ekosistemaren bihotza" izango diren zerbitzuak eskainiko dira han, Uribetxebarriaren esanetan

**M.A.** ARETXABALETA
Komentuaren lanak eta proiektuaren nondik norakoak ezagutzeko asmoarekin, bisitan izan ziren astelehenean EAJko kideak. Mikel Uribetxebarria alkategaia, Eider Mendoza ahaldungai nagusia eta Gizarte Politikako diputatu Maite Peña elkartu ziren Unai Elkoro alkatearekin eta Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Karmele Uribarrirekin.

Komentuan egokituko dituzte autonomoak diren edo mendekotasun maila arina duten adineko pertsonentzako arreta zerbitzu integratua eta Basotxo erretiratuen elkartearen egoitza. "Zaintza ekosistemaren bihotza" izango diren zerbitzuak eskainiko direla han gogorarazi du Mikel Uribetxebarria alkategaiak: "Gure eredua zainketak pertsonalizatzea da. Zainketen kalitatea bermatu behar da une oro, eta hori da gure konpromisoa. Berrikuntza, hurbiltasuna, pertsonalizazioa eta kalitatea". Gaineratu zuen herritar guztien "integrazioa sustatzeko gune aproposa" eratuko dela.

## Bi gizon atxilotuta, La Caixan lapurreta egitea egotzita

La Caixa banketxearen sukurtsalean lapurreta egiten saiatzea leporatuta 52 eta 23 urteko bi gizonezko atxilotu zituen Ertzaintzak eguazten goizaldean. Bulegora norbait sartu zela zioen abisua jaso zuten, eta 02:30ean bertaratu ziren. Bietako batek bi mazo, bihurkinak, giltzak eta beste hainbat erreminta zituen motxila bat zeraman aldean. Errekabarren kalean dagoen sukurtsalak atzeko aldean kristal bat zuen hautsita, barrura sartzeko moduko zulo batekin.

Ertzaintza ikertzen dabil gau berean Arrasateko enpresa batean indarra erabiliz egindako beste lapurreta batean parte hartu ote zuten bi gizonezkook. Atxilotuak Bergarako ertzain-etxera eraman zituzten, dagozkion polizia-egin-bideekin jarraitzeko, eta gero, Bergarako Guardiako Epaitegiaren esku utzi.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Jon Díaz
Harakina
Durana 15
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

# Martinez de Lizarduyren hurrengo lana, fikzioa

Irrintziaren bueltako 'Erraiak' dokumentalaren ostean 'Prosopagnosia' izena duen film laburra darabil esku artean Aretxabaletan bizi den donostiarrak, eta Itziar Ituño eta Kepa Errasti aktoreen baietza jaso du; aurrera egiteko, 'crowdfunding'-a jarri du abian

**Mirari Altube** ARETXABALETA
Herrialde askotan erakutsi eta sari mordoa jaso dituen irrintziaren gaineko *Erraiak* dokumentalaren ostean dator Ekain Martinez de Lizarduy Stürtzeren (Donostia, 1980) bigarren proiektua. *Prosopagnosia* izango du izena eta film laburra da oraingoan. "Beste pauso bat emateko beharra sentitzen nuen, fikziora salto egiteko beharra, eta film labur batean murgildu naiz", azaldu du.


Ekain Martinez de Lizarduy Stürtze. MIKEL ZUMALDE

**Hausnarketarako gonbidapena**
*Aurpegiaren itsutasuna* esan gura du grezieraz *prosopagnosia*-k. "Kontzeptu hori metafora gisa erabili nahi izan dut aditzera emateko jendea ispilura begiratuta ez dela gai askotan benetan nor den ikusteko".

Horregatik, gelditu eta hausnartzera gonbidatu gura du filmak: "Bizi garen zurrunbilo kaotiko honen erdian une batez gelditu, nork bere barrura begiratu eta hausnartzea proposatzen du". Prozesu pertsonal baten isla dela aitortu du: "Nirea den bezala, beste edonoren prozesua ere izan daiteke; ingurura begiratzen dut eta pentsatu nork ez lukeen nahiko gelditu une batez eta zintzo izan sentitzen eta egiten duenarekin?".

**Errasti eta Ituño**
Gidoilaria eta zuzendaria izango da Martinez de Lizarduy bera eta aktore lanetan jardungo dute Kepa Errasti aretxabaletarrak eta Itziar Ituño basauriarrak: "Biekin izan dut harremana uneren batean edo bestean, eta bidali egin nien gidoia, mundu horretan esperientzia izanik haien feedbacka jasotzeko. Gustatu egin zitzaiela adierazi zidaten, eta pentsatu nuen: zergatik ez izan haiek protagonista?". Proposatu eta baietza jaso zuen bien aldetik.

**Diru-batzea abian**
Film laburra egin ahal izateko dirua batu gura du, eta, horretarako, *crowdfunding*-a jarri du abian –*www.verkami.com*–. 40 egunean 10.000 euro batzea da haren asmoa, eta pozik da, abian jarritako lehen egunean %40 eskuratu zuen eta. "Oso eskertuta nago jasotakoarekin. Jendea animatzen dut proiektua ezagutzera, eta, gustuko izanez gero, haren aletxoa jartzera". Udazkenean grabatuko dute, Gasteizen, eta 2024aren hasieran prest egotea gurako luke.

## Gazte Eguna ospatuko dute bihar, 150 lagun baino gehiago batuta

Gazte Eguna antolatu du Atxabaltako Gazte Mugimenduak biharko, zapatua. Gazteen topaketa egingo dute goiz partean (11:30), Herriko Plazan, eta ondoren, mural bat margotu. Eguerdiari poteo girotuarekin ekingo diote eta gazteen argazkia aterako dute gero (14:45). Bazkaltzeko 150 lagun inguru elkartuko dira mahaiaren bueltan, eta JB bikoteak girotuko du hori; bazkalostean, jolasak egingo dituzte.

Arratsaldean, Gasteizko Izenbarekuak txarangaren doinuekin beteko dira kaleak. Eguna borobilduko dute Aretxabaletako Eten eta Oihu! taldeen kontzertuekin. Oihu! taldeko Peio Uribetxebarria eta Iker Urtaza kideen azken kontzertua izango da, baina agurra esango dute disko berria aurkeztuta; hori laster izango dela plataforma guztietan aurreratu dute, baita CDa salgai ere.

## Literatura Astea egiten dabiltza Kurtzebarri eskolan

Literatura Astea antolatu dute Kurtzebarri eskolan 31.ez. Hans Christian Andersen idazlea hartu dute lanketarako ardatz, eta gaur, egubakoitza, Xabier Olaso idazlearen bisita jasoko dute.

Ikasleek egindako lanen eta eskulanen erakusketa daukate liburutegian eta maiatzaren 2an eta 3an horiek ikustera joateko gonbidapena egin dute.

## Seme-alabengan autoestimua sustatzeko hitzaldia

Foru Aldundiak sustatutako Treba Gurasoak ekimenaren barruan, *Nola sustatu gure seme-alaben autoestimua* hitzaldia eskainiko die gurasoei Nerea Mendizabalek, indarkeriarik gabeko komunikazioaren trebatzaileak eta psikopedagogoak. Eguenean izango da, maiatzaren 4an, gazteleraz, Arkupen, 18:00etan hasita.

## '20.000 especies de abejas' film saritua asteburuan Arkupen

Estibaliz Urresola gasteiztarrak zuzendu duen eta nazioarteko hainbat jaialditan sari garrantzitsuak jaso dituen *20.000 especies de abejas* filma izango dute helduek gaur (22:00), bihar eta etzi (19:30) Arkupen.

Umeendako, ostera, *Super Mario Bros* marrazki bizidunen film luzea emango dute bihar eta etzi (17:00).

## Peru Altube elkarrizketatuko dute Kurtzebarri BHIkoek

Huntza taldeko Peru Altube arrasatearra elkarrizketatuko dute *Galdegazte* saioan Kurtzebarri BHIko ikasleek. Galderak egiten izango dira Lucia Ignacio, Jokin Arrese eta Uxue Garitaonandia; eta errealizazio-gelan Nahia Marmolejo, Unax del Rey, Aimar Ruiz eta Joseba Arregi. Maiatzaren 4an emango du saioa Goiena telebistak (21:30 eta 23:30).

ANDRA MARI
ASESORIA / AHOLKULARITZA
Etorri eta lagunduko dizugu
2022ko errenta kanpaina
Aholku pertsonalizatua
Araba ibilbidea 20A • ARETXABALETA • Tel. / Fax.: 943 79 29 26 • naiara@asesoriaandramari.com

# Jubilatuen beharrak eta Energia Plana hizpide

EAJk aurkeztutako Energia Planaren kontra bozkatu zuen EH Bilduk, eta "landuagoa" aurreikusten zutela azpimarratu. Horrekin batera, jubilatuen tabernaren gainean urratsak egin diren galdetzera joan ziren zenbait herritar osoko bilkurara

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Martitzenean egindako apirileko ohiko bilkuran tratatu zituzten gaietatik bi izan ziren zeresana eman zutenak: EAJk aurkeztutako Eskoriatzako Udalaren Energia Plana onartzea izan zen bata; bestetik, galde-eskeen tartean, herriko zenbait erretiratuk eskaerak egin zituzten.


Eskoriatzako udalbatzako kideak apirileko ohiko osoko bilkuran. IMANOL BELOKI

**Energia Plana, aurrera**

Hiri jasangarriagoa izateko bidean Energia Plana teknikarien eskutik eginda dagoela adierazi zuten Udal Gobernuko kideek. Baiezko sei boto eta ezezko lau jaso zituen puntuak. "Guretzat proiektu inportantea da; izan ere, Energia Planak esango digu energia jasangarriaren garapenak nondik joan behar duen herri honetan. Horrekin batera, legez behartuta gaude halako plangintza bat izatera; eta dirulaguntzak eskatzeko ere ezinbestekoa da. Onartu egin dugu, eta horrek baimenduko digu aurrekontuak onartu genituen garaian, esaterako, geotermia sistema aurrera eramatea…", adierazi zuen Josu Ezkurdiak, Eskoriatzako EAJko bozeramaileak. Oposizioko kideek, aldiz, kontra bozkatu zuten. "Ulertzen dugu dokumentua ez dagoela osatuta. Ikusten da, gainera, dokumentuaren idazkeran eta ataletan guztiz garatu gabe dagoela. Ahulgune asko ditu eta udaletxearen energiaren erabilpenean zentratzen da, baina udaletxeko energiaren kontsumoa herrian %3koa da… Guretzat oso motz geratu da", adierazi zuen Nestor Aranak, Eskoriatzako EH Bilduko bozeramaileak.

**Jubilatuen tabernaz galdezka**

Eskoriatzako jubilatuen taberna itxita dago abendua ezkero; hala, han zer egiteko asmoa duten galdetzera joan ziren Eskoriatzako zenbait lagun martxoko ohiko osoko bilkurara. Orduan, Olazar Erretiratuen Elkarteko juntakoekin elkarlanean erabaki bat hartuko zutela esan zuten udalbatzako kideek, eta martitzen honetako osoko bilkurara berriro joan ziren zenbait erretiratu, urratsak egin ote dituzten galdetzera. "Sozializatzeko espazio bat eskatzen dugu, beste barik, egoteko. Eraikinaren egoera ez da ona, hezetasun handiak daude, eta leku goxo baten beharra dugu. Egingo da ezer eraikinarekin? Jarriko da egoera duinean? Noiz?…". Halakoak galdetu zituzten.

**SOZIALIZATZEKO GUNE ESKE JOAN ZIREN ZENBAIT HERRITAR APIRILEKO OSOKO BILKURARA**

**"Taberna lizitatu egingo da"**

Horren harira, Joserra Zubizarreta Eskoriatzako alkateak azaldu zuen taberna irekitzeko lizitazioa egongo dela, baina denbora behar duela azpimarratu zuen. Esan zuen kultura etxeko eraikineko gelak erabili ditzaketela, giltza jubilatuen elkarteko ordezkariei eskatzen badiete…

"Argi eta garbi utzi nahi dugu tabernarik ez dagoela, hango arduradunak uko egin zuelako; Udalak ez du itxi. Orduan esan zenez, taberna ixtearen arrazoietako bat izan zen zerbitzuak ez zuela bizitzeko dirurik ematen. Horrekin batera, beste era batera ere sozializatu daiteke, ez dakit taberna derrigorrezkoa den… Gainera, lokal horiek erabiltzeko giltza jubilatuen elkarteak du, eta haiengana joan zaitezkete giltzak eskatzera lokala erabiltzeko; soilik taberna dago itxita. Jubilatuen elkartekoekin taberna autogestionatzea jarri zen mahai gainean, ez dute konpromisorik nahi; beraz, orain, arazoa gure gain hartu behar dugu, baina denbora behar dugu. Esan duzuen moduan, taberna horrek ez ditu baldintzak betetzen. Horrek lizitazio publiko bat eskatzen du; gu ere arduratuta gaude. Laburbilduz, lizitazioa egingo da, baina bere denbora beharko du", adierazi zuen Joserra Zubizarretak, Eskoriatzako alkateak.

## Bertakoen txaranga eta musika urbanoa izango dira nagusi

Atxorrotx Kultura Elkartearen eguna maiatzaren 13an ospatuko dute, egun osoko egitarauarekin

**I.B.** ESKORIATZA

Atxorrotx Kultura Elkarteak egitarau ederra prestatu du, beste urte batez, Eskoriatzako taldeak egiten duen lanari balioa emateko, eta, bide batez, kulturak duen garrantzia azpimarratzeko.

11:30ean emango diote hasiera egunari txistulariek, kalejira eginaz. 12:00etan, berriz, Eskoriatzako talogileak talo goxoak prestatzen izango dira kontzejupean, eta, horrekin batera, umeentzako puzgarriak izango dira Fernando Eskoriatza plazan. Gainera, ziza-saskiaren zozketako txartel salmentak ez du hutsik egingo, beste behin.

**Bazkarirako txartelak salgai**

Paella-jana herrikoia egingo da Inkernu kanpoaldean, eta txartelak salgai jarri dituzte. Hain zuzen ere, 15 eurotan daude, Inkernu tabernan, eta 14 urtera artekoek hamar euro ordaindu beharko dituzte. Bazkalostea girotzen eta bertaratzen direnak entretenitzen, berriz, kantuen bertsioak egitea pasio duen Pasai Donibaneko Andoni Ollokiegi musikaria arituko da oholtzan gitarrarekin.

**Iluntzean txaranga**

18:30ean, buruhandiak izango dira, eta, ondoren, Ad Libitum musika elkarteak girotuko ditu kaleak. Eskoriatzako hamahiru musikarik osatutako taldea da Ad Libitium, eta, iaz San Pedro egunean eta Eguberri goizean zenbait pieza eskaini arren, maiatzaren 13an egingo dute debut ofiziala. Elkartearen helburu nagusia musika-adierazpena kalera ateratzea izanda, askotariko formatuak lantzen dituzte: brass banda, txaranga eta abar. Hala, txaranga formatuan izango dira, kalejirako piezak eta abesti ezagunen pop estiloko moldaketak joz.

Gauean, berriz, egitaraua ixteko, Etxepe taldeak eskainiko du kontzertua, 22:00etan, Inkernu taberna kanpoaldean.

**Arrasateko musika urbanoa**

Arrasateko Etxepe taldeko kideek Gozategi taldearen kantu bati letra jarri eta *Alboka* abestiarekin izan dute arrakasta. Otsailean *Etxepe Kids mixtape*-a aurkeztu, eta egiten ari diren biran aretoak eta plazak betetzen ari dira erritmo urbanoekin betetako kantuekin.


EAJ ESKORIATZA

## Taldekideak aurkeztu ditu EAJk

Eskoriatzako EAJk udal hauteskundeetarako prestatu duen zerrendaren berri eguaztenean argitaratu zuten Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean. Horrekin batera, talde argazkia atera dute taldea osatu dutenek; adierazi dutenez, "aurpegi berriak eta kudeaketan esperientzia batzen dituen zerrenda aurkezten dugu".

# "Hiru belaunaldiri eskaini diet zerbitzua"

**EDURNE GRUCETA LETE** ESTETIZISTA

Aranburuzabala kaleko 42. atariko Edurne Estetika Zentroak ateak itxiko ditu maiatzaren 31n. Zerbitzua 44 urtez eman ostean, eskerrak eman nahi dizkie bezeroei

**Imanol Beloki Unamuno** ESKORIATZA

Edurne Gruceta Letek (Eskoriatza, 1960) 44 urteren ostean agur esango dio Edurne Estetika Zentroari. Batez ere, bezeroak agurtu nahi ditu negozioko ateak itxi aurretik, eta, bide batez, eskerrak eman nahi dizkie urte hauetan handik pasa direnei.

**Negozio propio bat irekitzearen hasierak sekula ez dira errazak izaten. Nola gogoratzen dituzu zureak? Eta nolakoa izan da harrera ordutik hona?**

Ikasketetan txarra nintzen eta gurasoek lokala jarri zidaten ikasketak amaitu aurretik. Beraz, nire kasuan, beste zenbaitekin alderatuta baino hobeto joan zela esan behar dut. Hala ere, lan asko egin dut ordutik hona; lana hobeto, txarrago, gehiago eta gutxiago. Hala, duela 44 urte hasi nintzen han lanean, eta, nire bezeroek itxi egingo dudala jakin dutenean penaz hartu dute albistea. Oso maitatua sentitu naiz egunotan; izan ere, ekarri dizkidaten opariak eta esker on hitzak deskribaezinak dira. Oso eskertuta nago bezeroekin.

**Lehenengoa izan zinen estetika zentro bat herrian irekitzen, gainera, ezta?**

Hala da; ile-apaindegiak bazeuden, baina estetika zentro gisa honako hau izan zen lehenengoa. Eskoriatzan nire zerbitzua izango da pertsona berak ireki eta pertsona berak uzten duen bakarra; edo hala uste dut. Izan dira komertzio batzuetan urte asko eraman dituztenak eta modu batera edo bestera beste pertsona bati utzi diotenak, semeak edo alabak hartu du negozioa… Horrez gain, gremio honetan, gainera, haustura bat-edo markatu zuen zerbait ere erabaki nuen une batean: zapatuetan itxita mantentzea. Bezero batzuek ez zuten oso gogoko izan erabakia, baina hala izan zen. Ez da ohikoa, baina orduan hartu nuen erabakia ondo hartutakoa izan zela uste dut.

**Hasi zinenetik hona aldatu egin dira gauzak?**

Ireki nuen modu berean dago lokala, berdin-berdin. Izan genuen sute bat, Bartzelonan ikastaro bat egiten nengoela, eta, suhiltzaileek sutea itzali arren, hasieran nuen modu berean mantendu nahi izan nuen lokala. Ate borobilak ditut jarrita, eta xarma berezia dute. Lokalaz gain, gogoan dut estetika zentro mistoa jarri nuen unea. Hastea kostatu arren, erantzuna ederra izan zen gero. Zerbitzuan ere izan dira aldaketak, teknologia aldetik aurrerapausoak ematen direlako, eta, laburbilduz, honako hauek izan dira eskaini ditudan zerbitzu batzuk: solariuma, gorputz-tratamenduak, larruazalaren oxigenazioak, funtsezko olioekin masajeak, argizariarekin lanak…

**"NIK IREKI NUEN ETA NIK ITXIKO DUT, 44 URTEREN OSTEAN; ERRELEBO BARIK, EZ DA OHIKOA"**

**Behin betiko itxiko da Edurne Estetiko Zentroa ala egongo da negozioan erreleborik?**

Maiatzaren 31n erretiratuko naiz. Erreleboa izango den ez dakit. Gertuko batek esan dit bere alaba estetikako ikasketak egiten ari dela eta, agian, izan dezakeela interesa, baina ez da ezer ziurra. Gustatuko litzaidake norbaitek jarraitzea eta, posible bada, orain dagoen modu berean mantendu ahal izatea. Lana bada herrian… Azpimarratzekoa da, nire ustez, zenbait familiatako hiru belaunaldi, behintzat, pasa direla Edurne Estetika Zentrotik: amona lehenbizi, alaba gero, eta ilobak.

**Esan duzu esker mezuak jaso dituzula egunotan bezeroen partetik. Hala ere, haiei ere eskerrak eman nahi dizkiezu?**

Noski, duda barik. Haiek ari dira eskerrak ematen, baina nik eman nahi dizkiet. Itxi egingo dudala jendea ohartarazteko eta eskerrak emateko *Eskerrik asko 1979-2023* jartzen duen kartel bat jarriko dut erakusleihoan, bailarako eta, bereziki, Eskoriatzako bezeroei zuzendutakoa.




Edurne Gruceta, estetika zentroaren negozioaren atarian. IMANOL BELOKI



Makilakorta gainean harria jartzen, auzolanean. GATZA CITY KREW

## Gazteak auzolanean aritu dira Makilakorta mendi inguruan

Tontorrean harri handi bat jarri dute, eta altuera markatzen duen txapa jarriko dute han bertan

**Imanol Beloki Unamuno** GATZAGA

Harreman estua dute gatzagarrek herrian egin beharrekoak auzolanean egiten, eta, oraingoan, gazteak animatu dira hitzordua egin eta herriarengatik lan pixka bat egitera. Gatza City Krew gazte taldeak antolatuta, maiatzaren 6an ospatuko da Gatzagan Makilakorta Fest jaia, eta, horren baitan, auzolanean aritu dira zenbait kide Makilakorta mendiaren inguruan.

**Altuera markatzeko txapa**

"Herriko zenbait gazte batu gara eta Makilakorta mendiko tontor ingurua garbitu egin dugu; sasiak eta sastrakak kendu ditugu. Horrekin batera, tontorra markatzeko harri bat jarri dugu, mugarri gisa. Gainera, metalezko txapa bat egiteko eskaera egin dugu, hala, jarritako harrian tontorraren altuera markatuta jartzeko. Aurreikuspenen arabera, laster iritsiko zaigu enkargua, eta Makilakorta Fest jai egunean, maiatzaren 6an, 09:00etan irtenda tontorrera igoko garenez, asmoa da han bertan txapa jartzeko ekitaldi xume bat egitea", adierazi dute Gatza City Krew taldeko kideek.

GORA ETA BEHERA



### Presentzia Lleidako unibertsitatean

Leintz Gatzagako gatzarekin lotutako erakusketa izan da ikusgai Lleidako unibertsitateko liburutegian, Uraren Nazioarteko Egunaren baitan.

**EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?** *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

# Kukubaso: lau urterako hitzarmena Udalarekin

Epe luzera begira bertako basoa berreskuratzen joateko 2021ean sortutako Kukubasok elkarlan-hitzarmena adostu du Udalarekin; EH Bilduk aldeko botoa eman zuen eta EAJ abstenitu egin zen, bi alderdiek elkartearen lan boluntarioa goraipatu eta eskertu arren

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Baso Biziak plataformak basoen kudeaketa irizpide zientifikotan egin behar dela aldarrikatu eta ordu gutxira (Ikus 3. orria), Kukubasorekin elkarlanerako hitzarmena onartu zuen Udalak. Helburua da Bergarako basoen berreskurapenerako "marko estrategiko integral berria" ezartzea, bertako basoen aldeko politikak garatu, sentsibilizazioa egin eta biodibertsitatea zaintzeko; baso-lur publikoen kudeaketa jasangarria, bertako espezieen aldeko politiken sustapena eta, azken finean, ingurumenaren zaintzeko nahiak batzen ditu Udala eta Kukubaso.



Kukubasoko Iñaki Madinabeitia otsaileko landaketarako azalpenak ematen, Gorlan. I.S.

### EH Bildu, alde; EAJ, abstenitu

Lau urteko hitzarmena izango da, beste lau urtez luza daitekeena. Aldeko botoa eman zuen EH Bilduk, Kukubasoren lana goraipatzearekin batera. "Gobernatzeko eredu berri batek eskatzen du administrazioak leku egin behar diela eragileei eta norbanakoei. Kukubasok egin duen lana handia izan da. 2021ean eratu zen elkartea, oso gaztea da, eta tarte honetan ikusi ahal izan dugu auzolanaren eta sentsibilizazioaren bitartez nolako lana egin duten norbanakoekin, nolako lana Udalarekin... Benetan lan serioa egiten duten eragileak ditugu Bergaran, eta zoriontzekoa eta eskertzekoa da hori", dio EH Bilduko Nagore Iñurrategik.

**BERGARAKO BASOEN BERRESKURAPENERAKO POLITIKAK GARATZEA DA HITZARMENAREN HELBURU NAGUSIA**

EAJk ere goraipatu eta eskertu zuen Kukubasoren lana, baina abstentziora jo zuen, Udal Gobernuak basogintzaren gaineko oinarri politikorik ez duela argudiatuta. "Boluntarioen lana goraipatzekoa da. Hala ere, abstentziora jo dugu, Udal Gobernuaren kudeaketari begira. Alkateak askotan aipatu ditu gobernatzeko eredu berriak, eta ados gaude eredu berri horiek aztertzearekin, baina ezin dugu ahaztu oinarri politiko batzuk finkatu behar direla. Zeintzuk dira basogintzarako oinarriak Gobernu honentzat?", galdegin zuen EAJko Maite Agirrek.

## "Penaz", ez zelako aho batez onartu

Kukubasoko Joseba Zuzaetak esan zuen Udalarekin egin duten lana eredu moduan hartzen dela kanpoan, eta laguntzeko prest dauden "kontsultarako eragilea" direla gogoratu zuen: "Penaz hartu dugu hitzarmena aho batez onartu ez izana". Udalak 2.000 euro emango dizkio urtean Kukubasori, eta elkarteak aukera izango du dirulaguntzen ohiko deialdira aurkezteko.


Kukubasoko Joseba Zuzaeta udalbatzari zuzentzen, astelehenenko bilkuran. J.B.L.

# Umeak eta erretiratuak jolasaren bueltan batuko dira gaur azokan

Belaunaldien arteko transmisioari begira, pista-joko bat antolatu dute, proba pilotu gisa, Oxirondon hasita (17:30)

**J.B.L.** BERGARA

Bihar, apirilak 29, Belaunaldien Arteko Elkartasunerako Nazioarteko Eguna dela eta, ekintza berri eta berritzaile bat egingo dute gaur, hilak 28, Oxirondo azokatik hasita (17:30). *Elkarrekin jolasean* izena jarri diote ekimenari, Lehen Hezkuntzako ume eta gaztetxoak herriko nagusiekin jolasaren bueltan elkartzeko. Udalak, Jardunek, Aidau haur zerbitzuak, San Joxepe elkarteak, Nagusilanek eta Duintasuna elkarteak hartu dute parte esperientzia pilotu hori antolatzen. Pista-joko bat egingo dute herriko zenbait gunetan eta gaztetxoak herriko auzoen izena daroaten pegatinen araberako taldeetan banatuko dira.

Jardunetik adierazi dutenez, 25 bat umek eman dute izena ludotekan: "Proba pilotu bat da. Egin izan ditugu bisitak San Joxepera edo bestelako ekimenak nagusiekin, baina halakorik ez dugu egin. Ea ekimen horrek ate berri batzuk zabaltzen dizkigun etorkizunean". San Joxepetik esan dutenez, erretiratu gutxi batzuk animatuko dira.


E.A.

# Asfaltatze-lanak Masterrekan

Dena ondo bidean, aurreikusitakoa baino lehenago amaituko dira Masterreka kalea berritzeko lanak; obrak urtarrilean hasi ziren, sei hilabeteko exekuzio-epearekin, eta erritmo onean doaz. Asteon asfaltatzeko makinak aritu dira kalean gora eta behera, eta asmoa da datorren astean margotzen hasi eta bestelako lan batzuei ekitea.

## Gurasoendako saioak antolatu ditu Arbiaska guraso elkarteak

Gurasoei zuzendutako formakuntza-saioak antolatu ditu Angiozarko Arbiaska guraso elkarteak. "Gizartean horren bizkor aldatzen doazen teknologia berriei lotuta eta gizarte ereduaren aldaketei lotuta, beste leku askotan bezala, gurasoen artean hainbat kezka sortu ohi dira pantailen erabilera egokiari lotuta, baita mugak nola eta noiz jarri behar diren ere. Horrek guztiak eragin zuzena izan ohi du haur eta gazteen garapenean, baita etxeetako egunerokotasunean ere".

Helburu horrekin, *Haurrak eta pantailak. Gidaritza digitalaren beharra azaleratzen* izeneko saioa eskaini zuen atzo Amaia Arroyok. Hurrengo formakuntza-saioa maiatzaren 25ean izango da (18:00); Alvaro Beñaranek *Haurren autonomiaren garapena* izeneko saioa gidatuko du, Angiozarko Arbiaska aretoan.

# EH Bildu: "Talde prestatu eta zabala daukagu"

Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen atzo EH Bilduk: "Bergara bizitzeko herri hobea izan dadin nahi dugu, eta horretan lan egiteko konpromisoak eta gogoak batzen gaituzte"



EH Bilduren zerrenda osatzen dute herritarrak, San Martin plazan. BERGARAKO EH BILDU

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

EH Bilduk atzo aurkeztu zuen maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrenda. Gorka Artola alkategaiak honela definitu zuen ondoan izango duen taldea: "Askotariko sentsibilitateak ditugun pertsonok osatzen dugu taldea, eta horrek egiten gaitu aberats. Begirada desberdinak baina helburu berberak ditugu. Bergara bizitzeko herri hobea izan dadin nahi dugu, eta horretan lan egiteko konpromisoak eta gogoak batzen gaituzte. Ilusioa, esperientzia, ekintzailetasuna, jakintza, bizitasuna, entzuteko prestutasuna eta beste hainbat ditugu ezaugarri".

Artolak esan zuen "izugarrizko poza" sentitzen duela ondoan duen taldearekin: "Indarra nabaritzen dut, grina, ilusioa eta konpromisoa. Oso eskertuta nago egin duzuen urratsagatik, oso eskertuta nago eskainitako babesagatik". Gaur egun zinegotzi diren eta berriz aurkeztuko ez diren kideei ere eskerrak eman zizkien Artolak.

**Zerrendako lehen hamarrak**

Honako hauek dira EH Bilduren zerrendako lehen hamar herritarrak, ordenaren arabera: Gorka Artola (irakaslea, 34 urte), Ainhoa Lete (langilea, 52 urte), Aitor Narbaiza (ur analista, 33 urte), Maite Usabiaga (irakaslea, 42 urte), Aitor Aranzabal (hardware diseinatzailea, 38 urte), Zihortza Marzan (erizaina, 41 urte), Jesus Telleria (erretiratua, 64 urte), Olatz Manuel (irakaslea, 41 urte), Markel Azkargorta (administraria, 42 urte) eta Eider Usobiaga (irakaslea, 29 urte). Zerrenda osoa, *Goiena.eus*-en.

# EAJ: "Aldaketa gidatzeko talde indartsua da gurea"

Hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen eguaztenean EAJk: "Bergarak behar duen aldaketa gidatzeko gaitasun handiko taldea dugu, gogo handiz dagoena eta inplikatua"



EAJren zerrenda osatzen duten herritarrak San Martin plazan, eguaztenean. AMAIA RAMIREZ DE OKARIZ

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

EAJk eguaztenean aurkeztu zuen, Munibe plazan, maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrenda. Talde "indartsua, konprometitua eta zabala" osatu dutela azpimarratu zuen Mikel Lete alkategaiak. "Bergarak behar duen aldaketa gidatzeko gaitasun handiko taldea dugu, oso inplikatua, eta gogo handiz egingo dugu lan Bergararen eta bergararren alde. Oso eskerturik nago taldekide guztiekin, ilusioz landu dugun proiektu sendo honen parte izateagatik".

Letek gaineratu zuen, besteak beste, EAJk emandako hitza bete egiten duela: "Hitzek ez dute ezertarako balio esandakoa betetzen ez bada. Guk emandako hitza betetzen dugu, lehendakariarengandik hasi eta herri txikieneko azken zinegotziraino".

**Zerrendako lehen hamar kideak**

Honako hauek dira EAJren zerrendako lehen hamarrak, ordenaren arabera: Mikel Lete (Lanbide Heziketa Elektronikoa ikasitakoa eta enpresa bateko zuzendari ohia, 63 urte), Maite Agirre (Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan gradua, 35 urte), Martin Etxaniz (Enpresen Administrazioan eta Zuzendaritzan lizentziatua, 59 urte), Irune Galarraga (Erizaintzan diplomatua, 48 urte), Kepa Sebal (lan osasun eta segurtasun teknikaria, 23 urte), Joseba Elosua (Albaitaritzan lizentziatua, 60 urte), Esther Ortiz de Zarate (gizarte langile diplomatua, 46 urte), Iñaki Arrondo (goi mailako ziklo elektronikoa, 46 urte), Sabino Azkarate (ingeniari industriala, 61 urte) eta Izaskun Labaien (irakaslea, 61 urte).

## Jam zenaren lekuan, Plenoil

Jam areto ezaguna egon zen lekuan Plenoil enpresak prezio apaleko gasolindegi bat irekiko du datorren astean zehar. Urtarrilean hasi ziren Jam aretoa izan zena eraisteko lanak eta gasolindegi berria otsailetik apirilera bitartean eraiki dute. Martxoaren 24an ireki zen Telleixako Benta ere aintzat hartuta, gaur egun bost gasolindegi daude Bergaran.




E.A.

## OHARRAK

### Mokoloblock topagunerako izen-ematea

Maiatzaren 28a egun berezia izango da eskalatzaileentzat, herriko pareta batzuk eskalatzeko topagunea antolatu dute eta. 14 urtetik gorako eskalatzaileek izena eman beharko dute maiatzaren 12rako. Argibide gehiago: *ww.bergara.eus*.

### San Juango Elortza-Bolu errotara bisita

Maiatzaren 13an izango da bisita gidatua (12:00). Izen-ematea, maiatzaren 10era arte –plaza mugatuak–: *www.bergara.eus*.

### Herri Urratsera joateko autobuserako txartelak

Maiatzaren 14an autobusa 09:00etan irtengo da Ibargaraitik. Txartelak Jardunen egongo dira salgai, maiatzaren 11ra arte.



Seminarioko patioan egindako garagardo azoka bat, artxiboko irudi baten. GOIENA

# Saskibaloia kaleratzera, garagardo aparretan

Saskibaloi sailak lehen aldiz antolatu du garagardo azoka, egiten duten lana herritarrekin partekatu eta herriari "zerbait ezberdina" eskaintzeko asmoz; askotariko garagardoekin, jatekoarekin eta zuzeneko musikarekin batera, saskibaloi partiduak ere antolatu dituzte

**Jokin Bereziartua Lizarazu** BERGARA

Bergarako saskibaloi sailak plan ederra antolatu du gaurko eta biharko, seminarioko patioan. Garagardo azoka antolatu dute lehen aldiz; betiere, saskibaloi sailak egiten duen lana herritarrekin partekatu eta herriari "zerbait ezberdina" eskaintzeko asmoz. Gaurko, pintxo-potea antolatu dute Seminarioko karpan, 19:00etatik 21:00etara. 20:30etik 00:30era, zuzeneko musikarekin eta DJ Txinpartak taldearekin girotuko dute karpa.

Biharko, egun osoko egitaraua antolatu dute: 10:30ean, saskibaloi eskolako partiduak jokatuko dira; puzgarriak martxan egongo dira 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara; 15:00etan, bazkaldu egingo dute; 18:00etan, hiruko saskibaloi txapelketa hasiko da; eta, amaitzeko, 20:30etik 00:30era, zuzeneko musika eta DJak egongo dira.

**Saskibaloia ikusaraztea helburu**

Garagardo azoka zergatik antolatu duten adierazi dio GOIENAri zuzendaritza taldeko kide Borja Elkoroberezibarrek: "Garagardo-zaleak gara eta garagardo ferietan egon izan gara; oraingoan, gure garagardo festa propioa antolatzea erabaki dugu. Jakin badakigu erronka handia dela, baina oso gogotsu gaude. Espero dugu dena ondo irtetea... Gure helburua saskibaloia eta herriko saskibaloi saila osatzen dugunon ikusgarritasuna handitzea da, eta, batez ere, bergararrei zerbait ezberdina eskaintzea. Uste dugu garagardo azoka bat erakargarria dela herritarrentzat eta badela modu bat saskibaloia gerturatzeko".

**Garagardoak eta Euskal Parrilla**

Hamar garagardo-mota dastatzeko aukera egongo da Seminarioko karpan: Keler, Radeberger, Inedit, Complot, Voll Damm, Grimberger, Franziskaner, Konig Ludwig Weissbier, Leffe Blonde eta Weihenstephaner Vitus. Zapatuan karpan bazkaltzeko aukera egongo da, txartelak aldez aurretik erosita, Euskal Parrilla enpresaren eskutik. Umeendako menuak 13 euroko prezioa izango du: urdaiazpiko-kroketak, baserriko oilaskoa patatekin, izozkia eta ogia. Helduendako menua, berriz, 25 eurokoa izango da: urdaiazpiko-kroketak, baserriko oilaskoa patatekin, txerri-saiheskia, Eceiza markako pastelak, ogia, kafea eta edari bat.

**Denboraldiarekin pozik daude**

Amaitzera doan denboraldiarekin pozik daude, Elkoroberezibarrek adierazi duenez: "Denboraldia espero baino hobeto doa, senior mailako taldeak mailaz igotzeko lehian ditugu. Junior mailako mutilei dagokienez, azpimarratu behar da Lloret de Marren [Katalunia] egin den Globasket txapelketa irabazi zutela. Junior mailako neskek, bestalde, jokalari gutxirekin aritu dira denboraldian zehar, eta aipatzekoa da errendimendu plaza bat lortzeko finalerdietan daudela. Era berean, ezin ditugu ahaztu formakuntzan dauden taldeak; denboraldi bikainak egiten ari dira, garapen handia ikusi dugu taldeetan. Gipuzkoako ligetako igoeretan ditugu talde guztiak, eta horrekin oso pozik gaude zuzendaritzan; lanerako gogoa ari da emaitzetan islatzen". 2022-2023ko denboraldiko lorpenei dagokienez, honako hau azpimarratu du Elkoroberezibarrek: "Lorpenik handiena izan da aurten antolatu ditugun ekintzetan jaso dugu erantzuna. Saskibaloiaren ikusgarritasuna areagotzea eta herriak saskibaloi sailak antolatzen dituenekin gozatzea beti izango da gure misioa".

**Hiruko txapelketekin aurrera**

Garagardo azoka lehen aldiz antolatu du saskibaloi sailak, eta izaten duen harreraren arabera erabakiko dute ekimenarekin jarraitu edo ez. Saskibaloia herritarrei gerturatzeko asmoz egiten diren ekitaldien artean klasiko bihurtu dira dagoeneko hiruko txapelketak. Udakoa ekainaren 24an eta 25ean egingo dute eta negukoa, berriz, abenduaren 27an. Hori bai, hurrengo zita garrantzitsua maiatzaren 7an izango dute, Labegaraietan: senior mailako mutilen taldeak igoera faseko lehen partidua jokatuko du, 18:00etan.

**ZUZENDARITZA POZIK DAGO AMAITZEAR DEN DENBORALDIAREKIN, EMAITZEI ETA EKINTZEI DAGOKIENEZ**

## Gorlako kantinan beste bi kontzertu izango dira maiatzean

Gorlako kantinak kultura eskaintzen jarraitzen du, ohiko zerbitzuez gain. Udaberrian ia asteburuero ekintzaren bat antolatu nahi dute, eta euren asmoa da udan zehar ere ahalik eta ekintza gehien antolatzea. Joan den zapatuan, Turtukiña kolektiboko DJekin poteo musikatua izan zuten eguerdian, eta arratsaldean Joni Txintxes & Bili Ladillas eta Erromintxelak taldeek blues eta jazz doinuak eskaini zituzten, hurrenez hurren. Maiatzean ere izango da zertaz gozatu: hilaren 5ean, taldearen lehen diskoa izango dena grabatzen ari den Arrasateko Banana Shake taldeak joko du (19:30); rocketik edaten duen errepertorioa taularatuko dute, betiere, haize-instrumentuen indarrarekin. Maiatzaren 13an, berriz, Danbakan parte hartu zuten Orhi eta Islabat taldeek joko dute, 18:30ean hasita.

## Berroyaren ilustrazioak Aroztegin ikusteko aukera domekara arte

Jose Miguel Berroyaren ilustrazioez osatutako erakusketa dago ikusgai Aroztegin domekara arte, hilak 30. Boligrafoz edo arkatzez kartoi mehe gainean egindako hainbat ilustrazio daude; besteak beste, euskal mitologiarekin lotura zuzena duten marrazkiak; han ageri dira Mari –argazkian–, Basajaun, Tartalo eta Laminak, Berroyaren ikuspegitik.



Mari, Berroyaren ikuspegitik. J.M.B.

## Kantu jira herrikoia maiatzaren 14an, entsegu eta guzti

Jardunek kantu jira herrikoia antolatu du maiatzaren 14rako, San Martin plazatik abiatuta (12:30). Kantuan egin ostean, mokadutxoa egongo da partaide guztientzat. Kantaldia prestatzeko entseguak ere egingo dituzte: maiatzaren 3an eta 10ean elkartuko dira, San Joxepen (19:00). Argibide gehiago: 943 76 36 61 edo 605 71 24 69.

# 'Auzuak ala hil'-en lekukoa Elorregik dauka

Elorregiko festen egitarauan sartu dute 2018an martxan jarri zen auzoen berri eman eta haien inguruko harremanak indartzea helburu duen egitasmoa; zapatuan izango da, eta, asmoa urtero egitea bazen ere, bi urtean behin izango da hemendik aurrera

**Idoia Aranbarri Arzuaga** BERGARA

Atzo eman zieten hasiera jaiei Elorregi auzoan, txopo-jasotze, etxaguego eta kanpaiekin, eta domekara bitartean iraungo du festak. Gaur arratsaldean, meza eta afaria egingo dituzte; domekan, berriz, meza, 10:30ean; eta ordubete geroago, Bergarako pilotarien partidak eta dantzarien saioa izango dira ikusgai. 14:30ean, bazkaria egingo dute, Alkartasuna elkartean. Antolatzaileen esanetan, auzoko nagusientzat izango da, "aspaldi ez baitira elkartu".

Alabaina, zapaturako egun berezia prestatu dute: *Auzuak ala hil*, auzoek bizi duten egoera zailaren berri eman eta haien arteko harremanak indartzea helburu duen ekimena. Pandemia ostean egiten den bigarrena da –Osintxun egin zuten iaz–. Auzoaren gaineko ezagutza, musika eta bazkariaren bueltan antolatzen dute eguna, eta horren garrantzia azpimarratu dute antolatzaileek: "Landa-eremuko betiko informazioa galtzen doala uste dugu. Herrian bertan dauden kultur ondareak edo historikoki garrantzitsuak izan diren istorioak, ohiturak... gehiago mantentzen dira. Uste dugu nagusiei auzoaren gainean galdetu behar diegula, eta halako egunetan plazara ekarri nahiz ezagutzera eman, etortzen den orok jakin dezan. Bazkariak eta dantzak ere kulturatik gertu daude eta gozamenetik asko ikasten da".



*Auzuak ala hil*-en antolatzaileak, Osintxun, aurtengo kartelarekin. 'AUZUAK ALA HIL'

### Bisita, bazkaria eta kontzertuak

Triki-poteoarekin hasiko da eguna, 11:00etan, eta 12:00etan, Sanprubusaren inguruan elkartuko dira auzoko bisita gidaturako. Baserrien, auzoko zubien, erroten eta elizaren jatorri eta anekdotak izango dira mintzagai: "Tavesa dagoen lekura ere joango gara. Fabrika egiteko auzoko baserririk handienetakoa bota zuten, eta bertako istorio batzuk ere ezagutuko ditugu". Elkartean jarriko duten erakusketarekin amaituko da bisita. Duela bizpahiru urte, Elisabet Altuna auzotarrak auzoko "baserri guztiak" margotu zituen, eta koadroak egongo dira ikusgai.

Antolatzaileek aurreratu dutenez, 100 pertsona inguruk eman dute izena bazkarirako. "Pozik" agertu dira izandako erantzunarekin, jaia egunez aldatuta ere jendea animatu delako –maiatz edo ekainean egin izan da–. Bazkalostean herri jolasak egin ondoren, 19:00 aldera, Elorregiko geltokira egingo dute kalejira, ordu horretan zabalduko baitute txosna. 20:30ean, bokata-afaria egingo dute. Aurten, Bergarako Sareko kideek prestatuko dituzte, eta ogitartekoen bidez ateratzen den etekina eurentzat izango da. 21:30ean hasita, Arima Galduak, Lukiek eta Lizartxo taldeen eta DJ Fresa Morangoren kontzertuek girotuko dute gaua.

### Ekimena, bi urtean behin

Hurrengo *Auzuak ala hil* zein auzotan egingo duten zapatu arratsaldean zehaztuko dute. Ez dute aurreratu non izango den, baina adierazi dutena da urtero egitetik bi urtean behin egitera pasako dela, antolatzaileek hala erabakita: "Ikusi da antolatze aldetik larregi dela urtero egitea. Auzo guztietako bizilagunak aritu gara lanean. Aurreko astean egin genuen azken bilera, eta, hainbat arrazoirengatik, erabaki zen urtero egin beharrean bi urtean behin izatea".

### Autobusean joateko deia

Auzora joateko autobusa erabiltzeko dei egin dute. Azaldu dutenez, Elorregiko geltokiko aparkalekuan jarriko dute txosna, eta, hortaz, autoek ezin izango dute aparkatu: "Orain daukagun geltokitik autobus mordoa igarotzen da Oñati, Bergara eta Eskoriatzaraino joateko. Bergaratik eta Oñatitik jendea etortzea espero dugu, eta, autobusean etortzen badira, hobeto. Gainera, ordu txikitan erosoena autobusa hartzea dela uste dugu".

## Ernai kaleak ere baditu bere jaiak

Bergarako Ernai kalean festak ospatuko dituzte lehen aldiz maiatzaren 6an eta 7an. Hamar bizilagun inguruko taldea aritu da jaiak antolatzen uda ostea ezkero, eta, adierazi dutenez, herri mailan geroz eta auzo gehiagotan jaiak antolatzen zirela ikusi zutelako eurenak sortzea erabaki zuten. Gogotsu daude, baina, aldi berean, eguraldiari begira, aterperik gabeko kalea baita. Dena den, Udalari karpak eskatu dizkiote dagoeneko, badaezpada.

Egitarau betea antolatu dute bi egunetarako. Maiatzaren 6an, *crossfit* erakustaldia egingo dute. Ernaitxo da festetako irudia, zimitz berdea. Antolatzaileen esanetan, halako "ugari" egoten dira etxeen azpian, eta hortik hartu dute ideia. Hortaz, bizilagun batek gantxilloz egindako Ernaitxok lehenengo aldiz egingo du jaitsiera eguerdian. Herri jolasen ostean, *txomingero* bazkaria egingo dute –bakoitzak bere bazkaria eraman beharko du–. Arratsaldean –baita domeka goizean ere–, buruhandiak eta haurrendako ekintzak izango dira protagonista, eta 19:00etan, Azkaiter Pelox taldearen txanda izango da. Domekan, aldiz, ibilaldi neurtua egingo dute (10:30). Eguerdian odoloste eta txorizo pintxoak banatuko dituzte eta Camdem Town-ek adin guztiei zuzendutako zumba saioa eskainiko du. Ibilaldi neurtuko sari banaketekin eta billeteen zozketarekin amaituko dira festak.

## Asurmendi, Musika Eskolan

Idoia Asurmendi abeslariaren bisita izan zuten Musika Eskolan astelehenean, Apirilean Musika ekimenaren barruan. Solasaldi musikatuan aramaioarraren ikasketa eta ibilbide musikalaz hitz egiteaz gain, bertaratutako ikasleek galderak egiteko aukera izan zuten. Solasaldia osatzeko, *Ilun eta abar* diskoko hainbat kantu abestu zituen.



BERGARAKO MUSIKA ESKOLA

## Pentekoste jaietako zapirako marrazki eta lelo lehiaketa, abian

Pentekoste jaietako zapirako marrazki eta lelo lehiaketa antolatu du Jardun Euskara Elkarteak. Marrazkia leloarekin edo leloa soilik aurkeztu ahal izango dituzte partaideek. Marrazkiak *Jaiak* gaian oinarrituta egon behar du; leloak, berriz, euskararen aldeko esaldia izan behar du. Haurren –12 urtetik behera– eta helduen kategoriak banatu dira marrazkietan, baina leloetan proposamen guztietatik bat aukeratuko da. Edonork har dezake parte eta lan bat baino gehiago aurkeztu daitezke. Helduen marrazki onenaren irabazleak 100 euro jasoko ditu, haurren marrazkiarenak 60 euro eta esaldi onenak 40 euro. Jarduneko bulegoan aurkeztu edo *jardun@topagunea.eus* helbide elektronikora bidali behar dira lanak maiatzaren 3a baino lehen. Oinarriak eta informazio gehiago, Jardunen webgunean.



Ion Gurutz Biteri, Mikel Bargiela, Aritz Ormazabal, Mikel Alkorta eta Mikel Arriaran taldekideak. KLAK!SON

# Hemezortzi urteko bidea eten egin du Klak!son-ek

Antzuolako eta Zumarraga-Urretxuko bost lagun elkartu, eta 2005ean sortu zuten Klak!son taldea. Aldaketak bizi izan ditu, eta jatorrizko taldekideak ez dira berdinak. Tartean dira Ion Gurutz Biteri eta Mikel Bargiela herrikideak; bizitakoez jardun dute

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Hemezortzi urteren ostean, ibilbidea eten du Klak!son taldeak, *Puntu urdin margula* (2021) diskoa kaleratu ondoren "beheranzko joeran" zeudelako, Mikel Bargiela eta Ion Gurutz Biteri taldekide antzuolarrek nabarmendu dutenez. "Diskoa ateratа, beti pasatu izan zaigu. Dinamika bat hartua dago: abestiak konposatu, grabatu, kontzertuak... Baina hori eginda, material falta dago berriro ekiteko, eta ez da jakiten zer egin. Puntu horretan geunden". Ilusioa ere ez zuten lehengo berbera eta kontzertuak ere ez ziren aurreko urteetan bezain jendetsuak.

Bi taldekideek, ordea, ondo gogoan dituzte bizi izandakoak. Deskarga mendateko bi aldeetako bost lagun batu, eta 2004an egin zituzten Klak!son taldea izango zena ereiteko lehen urratsak, urtebetera sortu zuten arren Asier Alkortak (gitarra), Jon Pinillosek (baxua), Borja Zabalok (bateria), Mikel Urzelaik (ahotsa) eta Ion Gurutz Biterik (teklatua eta koruak). "2005aren amaierarako genituen lehen abestiak, eta 2006ko iraileko asteburu batean grabatu genuen bost abestiko maketa: *Klak!son*", adierazi du Biterik.

Danbaka lehiaketara aurkeztu zuten, eta, sailkatuta, parte hartu zuten. "Hastapen politak izan ziren. Ilusioa genuen, orduak eta orduak entseatzen genituen".

## Taldean aldaketak

Jatorrizko taldeak, ordea, aldaketak bizi izan ditu. Bargiela, esaterako, 2007an batu zen taldera, eta hiru urtera sortu zen taldearen azken egitura, 2010ean: Bargiela, ahotsean; Biteri, teklatuan; Alkorta, gitarran; Aritz Ormazabal, baxuan; eta Mikel Arriaran, baterian. Bigarren diskoa, berriz, 2011n atera zuten: *Zai At Devo City*.

Eta, hain justu, Biterik disko batetik besterako aldaketaz hitz egin du. "Lehenengoa askoz heterogeneoagoa zen. Bigarrenetik aurrera, ordea, uste dut lan nahiko koherentea egin dugula musikalki, estilo definituarekin". Azaldu duenez, elkarrekin lan egiteko ohitura izan dute, eta horrek eman zion diskoari "definitua" izatearen izaera. "Behin konposatzen hastean, abesti oso onak atera izan ditugu".

Bargielak, berriz, azpimarratu du beti esan izan dietela musika "nahiko partikularra" egin izan dutela, eta eurek *rock progresibotzat* ere izendatu dutela. Dena den, lau diskoetan gozatu du –hirugarrena, *Denboraleak* (2015) da–, baina, batik bat, *Zai At Devo City*-rekin ditu oroitzapenak. Halere, aitortu du beste batzuek lan gehiago egin zutela. "Grabaketak-eta guk erdi-ekoiztuak dira, laguntza izan arren. Baina Biterik eta Alkortak lan tekniko handia egin zuten disko hartan".

## Eginiko laguntasuna

Halere, biek ere ibilbidean eginiko erlazioak nabarmendu dituzte. "Hau bigarren familia bat izan da; giro ona, ika-mika batzuk izan arren", esan du Biterik. Eta Bargielak erantzun: "Ezinezkoa izango litzateke eztabaidarik ez izatea hainbeste urtetan...". Gainera, erantsi dute taldekideek elkar zaintzea garrantzitsua izan dela, eta, batez ere, Antzuolako kontzertuak gozatu dituztela. Hala, eskerrak eman dizkiete inguruan izandakoei. "Ondo izan eta zaindu. Kontzertuetan ikusiko dugu elkar!".



Klak!son musika taldea, Danbaka lehiaketan, 2006an. DANBAKA

**"HASTAPEN POLITAK IZAN ZIREN. ILUSIOA GENUEN, ORDUAK ETA ORDUAK ENTSEATZEN"**

ION GURUTZ BITERI

**"GARRANTZITSUA IZAN DA TALDEKIDEON ARTEAN ELKAR ZAINTZEA"**

MIKEL BARGIELA



Berandu Baino Lehen taldea. B.B.L.

## Musikak hartuko du lekua asteburuan gaztetxean

Kontzertuak eta pala txapelketa antolatu ditu Langile Kontrolpeko Espazioen Defentsa Komunitateak biharko, Antzuolako Gazte Asanbladarekin batera, eta 21:30ean kontzertuak egingo dira. Berandu Baino Lehen, 112, Txakurrak eta Kontralde taldeak arituko dira. Are gehiago, gaur, 20:00etan, Katarsia eta Nhil Band taldeen kontzertuak izango dira. Ogitartekoak ere izango dira.

## Rokodromoko bilera egingo dute datorren eguaztenean

Maiatzaren 3an izango da, 18:30ean, eta Arrola elkarteko kideek jakinarazi dute helburua rokodromoko erabiltzaileen artean batzorde bat sortzea izango dela; egin beharreko aldaketak egitea eta material berria erostea izango da haren ardura, betiere, Arrola elkartearekin harremana mantenduta. Parte hartzeko dei egin dute.

## 73 lagunek hartuko dute parte Atzeko herri txapelketan

Maiatzaren 5ean eta 6an egingo da, eta 8 eta 47 urte arteko 73 parte-hartzaile arituko dira txapelketan. Egubakoitzean 17:30etik 23:30era artean jokatuko dira partidak eta zapatuan, berriz, 09:00etatik 20:00etara. Hala, guztira, 103 partidu izango dira, eta, amaitzeko, partaide guztientzat afari-merienda egingo dute Olalde elkartean.

# Alderdiek osatu dituzte hauteskunde-zerrendak

Ohikoa den moduan, hiru zerrenda aurkeztu dituzte Antzuolan. Olatz Lezeta izango da EH Bilduren hautagaia eta Josu Xabier Arangurenek ordezkatuko du EAJ; bi alkategaiak dira berriak. PSE-EEk Miren Gallastegi hautatu du, azken bi hauteskundeetan bezalaxe

**Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria** ANTZUOLA

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako zerrendak osatu nahian aritu dira Antzuolako EH Bildu, EAJ eta PSE-EE azken asteetan, eta asteon eman dute horren berri.

Guztira, hamaika kidek osatzen dute udalbatza gaur egun, eta EH Bilduk du ordezkaritza zabalena, Beñardo Kortabarriaren alkate dela. Hain justu, alkatea barne, zazpi ordezkari ditu Udalean alderdiak; hala izan da azken bi agintaldietan. Hala ere, Kortabarria ez da berriz aurkeztuko, eta ezta zinegotzi gehienak ere: bi bakarrik.

Olatz Lezeta Urzelai antzuolarra izango da hilabete barru egingo diren hauteskundeetan alkategai, eta alboan izango du beste hamahiru kidez osatutako lantaldea, hurrenez hurren: Aritz Igeltz, Amaia Azkarate, Imanol Lizarralde, Puri Arregi, Juan Kruz Lizarralde, Inma Beristain, Jabi Etxaniz, Garazi Kortabarria, Mikel Bargiela, Ines Caceres, Iker Manso, Onintza Legorburu eta Txomin Arzallus. Zehazki, Arregi eta Bargiela dira errepikatu duten bakarrak, gaur egungo zinegotziak.

EAJ ere martxan da, eta, bi agintaldiren ostean, bederen, hamaika herritarrek osatuko dute lantaldea, azken urteetan kanpotik etorri behar izan baitute alderdikideek zerrenda osatzeko.

Josu Xabier Aranguren izango da alkategaia; jaiotzez arrasatearra da, baina 2006a ezkero bizi da Antzuolan. Aurreko hauteskundean zerrendan izan zen, zortzigarren postuan, eta orain lehenengoa izango da. Are gehiago, bidelagun izango ditu, hurrenez hurren, Dina Mujika, Basilio Ormazabal, Rakel Velasco, Iñigo Ramirez de Okariz, Nekane Berasategi, Jose Ramon Jauregi, Jose Anjel Arbulu, Youness Louiz, Jose Inazio Beltran eta Martzelino Larrea. Hala, euretako batzuk Udalean izanak badira ere, Ormazabal da azken agintaldian zinegotzi izan den bakarra, Miren Elgarresta –Emakundeko zuzendaria da gaur egun– eta Aitor Urrutia alderdikideekin.

**11 KIDEK OSATZEN DUTE UDALBATZA; ZERRENDETAN EGUNGO LAU ZINEGOTZI DAUDE**

Nabarmendu dutenez, "herriaren ezagutza, herritarrekin konpromisoa eta udal gestiorako gaitasuna" dira euren indarguneak.

### PSE-EEn, Gallastegi

PSE-EEtik, berriz, azken bi agintaldietan bezalaxe, Miren Gallastegi aurkeztuko da sozialisten hautagai alkatetzarako. Oposizioan egon da azken zortzi urteetan, baina azpimarratu du "ilusio handiz" aurkeztu duela berriro ere bere burua, "herriak aurrera egin dezan ongizatean eta bizi-kalitatean". Hala, harekin batera hamar lagunek osatuko dute zerrenda: Juan Benitez, Agustina Reyes, Ramon Hidalgo, Isabel Ortiz, Antonia Leon, Antonio Sierra, Maria Paz Lucio, Leandro Pedro Garcia, Marcelino Pozo, eta Isabel Benitez.



Antzuolako EH Bilduren zerrendako kideak maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako Herriko Plazan. ANTZUOLAKO EH BILDU



Antzuolako EAJren zerrendako kideak maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako Zurrategi plazan. ANTZUOLAKO EAJ

## Herriko baserritarrek uraren "pribatizazioa" salatu dute

Uraren Agentziak kontagailuak jarriko ditu iturburuetan, eta baserritarrek "bidegabetzat" jo dute neurria

**A.R.K.** ANTZUOLA

Iturburu ugari daude mendi inguruetan, eta horiek aprobetxatu ohi dira landa eremuko ureztapenerako. Orain arte, erabiltzaileek ez zuten ondasun horrengatik ordaindu behar, baina ur-depositueten kontagailuak jartzen hasi da Uraren Euskal Agentzia; beraz, aurrerantzean, uraren erabilerak prezio bat izango du, baina baserritarrak ez daude ados.

Bada, horretaz jabetuta, herri mailako deialdia egin, eta batzeko lehen urratsa egin dute. Hilaren 20an egin zuten lehen batzarra, Torresoroan, eta azaldu dute arau horrek "uraren pribatizazioa" dakarrela. Elkartu eta egoera salatzea "ezinbestekotzat" jo dute, "bidegabea" iruditzen zaielako erabakia. Halere, Debagoieneko gainontzeko herriekin eta udalekin harremanetan jarri nahiko lukete, taldean aritzea "hobe izango dela" azpimarratuta.

### Eginiko inbertsioak

Erlojuak jarriko dituzte Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako iturburuetan, eta metro kubiko bakoitzak 0,025 euroko karga-tasa dauka aurten; alabaina, datorren urtean garestiagoa izango dela jakinarazi dute, 0,03 euroko prezioa izango baita.

Iturburu horiek martxan jartzea, ordea, baserritarren lana izan dela azaldu dute, eta inbertsio handiak egin dituztela horretarako. Haien arabera, iturburu horien mantentzeak kostu batzuk ditu: "Izan ere, uraren laginak aztertu behar dira, uraren sareak ere egin behar dira, depositua... Hori dena baserritarren kontu eginikoa izan da, norberaren gain egon da; hala ere, orain, hori guztia pagatu egin beharko da".



Baserritarrek eginiko batzarra, apirilaren 20an, Torresoroan. ANTZUOLAKO UDALA

## Landatxopeko batzar orokorra egingo dute maiatzaren 4an

Urteroko ohiko batzar nagusia egingo dute datorren eguenean, Olarango bigarren solairuko aretoan, 18:00etan eta 18:30ean. Diru kontuak izango dituzte hizpide, eta baita iaz eginikoak eta aurrera begira egin asmo dituztenak. Batzordearen parte baten aldaketa ere egingo dute, eta, azkenik, luntxa izango dute parte hartzaileek.

## Ipintza institutuaren 50. urteurrena ospatzeko festa

50 urte bete ditu aurten institutuak, eta, festa egingo dute maiatzaren 20an. Txupinazoaz gain, kalejira egingo dute, eta, horrez gain, ekintzak. 14:30ean bazkaria egingo da Seminarioko karpan, eta, txartelak sargai jarriko dira Antzuolan maiatzaren 4an 19:00etatik 20:00etara, herriko plazan. Ostean, musikak girotuko du eguna.

# Udal hauteskundeotan hiru zerrenda Elgetan

Ibon Unzetabarrenetxea (EH Bildu), Iker Laka (EAJ) eta Elias de Castro (PSE-EE) dira hiru alkategaiak. Gainerakoan, hauteskunde kanpaina maiatzaren 12an hasiko da eta posta bidezko botoa emateko epea maiatzaren 18an itxiko da

**Larraitz Zeberio Lekuona** ELGETA

Argitu da kontua: hiru zerrenda aurkeztu dira maiatzaren 28ko udal hauteskundeetarako Elgetan. EH Bilduren alkategaia Ibon Unzetabarrenetxea da, EAJrena Iker Laka eta PSE-EErena Elias de Castro.

Aurreko bi udal hauteskundeetan ere –2019 eta 2015– hiru izan dira aurkeztutako zerrendak; 2011n eta 2007an bost izan ziren.

2007an, Aralar-independenteak (252 boto), Elgetako Abertzaleak (209 boto), EAE-ANV (172 boto), PSE-EE (4 boto) eta PP (2 boto) izan ziren aurkeztutakoak. Abstentzioa %24,82 izan zen, eta Aralar-Independenteak taldeko Oxel Erostarbek hartu zuen alkatetza. Zinegotzien banaketa izan zen: Aralar-Independenteak taldeak lau, EAJk hiru eta EAE-ANVk bi.

2011n, Aralar-independenteak (246 boto), Bildu (245 boto), EAJ (138 boto), PSE-EE (6 boto) eta PP (8 boto) aurkeztu ziren. Abstentzioa %24,28 izan zen, eta Oxel Erostarbek bigarren agintaldiari ekin zion. Zinegotzien banaketa izan zen: Aralar-Independenteak taldeak lau, Bilduk hiru eta EAJk bi.

2015ean, jaitsi egin zen zerrenda kopurua. Emaitzak izan ziren: EH Bildu (360 boto), Gu Geu Elgeta (259 boto) eta PSE-EE (15 boto). Abstentzioa %23,88 izan zen, eta EH Bilduko Iraitz Lazkanok hartu zuen alkate-makila. Zinegotzien banaketa izan zen: EH Bilduk bost eta Gu Geu Elgetak lau.

Azkenik, 2019an, EH Bilduk 412 boto eskuratu zituen, EAJk 205 eta PSE-EEk 13. Abstentzioa %24,65 izan zen, eta Iraitz Lazkanok bigarren agintaldiari ekin zion. Zinegotzi banaketari dagokionez, EH Bilduk sei ditu eta EAJk hiru.

**Hauteskunde egutegia**

Udalak martitzenean egin zuen hauteskunde-mahaia osatzeko jendaurreko zozketa. Orain, maiatzaren 6ra arte du izendapenak jakinarazteko. Hautesle erroldari dagokionez, zuzenketak egiteko epea amaitu da, eta zuzenketak jendaurrean daude dagoeneko. Hauteskunde kanpaina maiatzaren 12tik 26ra izango da. Posta bidezko botoa eskatzeko epea maiatzaren 18ra arte dago zabalik. Correos-ko edozein bulegotan eska daiteke.



**Elgetako EH Bilduren hauteskunde-zerrendako hamalau kideak.** GOIENA

## Goitik behera, zerrenda berria

Ibon Unzetabarrenetxea buru duen EH Bilduren hauteskunde-zerrenda berri-berria da, duela lau urtekoarekin alderatuta. Hamalau kideetatik hiru izan ezik, gainerakoak berriak dira.

## Zerrendak

**EH Bildu**

- Ibon Unzetabarrenetxea Gallego.
- Maialen Arnedo Gaztelurrutia.
- Ione Elkoro Garcia.
- Kepa De Vega Izagirre.
- Miren Ibarbia Iriondo.
- Saioa Alberdi Oyanguren.
- Ikuska Lizarralde Baskaran.
- Jose Luis Egizabal Gorrotxategi.
- Maria Aranzazu Arrastia Diaz.
- Iban Retolaza Ojanguren.
- Sebastian Aranzabal Aranzabal.
- Ane Bilbao Larrañaga.
- Estibaliz Askasibar Ardantza.
- Iraitz Lazkano Garitaonaindia.

**EAJ**

- Iker Laca Barandika.
- Mikel Gotzon Larrea Zabalo.
- Josu Leturia Berasategi.
- Miren Idoya Ubera Lete.
- Ana Guillegui Etxebarria (independentea).
- Beñat Laskurain Martinez.
- Aintzane Oiarbide Iruretagoiena.
- Maria Jesus Lete Laskurain.
- Patxi Basauri Elkoro.

**PSE-EE**

- Elias De Castro Aparicio.
- Nerea Guisasola Fernandez.
- Eduardo Pelaez Castro.
- Encarnacion Sanchez Martinez.
- Daniel Nieto Fuente.
- Dalia Leon Del Pozo.
- Antonio Caballero Colomo.
- Anabel Perez Badillo.
- Hipolito Herrada Medina.



L.Z.L.

## Oroimen-ekitaldi hunkigarria

Domekan bete egin zen Espaloia frankismoak espetxeratu eta lan-batailoietara behartutako herritarrak omentzeko Udalak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak antolatutako ekitaldian. Asmoa da izen-zerrenda osatutakoan plaka bat jartzea udaletxeko fatxadan. Gazte Asanbladak frontearen 86. urteurrenerako antolatutako ekimenek ere harrera ona izan dute.



KANTSATZEKE MENDI TALDEA

## Mendi buelta Markina aldean

Urteko bigarren irteera egin berri du Kantsatzeke Mendi Taldeak. Urregarai aldera egin dute, eta ikusitakoen artean dago Arretxinagako San Migel ermita –argazkian–. XVIII. mendekoa, aurreko beste baten gainean eraikia da, eta barruan hiru harri erraldoiz osatutako monumentu megalitiko bat dago. Harri horien artean dago San Migel goiaingeruaren irudia.

## Ipintza institutuko urteurren bazkarirako txartelak salgai daude

50 urte bete ditu aurten institutuak, eta maiatzaren 20an ospatuko dute. Txupinazoa, kalejira, bazkaria eta Mugi Panderoa taldearen kontzertua izango dira, besteak beste. Bazkarirako txartelak salgai daude. Elgetan maiatzaren 3an egingo da salmenta, 18:30etik 19:30era, Ozkarbipean. Prezioak dira 25 euro helduen menua eta 10 euro umeena.

## OHARRAK

### Zuzenketa

Aurreko astean okerreko abizena jarri genion Urko Lozanori izenburu batean. Hori dela eta, barkatu eragozpenak.

### Erretiratuak

Domekan, 11:00etatik 13:00etara, maiatzaren 10eko irteerarako izen-ematea eta urteko kuotaren ordainketa Ozkarbi elkartean.

# "Polita da umeek interesa dutela ikustea"

**MAIDER GALARZA** IPUIN KONTALARI IRUNDARRA

Irundarra jaiotzez, aste hauetan ipuin-kontalari aritu da Elgetako liburutegian. "Harro" egindakoaz, herrian horrelako ekintzak sortzearen garrantzia azpimarratu du

**Mikel Zumalde Etxabe** ELGETA

Atzo amaitu zen umeendako ipuin kontalaritza tailerra Elgetako liburutegian. Joan den eguenean hasi zen, eta atzo arratsaldean egin zen bigarren eta azken saioa. Haurrei ipuinak kontatzearen ardura Maider Galarza irundarrarena izan da. Gustura dago bi saioek eman dutenarekin.

**Zer moduz joan da neska-mutikoendako ipuin kontalaritza tailerra?**

Oso ondo joan da. Umeek eta gurasoek osatutako oso talde jatorra izan da eta oso ondo pasatu dugu.

**Nola prestatu duzu eta zer landu duzue bertan?**

Elgetako liburutegitik proposatzen zena zen jolasen bidez umeei ipuinak gerturatzea, ipuinak kontatzea ere dibertigarria izan daitekeelako. Hain zuzen ere, hainbat teknika landu ditugu ipuin bat kontatzeko orduan: objektuekin, gorputzaren bidez, soinuen bidez... Askotariko tresnak erabiltzen erakutsi diegu.



Galarza, ipuin kontalaria. GOIENA

**Umeekin teoria handirik ez zenuen garatuko. Gehiago izango ziren ariketa praktikoak. Zer-nolako ariketak izan dira?**

Ipuin bat kontatzeko jakin behar den egitura minimo bat erakutsi diegu, baina beti jolasen bitartez. Horrek balio izan digu umeek jakiteko derrigorrez zer hartu behar den kontuan ipuin bat kontatzeko orduan.

**Ze gomendio eman diezu umeei jendaurrean jarri eta ipuina kontatzeko? Ipuina aukeratu, nola prestatu, urduritasuna kontrolatzeko aholkuak, gorputza nola erabili...**

Esan nien bakarra izan zen ipuinen bat aukeratuta baldin badute, ekartzeko, horri buelta bat emateko. Lehenengo saioa hastapen saio bat izan zen. Garbitasuna asko azpimarratzen diet, egiten dutena garbi egin dezaten, baita disimuluarena ere; nahastu egin badira, aurrera jotzeko beti. Horrelako gomendio orokorrak eman diet.

**Pozik orain artekoarekin?**

Oso pozik. Niretzako, agian, berriena dena da gurasoekin eta haurrekin batera lan egitearena, eta liburuzainari komentatu nion oso ideia ona iruditzen zitzaidala.

**Horrelako tailer batean trebatzen den ume batek ze gaitasun lantzen ditu zeharka?**

Gauza asko trebatzen dira, hori egia da. Ahozkotasuna, ahots propio bat aurkitzea, antropologikoki ipuin batek ere milaka ate zabaltzen dizkizu... Ni neu antzerkigintzatik nator eta nik planteatzen dudan moduan ere gorputza oso garrantzitsua da.

**Bukatzeko: zure ustez, kontalari harrobi ona dago Elgetan?**

Bai. Behintzat, oso polita da umeek interesa jartzen dutela ikustea. Hirietan ematen du 8 urtetik aurrera beste gauza batzuetan daudela. Hemen, zorionez, ez.

## Liburutegiko agenda, ekitaldiz betea

Maider Galarzak gidatutako umeendako ipuin kontularitzaz gain, Elgetako liburutegian egitarau mardula prestatu dute datozen asteotarako. Liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak *Gu ere kontalari* ekimena abiarazi nahi du berriz ere, eta aste honetan ireki da izen-ematea. Lehen saioa maiatzaren 5ean izango da.

Horrez gain, zabalik da artista-liburuen erakusketa apiril amaierara arte. Gainera, maiatzerako hezkuntza digitalaren inguruko bi saio antolatu dituzte. Maiatzaren 3an, egubakoitzean, *Heziketa eta segurtasuna Interneten* hitzaldia egongo da KZguneko aditu baten eskutik. Domeka honetan itxiko da hitzaldian parte hartzeko izen-ematea. Eta maiatzaren 17an beste saio bat izango da, gurasoen hausnarketarako. Prest dago ere kultura etxeak plazarekin egiten duen kantoian liburuak trukatzeko txokoa.

# Datorren eguaztenean hasiko da euskal dantzen ikastaroa

Maiatzaren 3tik ekainaren 28a bitartean egingo da ikastaroa eta gaur amaituko da izen ematea

**Mikel Zumalde Etxabe** ELGETA

Pandemiaren ondorioz azken urteotan egin gabe egon ondoren, badator bueltan euskal dantzen ikastaroa Elgetan. Beti bezala, saio bat egingo dute astero, maiatzaren 3an hasi eta ekainaren 28a arte. Izena emateko epea gaur amaitzen da, eta, horretarako, udaletxera edo liburutegira jo behar da.

Aurten 5 eta 12 urte artean betetzen dituztenei zuzenduta dago. Gazteenen taldean hamabi umek eman dute izena. Nagusiagoen taldean hamahiru haur apuntatu dira ikastarora.



Euskal dantzak, Ferixa Nagusian.

Helburua aurten ere jaietako Herri Egunerako dantza saioa prestatzea da.

Urte askoan Irati Kortabitartek eta Xabat Leanizbarrutiak izan dute saioak gidatzeko ardura, baina aurten Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeko Maite Lazkano izango da gidaria. Lazkano "gogotsu" azaldu da: "Elgetako umeak ezagutzeko aukera ederra da eta hain aste gutxian dantza ezberdinak ikastea ez da erronka makala". Alde horretatik, Lazkanok adierazi du txikiek txulalai, zapatagin dantza, esku dantza eta polka dantzak prestatuko dituztela. Nagusiagoek, berriz, banakoa, zazpi jauzi, kontradantza eta agurra.

Saioak Espaloia kafe antzokian egingo dituzte, 16:30etik 17:30era.

# Ate-joka hamazortzigarren Debagoieneko Trikitixa Eguna

Maiatzaren 6an, goizetik arratsaldera arte trikiti eta pandero doinuek alaituko dituzte Elgetako bazterrak

**Mikel Zumalde Etxabe** ELGETA

Bailarako trikitilariak Elgetan batuko dira maiatzaren 6an, hamazortzigarren Debagoieneko Trikitixa Eguna ospatzeko. Joan den urtean Eskoriatzan ospatu zen eguna eta aurten elgetarrei egokitu zaie hitzordua antolatzea, bigarrengoz –aurrez, 2013an egin zuten–. Bailarako trikitilariekin batera Soraluzekoak, Bermeokoak eta Legutioko trikitilariak ere ibiliko dira herria girotzen.

Adolfo Jainaga eibartarrak 32 urte daramatza Elgetan trikiti eskolak ematen. Egun horrek nagusiki bi helburu dituela azpimarratu du: "Alde batetik, urte osoan ikasten duguna herriari erakustea; eta, bestetik, besteek egiten dutena ikustea".

Eguerdian hasita, kalejira egingo dute eskola guztiek, nork bere kasa. Bazkaldu aurretik, 13:00etan, eskola guztiek batera egingo dute emanaldia, herriko plazan. Ondoren, 250 pertsona espero dira bazkaltzeko. Arratsalderako, kalejira erraldoia, Ttipika taldearekin erromeria eta triki-poteoa antolatu dituzte.



Elkartean izango da domekako auzo bazkaria; eta kontzertuak, parean jarritako karparen azpian. O.E.G.

# Olabarrietakoekin batera datoz gero jai guztiak

19:00etan botako duten etxafuegoak emango die hasiera Olabarrietako jaiei; 22:00etan, Larru Beltzak taldearen kontzertua izango da. Indar bereziko jaiak dira Olabarrietakoak, hango suziria bota ostean datoz-eta ondorengo jai guztiak

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI
Gaur, egubakoitza, hasi eta astelehenera arte iraungo dute Olabarrieta auzoko jaiek. Maiatzaren 1aren bueltan antolatzen dituzte urtero, eta haiek ematen diete hasiera, nolabait, gainerako auzoetakoei. Olabarrietan gaur botako duten etxafuegoak iragarriko ditu, beraz, bertakoak eta baita gainerakoak ere. Olabarrietak ematen du herriko auzo eta kaleetan antolatuko dituzten jaien hasieraren abisua.

### Adostutako egutegia

Maiatzaren hasieratik herriko jai nagusiak pasa arte izaten da jaien sasoia; bide batez, urtean zehar antolatzen diren ekitaldiei gehitzen zaien egitarauarekin bakoitza.

Udaberria hasi aurretik, herriko eremu urbanoan antolatzen diren jaietako ordezkariekin bilera irekia egin ohi du urtero Udalak; baita aurten ere. Auzo edo kale bakoitzak ere jaiak noiz ospatu gura dituen azaltzen du orduan bilerara joandako ordezkariak, eta denen ideiak batu eta adosten dute egutegia. Herriguneko zortzi jai batzordek, esaterako, egina dute antolakuntzan laguntzeko eskaera Udaleko Kultura Sailean: San Migel Txiki, Errekalde, Olakua, Triana, San Lorentzo, Bidebarrieta, Atzeko kalea eta San Martin. Haiez gain, Corpus jaiak eta herriko jai nagusiak egongo dira aurten herri barruan. "Jaietako datak adostuta egonda beste zerbait antolatzeko eskaera heltzen bada Udalera, eragile biei jakinarazten diegu eta haiek harremanetan jartzeko ahalegina egin, batak ez dezan bestea oztopatu, ahal dela, eta bien artean lotzeko zer, non eta noiz egin", azaldu du Kultura batzordeburuak, Iñaki Olaldek. Udalak, gainera, lehentasuna ematen die herritarrek antolatzen dituzten auzoetako jaiei, eta, normalean, data horietan ez du ezer antolatzen. Berdin jokatzeko ohitura du Antixena gaztetxeak ere.

**22:00ETATIK 03:00AK BITARTEAN AUTOBUS ZERBITZUA EGONGO DA GAUR, KALETIK OLABARRIETARA**

### Landa-auzoetan ere bai

Landa-eremuko auzoek Landa Garapeneko batzordean egiten dituzte jaiak antolatzeko eskaerak. Hamasei landa-auzo daude Oñatin eta haietako hamabik dagoeneko jakinarazi dute jaiak antolatuko dituztela eta Udalak eskaintzen duen materialaren beharra izango dutela. Batzuetan, baina, meza eta otordua bakarrik egoten dira, eta material horren beharrik gabe konpontzen dira.

Dirulaguntzari dagokionez, Kultura Sailak banatzen du dirua herrigunekoak antolatzeko eta Auzotasuna programatik hartzen dute landa-eremukoek.

# Emakumeen Etxearen oinarriak jartzeko saio irekia egin dute

Feminismoa, komunitatea, intersekzionalitatea eta ahalduntzea nola sustraitu eztabaidatu dute

**O.E.G.** OÑATI
Emakumion Etxia Eraikitzen parte-hartze prozesua errotze fasean murgildu da, hirugarrenean, espazio hura izan daitekeenaz eta inguruko ereduez hitz egin ostean. Gune hark nolakoa izan behar duen zehazteko lehen bilera egin dute astean, eta feminista, komunitario, intersekzional eta ahalduntzaile baten alde egin, kontzeptu bakoitza definitzeko eta guztiek "kode berean" hitz egiteko.

### Barne banaketa hurrengo

Mahai-inguruan hartu zuten parte, herritarrekin batera, Oñatiko Udaleko Parte-hartze teknikari Onintza Andres Arancetak, Bidez Bide elkarteko Soraya Ronquillo Peñak eta Olatz Dañobeitia Ceballosek, Gipuzkoako Foru Aldundiko Parte-hartze teknikariak. Begirada intersekzionalaren indarguneetako bat "zapalkuntza guztiak ikusarazten" dituela dela aipatu zuen Ronquillok, eta gaineratu zuen etxeko lanetan ari diren emakume migratu haiek emakumeen etxean parte hartzea ahalbidetuko duten baliabideak behar direla. Komunitateaz eta ahalduntzeaz aritu zen Dañobeitia, norbera gaitasunak lantzetik hasi eta elkartuta gauzak aldatzen saiatzeraino bidea aipatuz. Andresek, berriz, aipatu zuen udal politikek eragin zuzena izan dezaketela komunitatea indartzen edo ahultzen, eta, alde horretatik, administrazioak ardura duela harremanak ahalbidetzeko aukerak eskaintzen.

Maiatzaren 11n eta 31n eta ekainaren 21ean, eraikinaren barne banaketa adosteko hiru saioak egingo dituzte. Erabileren, sustatuko dituen harremanen eta dinamiken araberako espazioak diseinatuko dituzte.



Apirilaren 25ean egindako bilera. OÑATIKO UDALA

## Bisita gidatua egingo dute Eltzia tabernan, interesatuendako

Eltzia taberna ustiatzeko eskaintzak aurkezteko epea zabalik dago maiatzaren 12ra arte, eta interesa dutenendako bisita gidatua egingo dute datorren astean, instalazioak ikusteko. Maiatzaren 4an izango da, 15:00etan. Hara joan gura izanez gero, baina, aurretik eman behar da izena: *partaidetza@onati.eus* edo 943 78 04 11.

## Mahaietan egoteko jakinarazpenak gaur hasiko dira egiten

Atzo, apirilak 27, ziren egitekoak hileko ohiko osoko bilkura, eta hantxe egin behar zuten hauteskunde egunean mahaietan egongo diren herritarren zozketa, Bergarako hauteskunde batzordeak baimena eman duelako zozketa aurreratzeko, jakinarazpenak ahalik eta bizkorren helzeko. Gaur hasiko dira jakinarazpenak banatzen.

# "Egun osoa ematen dut ikerketan pentsatzen"

**HIDE DOHINO** HISTORIALARIA

Duela urtebete iritsi zen Oñatira, eta, ordutik, 1760ko matxinaden gaineko ikerketa-tesi bat lantzen dihardu Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzialean

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Hide Dohino iaztik dago Oñatin bizi izaten, Olabarrieta auzoan. Japoniarra jaiotzez, Madrilen masterra egin ostean erabaki zuen hona etortzea, tesia egiteko asmotan, eta buru-belarri dihardu lanean Oñatin dagoen Gipuzkoako Artxibo Historiko Probintzialean. Lanaz gain, baditu beste hainbat afizio; besteak beste, bertso eskolan aritzen da, eta euskaltegian euskara ikasten. Hori gutxi balitz, denerako denbora ateratzen du, baita herriko taberna batean lan egiteko ere.



Hide Dohino, artxiboan lanean. IÑIGO BARRENA

**Zein tesi egiten ari zara?**

Ni historialaria naiz eta Madrilen masterra bukatu ostean erabaki nuen hemengo historiari buruz tesi bat egitea. Konkretuki, 1766an gertatutako matxinaden gainean ari naiz ikerketa-lana egiten. Adibidez, orduan, egunerokotasunerako garrantzitsuak ziren gauzek izan zuten prezio igoera; besteak beste, artoak eta gariak. Gainera, gaur egun bizi dugun egoerarekin antzekotasunak ditu ikertzen ari naizenak.

**Zergatik aukeratu zenuen Oñati?**

Tolosan eta Oñatin daude Gipuzkoako Artxibo Historiko nagusiak, eta bietan ikertu izan dut, baina Oñatin egunerokotasunean euskara asko entzuten da, eta horregatik aukeratu nuen hemen bizi izatea. Gainera, nire ikerketa XVIII. mendean kokatzen da. Garai haietan Espainiako biztanleriaren %75 landa-eremuetan bizi zen; hau da, Oñati bezalako herri txikietan. Eta horrek ere laguntzen du historiako momentu haiek ulertzen.

**Nolakoa da artxiboan izaten duzun egunerokotasuna?**

Garai haietako dokumentuak hartu eta denak ikuskatzen ari naiz. Matxinadetan parte hartu zutenen edo haien familien dokumentuak begiratzen ditut, eta, ondoren, Excel-orri batean sailkatzen dut dena. Ez dakit informazio guzti hori nire tesian erabiliko dudan edo ez, baina tesia egiteko dokumentu guztiekin aurkibide bat egitea metodologia ona dela uste dut, lagundu egin dit horrek; informazio guztia batu beharra daukat.

**"GAUR EGUN BIZI DUGUN EGOERAREKIN ANTZEKOTASUNAK DITU IKERTZEN ARI NAIZENAK"**

**Zer aurkitu eta ikertu duzu orain arte?**

Hilabete asko egin ondoren, matxinadetan parte hartu zutenen eta, batez ere, buru izan zirenen gainean ikertzeko aukera izan dut. Gehienbat, Elgoibar eta Eibar inguruetako jendeari buruz. Aurten, familia haien gainean ikertuko dut, eta espero dut horrekin laster zerbait fisikoa egitea.

**Dokumentuak zein hizkuntzatan aurkitzen dituzu?**

Gehiena gazteleraz dago, urte haietan legeak hala esaten zuelako, dokumentu ofizial edo eskribauak gazteleraz idatzi behar ziren. Baina aurkitu ditut euskarazko dokumentuak ere.

**Orduan, euskaltegian aritzeak lagunduko dizu haiek ulertzen, ezta?**

Bai, oso baliagarria egiten zait, besteak beste, abizenak ulertzeko. Euskaldunen abizenak oso bereziak dira, eta, taberna batean ere lan egiten dudala aprobetxatuz, jendeari galdezka hasten naiz.

**Orduan, kalean ere ikertzeko aprobetxatzen duzu?**

Bai, tesia lan gogorra da eta 24 ordu ematen ditut horri buruz pentsatzen, eta, agian, dokumentuetan aurkitzen ditudan abizenak dituen jendea aurkitzen dudanean oso pozik jartzen naiz.

**Zenbat denborarako lana duzu?**

Nik uste dut beste bi urte beharko ditudala, gutxi gorabehera, tesia burutu ahal izateko.

**Non aurkeztuko duzu lana?**

Nire asmoa hemen bertan aurkeztea da. Azken finean, Japonian inork ez du irakurriko, eta egiten ari naizen ikerlana hemengo jendearentzat egiten ari naiz. Lan gogorra izaten ari da, baina bai, hemen aurkeztuko dut.



NIRE USTEZ

RAMON MARTIN

## Sinplifikatzeak

Artxiboetan lan egiten dugunok ondotxo dakigu zein bide luzea dagoen dokumentu solteen edo datuen berri izatearen eta testuinguru historiko bat ondo ezagutzearen artean. Ikerketan sakontzeak ikuspegi desberdinak irekitzen dizkizu, eta ezagutzak, askotan, erabateko ziurtasunak baino gehiago, galdera berriak dakartza.

Baina gaur egungo komunikazio ereduaren helburua dena motz eta zehatz aurkeztea da, esplikazio laburrak eta ondorio gutxi, argiak eta erabatekoak. Bost minutu baino gehiagoko aurkezpen batek, hiru minutu baino gehiagoko bideoak, 300 hitz baino gehiagoko testuak... ez du balio. "Jendeak ez du irakurtzen, ez dio denbora horri eskainiko...", esaten digute. Hori saihestearren, konplexua dena sinplifikatzera jotzen dugu, sailkatzera, zerrendetan sartzera, sinple eta begi kolpe batez aurkeztera.

Hor dugu Aranzadi, urteak eta urteak ikertzen, ezagutza kopuru izugarria metatzen, eta aurkezteko unean dena pikutara bidaltzen. Sinplifikatzeak munstroak sortzen ditu.



IMANOL BELOKI

## Añubeko abeslariari galderak

Añube musika taldeko abeslari Aitor Bedia elkarrizketatu dute Txantxiku ikastolako ikasleek *Galdegazte* saioan. Etxahun Lizarralde, Nora Guridi eta Ane Garitano platoan egon ziren; eta errealizazio-gelatik jarraitu zuten saioa, Arantxa Anduagak, Naiara Altubek eta Ibai Boquetek. Eguenean emititu zen Goiena telebistan eta *goiena.eus* webgunean dago ikusgai.

### Ekintza artistikoa egingo du zapatuan plazan Hotz Oñatik

*Migrazioa guztion eskubidea* kanpaina jarriko du martxan Hotz Oñatik maiatzean, eta, kanpainari hasiera emateko, *Kantu eta kolorez migrazioaren alde* izeneko ekintza artistikoa egingo dute plazan bihar goizean. Muralak, kontzertuak, bertsoak, mosaikoa, elkartasuna eta mokadutxoak egongo dira, besteak beste.

### Elikagai bilketarako boluntarioak behar ditu Acesmak

Maiatzaren bigarren asteburuan egingo du janari bilketa Gipuzkoako Elikagaien Bankuak. Oñatin Acesma elkartea arduratzen da bilketa horretarako boluntarioak lortzeaz, eta horretan ari da dagoeneko, baina jende asko behar dute. Telefono-zenbaki bat jarri dute herritarren eskura, lagundu gura duenak dei egin dezan: 688 84 62 93.

# Iritsi da txapeldunak erabakitzeko unea

Sasquatch eta Albok taldeak arituko dira aurtengo ligako tituluaren bila bihar arratsaldean Azkoagainen (17:30). Kopako txapelduna, berriz, Sarutobi –aurtengo nobedadeetako bat– eta Tutelatraku taldeen arteko neurketan (15:30) erabakiko da

**Iñigo Barrena Kortabarria** OÑATI

Joan den urriaren 29an ekin zion Herriko Futbol Txapelketak 2022-2023ko denboraldiari, hamar talderekin. Guztien helburua Liga Txapelketako finalera iristea zen, eta, zazpi hilabetez lehian ibili ondoren, txapelketako bi talde klasikok lortu dute txartela; Sasquatch eta Albok arituko dira tituluaren lehian, bihar, zapatua, 17:30ean, Azkoagaingo berdegunean.

Lehenak Mazedonia taldeari 1-2 irabazi ostean iritsiko dira biharko hitzordura. Badakite zer den Herriko Txapelketako irabazleak izatea, eta beste garaikur baten bila zelairatuko dira. Albok taldeak ere badaki zer den txapeldun izatea, eta, joan den urtean kopa eskuratu ostean, aurten liga dute begiz jota; finalerdian nagusitasunez irabazi zioten Weinguter taldeari: 5-2.

Eskarmentua duten bi talde dira, eta, seguru asko, bihar egiten den akats bakoitzak berebiziko garrantzia izango du epaileak txistua jotzean titulua lortu ahal izateko.

### Kopako finala ere, bihar

Ligakoa ez da izango, ordea, bihar jokatuko den final bakarra. Urtero bezala, txapeldunen fasea jokatzen ez duten taldeek kopa txapelketa jokatzen dute urtarriletik aurrera. Biharko finalean (15:30) gaztetasuna izango da nagusi: Sarutobi eta Tutelatraku aurrez aurre. Lehenak aurten estreinatu dira Herriko Futbol Txapelketan eta balentria egin zuten finalerdietan Shatoken Moura penaltietan kanporatuta; ilusioa da nagusi finalerako ordu gutxiren faltan.

**ALBOK ETA SASQUATCH TALDEEK BADAKITE ZER DEN AURRETIK ERE TXAPELDUN IZATEA**

Aurrean Tutelatraku izango dute; hura ere talde gaztea eta azken urteetan zeresana ematen ari dena HFTn. Haien finalerdia ere ez zen erraza izan, eta, Frakas Brabas 0-1 garaituta, kopa altxatzea, ez dute beste ezer buruan.

### Denboraldi positiboa

Azken urteetan HFTren inguruan zurrumurru asko entzun dira, egingo zen edo ez zalantzan jarri ere bai. Aurten hamar taldek hartu dute parte eta antolatzaileek, egun handiaren faltan, balorazio ona egin dute. "Denboraldiaren balorazio oso positiboa egiten dugu eta gustura gaude izandako parte hartzearekin", dio antolakuntzako Jon Ander Errastik. Gainera, aurten albiste positibo bat ere izan dutela azpimarratu nahi izan du: "Aurten hirugarren epaile bat ere batu zaigu, eta hori oso albiste ona da; indarrak ematen dizkigu hurrengo denboraldiei begira".




Albok eta Sasquatch taldeetako kamisetak eta kopa. IÑIGO BARRENA

# "Korrikalarien maila igo egin da eta popularrena, aldiz, jaitsi"

**MIKEL MADINAGOITIA** KORRIKALARIA

Aloñako Igoeraren edizio guztietan parte hartu du

**I.B.K.** OÑATI

Aloñako Igoera behin egitea ez da lan makala, esfortzu handia eta sakrifizio ugari helmugara iristeko. Hori ondo daki Mikel Madinagoitiak, lasterketak izan dituen hemezortzi edizioetan parte hartu baitu; oñatiar bakarra da hori egin duena. Aurten 3.08.07 izan da haren denbora.



Mikel Madinagoitia. MIKEL MADINAGOITIA

**Errekuperatuta domekako lasterketatik?**

Egunetik egunera hobetzen noa, baina astelehen goiza gogorra izan zen lantokian.

**Nola joan zen lasterketa eta ze sentsazio izan zenituen?**

Esan beharra dut orokorrean sentsazioak onak izan zirela. Ondo ekin nion lasterketari, baita bukatu ere. Hori bai, Aloñako gurutzera bidean eta gailurrerian ikaragarrizko hotza pasa genuen.

**Bakarra zara herrian lasterketaren edizio guztietan parte hartu duena; zer da hori zuretako?**

Egia esan behar badut, ez du askorik niretzat, datu bat besterik ez da, baina, aldi berean, presio-puntu bat ere izaten dut, horrek sortzen duen egoeragatik.

**Aloñako Igoera bakarrik egiten duzu ala beste lasterketaren batean ere parte hartzen duzu?**

Beste lasterketa batzuetan parte hartu izan dut, baina haiek Aloñako Igoera prestatzeko baliatu izan ditut.

**Nola prestatzen dituzu lasterketak? Sekreturik badago?**

Libre izaten dudan denbora apurra aprobetxatzen saiatzen naiz, etxean ume txikia izanik ez dut-eta denbora askorik izaten.

**Nolako bilakaera izan duzu lehenengo aldiz egin zenuenetik azkena egin duzunera arte?**

Batez ere, korrika egiteko modua aldatu da. Lehen, Aloñako tontorrera igo eta buelta egiten zen, dena ahalik eta azkarren eginez; orain, buruarekin jokatu behar da, indarrak erregulatzeko.

**Eta lasterketak ze bilakaera izan du?**

Ibilbideaz gain, partaidetzan ere asko aldatu da lasterketa. Korrikalarien maila asko igo da, eta, era berean, popularren maila hori zertxobait jaitsi da.

**Datorren urtean ere irteera-puntuan ikusiko zaitugu?**

Orain baietz esango dizut, baina aurrerago ikusi beharko da hori.

## Zabalik da udako uretako saioetarako izen-ematea

Ekainaren 26tik uztailaren 21era egingo dituzte aurtengo udako uretako saioak. Hain zuzen ere, parte hartu nahi dutenek ekainaren 2a izango dute izena emateko azken eguna, eta kiroldegian egin beharko da hori. Taldea osatzeko gutxienez zortzi pertsona beharko dira eta izen-emateen gehienezko kopurua gainditzen bada, aldiz, zozketa egingo dute.

Astean saio bakarra izango da, 45 minutu iraungo duena, eta hainbat aukera daude ordutegiei dagokienez, jaiotza-urtearen arabera: 2015eko, 2016ko, 2017ko eta 2018koei zuzendutako saioak dira. Bazkide direnek 12,25 euro ordaindu beharko dituzte eta bazkide ez direnek, berriz, 14,70 euro. Zalantzak dituen orok kiroldegira deitu dezake, edo, bestela, helbide elektronikora mezu bat idatzi.



Lehen Señora sariketako lehenengo saioa, Aramaion, 2021eko apirilean. GOIENA

# Gaztelekuan jokatuko da Señora sariketako finala

Hamabi bertsolarik hartuko dute parte, seik kanporaketa saio bakoitzean, eta haien artean dago Maider Arregi oñatiarra; Bilbokoan arituko da hura. Kanporaketa saio bakoitzeko hiruk osatuko dute maiatzaren 27an Oñatin izango den finaleko seikotea

**Oihana Elortza Gorostiza** OÑATI

Aurreko bi urteetakoek bezala, bi kanporaketa eta finala izango ditu aurtengo Señora sariketak. Hamabi bertsolarik hartuko dute parte; Maider Arregi oñatiarrak tartean. Maiatzaren 6an Bilbon egingo den lehenengo kanporaketan arituko da hura. Bigarrena Erratzun izango da, 13an, eta finala maiatzaren 27an, Oñatin, gaztelekuan, 17:00etan.

### Ahalduntzen

Lehen Señora sariketa antolatzeko taldean ibili zen Arregi duela bi urte, entzule moduan jarraitu ditu lehen biak eta parte-hartzailea izango da hirugarren honetan. "Pandemia osteko konfinamendu arintzean sortutako proiektua da, feminismotik. Hilean behin elkartzen gara ahalduntzea lantzen ari den bertsolari talde bat, eta handik atera zen ideia. Emakumeak izan ziren lehen sariketako bertsolariak, baina genero identitate ertzean kokatzen direnengana zabaltzea egoki ikusi genuen, eta aurten ere horrela izango da", Arregiren azalpenak.

Sariketara begirako bilera irekia egiten dute, eta orduan hasten da lanean antolakuntza taldea, aldatu egiten dena urte batetik bestera. Talde horrek bidaltzen die gonbidapena bertsolariei sariketan parte hartzeko, lurraldetasuna, adina eta aurrekoetan parte hartu duten edo ez kontuan izanda, adibidez. "Ideia da denek hartzea parte sariketan, urte batean ez bada hurrengoan".

### Arregi, "gogotsu"

Bertsoak epaituko dituztenek ere ohiko txapelketetan ez bezala egingo dute lan. Lau epaile egongo dira eta bakoitzak gauza bat epaituko du: txapelketetan normalean kontuan hartzen direnak batek, diskurtsoa beste batek, lankidetza edo parte-hartzaileen arteko laguntza hirugarrenak eta bertsoak sortzen duen emozioa laugarrenak.

**MAIATZAREN 27AN IZANGO DA FINALA, 17:00ETAN, ETA SARRERAK SALGAI DAUDE DAGOENEKO**

Sariketa prestatzen ari ote den galdetuta, ezetz diot Arregik, baina "gogotsu" dagoela gaineratu du: "Egia esan, ez nabil propio prestatzen, baina bertso eskolan, adibidez, lantzen ditugu gairekiko diskurtsoak edo egoerak. Badut parte hartzeko gogoa, bai; gogotsu nago".

### Sarrerak salgai daude

Emakumeen eta hegemonikoak ez diren gainerako genero identitateak ikustarazteko lagun arteko ekimena da Señora sariketa, eta sarrerak salgai daude dagoeneko Bertsozale Elkarteko *www.bertsozale.eus* atarian. Kanporaketetako sarrerak zortzi euro balio du eta finalekoak, berriz, hamar.



Oñatiko Musika Bandako kide batzuk. GOIENA

## Bandak kontzertu didaktikoa egingo du umeendako etzi

Instrumentuak ezagutzeko eta kontzertua musikarien ondoan eserita entzuteko aukera izango dute

**O.E.G.** OÑATI

Musika instrumentuak ezagutzeko kontzertu bereziak antolatzen ditu, tarteka, Oñatiko Musika Bandak, eta domekan egingo du hurrengoa, apirilak 30. Helburua da musika instrumentua aukeratu behar duten musika eskolako ikasleei erakustea nolakoak diren instrumentuak, ze itxura duten, nola jotzen diren eta zein soinu duten.

Horrela, 12:00etan, kontzertua hasi baino ordubete lehenago, banda nola osatzen den azalduko die zuzendariak, Aitor Biainek, Jose de Azpiazu musika eskolako haurrei eta euren gurasoei. Emanaldia bera 13:00etan hasiko da eta musika ikasleek 0 aulkitik entzuteko aukera izango dute, bandako kideen artean eserita. Beraz, bi zati izango ditu domekako kontzertu didaktiko horrek.

### Doan, baina sarrerarekin

Kontzertua bera, 13:00etan hasiko dena, irekia izango da herritar guztiendako. Doan izango da, ohikoa den moduan, baina komeni da txartela aurrez hartzea. Txokolateixan eta musika eskolan daude eskuragarri.



SUHAR

## Hiru sari jaso ditu Eslovenian

Esteban Urzelai oñatiarrak zuzentzen duen Suhar abesbatzak bigarren saria eta publikoarena eskuratu ditu Eslovenian, Mariborko 17. Gallus Nazioarteko Abesbatza Lehiaketan. Urzelaik, gainera, Gallus musikariaren partitura baten zuzendaritza eta interpretazio onenaren saria ere jaso du. 2018an sortu zuten Suhar gizonezkoen abesbatza, eta bailarako lau daude.

# "DNAn daramagu ortozik ibiltzea, niri lagundu dit"

**ERIC BORRAGE HAAS** MENDI KORRIKALARIA

Joan den asteburuko Aloñako Igoera lehen sailkatuen artean ez bukatu arren, lasterketaren irudietako bat utzi zuen, zapatila barik eta ahoa estalita parte hartuta

**Hasier Larrea** DEBAGOIENA

Bergaran bizi da Eric Borrage Haas (Kalifornia, 1984) duela 13 urtetik. Mendi lasterketa ugaritan parte hartu izan du, eta belauneko mina arintzeko probatu zuen ortozik egitea korrika. Oinak lurrari itsatsita daramatza ordutik hona.

**Ze alde dago zapatilekin edo gabe korrika egitearen artean?**

Zapatila normalekin askoz errazagoa da min hartzea. Momentuan ez duzu sentitzen, baina denbora igaro ahala gainkarga senti daiteke artikulazioetan: belaunetan, sorbaldan, gerrian... Kontrara, oinutsik joanda berehala konturatzen zara gaizki zapaltzen duzunean, eta behartuta zaude postura hobetzera.

**Ohitura hartu ahala, onura gehiago dituela ohartu zinen?**

Segituan ohartu nintzen kontzientzia asko lantzen dela. Oso adi egon behar duzu une oro, non eta nola zapaltzen duzun begira. Meditazioaren helburuak konpartitzen ditu: nire gorputza ezagutzea eta mendiarekin konektatzea; horregatik jarraitu dut horrela.

**Izan ere, zuretzat garrantzitsua da meditazioa.**

Izotz bainuak, sauna, arnasketa ariketak, meditazioa, yoga... Tresna desberdinak dira neure buruarekin eta inguruarekin bat egin eta indarra hartzeko. Tresna multzo horren barruan sartzen dut korrika egitea.

**Baduzu gizakiaren esentziarekiko jakin-mina.**

Beti galdetu izan dut zer garen gu. Nire ustez, *homo sapiens*-ok animaliak gara, eta beste animaliekiko dugun abantaila handiena da gai garela haiek baino distantzia luzeagoak egiteko korrika. Animalia asko baino ahulagoak eta motelagoak izanik, tresna hori baliatu genuen duela 200.000 urte ehizatik bizirauteko. Beraz, esan daiteke hura dela gure esentzia.



Borragek 3 ordu, 47 minutu eta 51 segundotan egin zuen Aloñako Igoera. I. SORIANO

**"KALERA ZAPATILEKIN JOATEN NAIZ, BAINA ZOLA KENDUTA, JENDEARI ATENTZIOA EZ EMATEKO"**

**Gaur egun badaude ehiztariak modu primitiboan jarduten dutenak.**

Gizakiak Afrikatik gainontzeko kontinenteetara emigratu zuela jakina da. Namibian, Kalahari desertuan, duela milaka urte bezala jarraitzen dute ehizan. Ni hara joaten naiz, harremana dut haiekin, laguntzen diet eta euren teknikak ezagutzen ditut. *Sapient future* proiektuaren parte naiz, hango tribuen eta hemengo jendearen arteko elkar ezagutza bultzatzeko. Hazten doan ekimena da, hasiak gara Kalaharira talde txikietan joaten.

**Basamortu hartan beste zerbait ere ikasi duzu.**

Ahotik arnasa hartu gabe bizi izaten. Kalaharin sudurretik bakarrik har daiteke arnasa; airea hain da lehorra, min egiten du. Horregatik, jende askok ahoa tapatzen du sudurretik arnasteko. Gure fisiologia sudurretik arnasteko dago eginda; hartu kontuan 150.000 urtez bizi izan ginela inguru haietan.

**Eta orain ortozik eta ahoa tapatuta lehiatzen zara.**

Bilakaera bat izan dut. Oinutsik probatu nuenean, udan oso ondo, baina neguan sufritu egiten nuen. Lehen bi urteetan oinak gogortzen joan zitzaizkidan, eta gaur egun nahiko erraz moldatzen naiz. Niretzat garrantzitsua da udaberrian, denboraldi hasieran, oinutsik eta ahoa tapatuta korrika egitea. Gainera, ez dut jaten eta edaten. Nire sistema osoa indarra hartu eta oinarri bat egiteko da, lasterketa luzeagoei begira. Esaterako, aurten Ehun Miliak ultratraila egingo dut, baina zapatilekin, oso gogorra da eta.

**Eta kalean nola ibiltzen zara?**

Ia beti ortozik. Seme txiki bat daukat, eta harengatik bakarrik irteten naiz kalera zapatilekin, jendea gauzak esaten ez hasteko. Baina tranpa egiten dut, zapatilei zola kentzen baitiet.

**Zikinkeriarena nola daramazu?**

Baserrian bizi naiz eta dutxa bat daukat kanpoaldean, lokatzarekin itzultzen naizenerako.



Mondrako jokalari bat, Mutrikuko atezainari baloia kendu guran. I. SORIANO

## Kategoria galdu du Mondrak, eta Aloñak borrokatu egin behar

Gizonezkoen Ohorezko Erregional Mailako liga bukatzeko bost partidu faltan, garesti daude puntuak

**H.L.** DEBAGOIENA

Joan den asteburuan, 29. jardunaldia bukatu berritan, jakin zuen Mondragon CFk maila galdu duela matematikoki, Oiartzunen zelaian 3-3 berdindu ostean. Orain arte 18 puntu batuta, datozen partidu guztiak irabazita ere ez luke salbatzeko aukerarik izango. Horrek esan nahi du datorren urtean Gorengoen Mailan jokatuko duela, eta liga horretan dagoen bigarren taldeak Lehen Erregionalean. Bihar, 16:30ean, jokatuko du lehen taldeak, Baskoniaren aurka, Mojategin.

Aloña Mendi da Mondraren aurrean sailkatuta dagoen hurrengo taldea, azken bigarren postuan. Azken bi sailkatuak jaitsiko dira ziur, baina Hirugarren Mailako Touring eta Lagun Onak talde gipuzkoarrak jaitsiera postuetatik gertu daudenez, oñatiarrei komeni zaie lau talde uztea haien atzetik, zer gerta ere. Egiteko hori zailtzen doa txantxikuarrentzat jardunaldiz jardunaldi. Zapatuan 16:30ean jokatuko dute Deban, Amaikak Baten zelaian, eta garaipena baino ez dute buruan.

UDAk eta Bergarak lasaiago egingo diote aurre denboraldi amaierari, oraindik ehuneko ehunean salbu ez egon arren. Aretxabaletarrek domekan 16:30ean jokatuko dute Ibarran Oiartzunen aurka eta mahoneroek zapatuan, 16:30ean, Agorrosinen, Lagun Onak B-ren aurka.

**Emakumeek, etxean**

Emakumezkoen Ohorezko Erregional Mailako bailarako ordezkariek ere etxean jokatuko dute asteburuan. Leintz Arizmendik Touring hartuko du Mojategin domekan, 17:30ean. Bergarak, zulotik irten nahian, Antiguoko izango du aurkari, egun eta ordu berean, Ipintzan.

## EBA mailako MUk seigarren postuan bukatu du liga

Ointxe!-ren gizonezkoen talde nagusiak zaleen aurrean eta irribarretsu esan dio agur denboraldiari, joan den zapatuan Iturripen garaipena lortuta. Filipenseseren aurka azken hatsera arte neurtu zituen indarrak, luzapenean erabaki baitzen norgehiagoka (97-87). Zaleei urte osoko babesa eskertu zieten modu horretan. 26tik hamabost partidutan irten dira garaile, seigarren postua eskuratuta.

Emakumezko talde nagusiari partidu bakarra geratzen zaio Lehen Maila Nazionaleko denboraldia bukatzeko; Tabirakoren aurkakoa izango da hori, Durangon, baina hurrengo asteburuan, asteburu honetan atseden hartuko baitute. Iaz igoera lortuta, debuta egin dute aurten kategoria horretan, eta neurria hartu diete aurkariei: 25 partidutatik hamabi irabazita, sailkapenaren erdialdean daude.

# Igoera fasetik partidu bakarrera geratu da MU

**SASKIBALOIA** EBA mailako taldeak bukatutzat eman du denboraldia, Filipenses taldea menderatu ostean. Kirol helburuak bete ez dituzten arren, "oso pozik" daude taldeko jokalari gazteek izan dute bilakaerarekin; minutu asko jokatu dituzte

**Mireia Bikuña Madrid** ARRASATE
Gura baino lehenago hartu ditu oporrak EBA mailan jokatzen duen Mondragon Unibertsitateak. Azken lehia irabazi arren, ez da sailkatu igoera faserako, eta bukatutzat eman du denboraldia. "Ezin izan dugu iazkoa errepikatu, baina oso harro nago taldeak erakutsi duen jarrerarekin. Denboraldi konplikatua izan da, lesio askorekin, baina indarberritzen jakin dugu. Bereziki, azpimarratuko nuke jokalari gazteek izan duten presentzia eta bilakaera. Lesioek eraginda minutuak izan dituzte, eta maila eman dute", dio Julen Berrocal entrenatzaileak.


**Joseba Estalayo baloiarekin.** I. SORIANO

### Txandakatze gutxi

Denboraldi hasiera kaskarra egin ostean, abenduan eta urtarrilean taldea berpiztu egin zen, sei garaipen jarraian lortuta. Bigarren postuan ere egon ziren. Bada, *urtarrileko aldapa* barik, arrasatearrek otsailetik denboraldi bukaerara artekoa sufritu dute; izan ere, azken bederatzi partiduetatik sei galdu dituzte. "Oso txandakatze gutxi izan ditugu urtean zehar, eta hori denboraldiko une erabakigarrian ordaindu dugu: otsailetik hona. Ez da aitzakia bat, errealitatea baizik. Eta, zailtasunak zailtasun, igoera fasetik partidu bakar batera geratu gara", esan du.

### "Oso aberasgarria"

Julen Berrocalek irailean hartu zuen MUren ardura, Eneko Mata ordezkatuz. Lehen denboraldia bete du taldearekin. "Entrenatzaile bakoitzak jokatzeko modu bat du, baina klubak eta biok helburu berberak genituen, hasieratik. Oso erraza izan da horrela lan egitea. Askoz errazagoa, jokalarien inplikazioa ikusita. Oso aberasgarria izan da. Ni oso pozik nago", azaldu du Berrocalek.

Liga txapelketa bukatuta, EBAko jokalariek aukera izango dute nazional mailako taldearekin entrenatzeko –hiru jardunaldi geratzen zaizkie txapelketa bukatzeko–. Era berean, eguaztenetan teknifikazio-saio boluntarioak egingo dituzte.

## ASTEBURUKO HITZORDUAK

**FUTBOLA**

GIZ. OHOR. ERREG.

**Bergara - Lagun Onak**
Zap. 16:30. Agorrosin.

**Mondra - Vasconia**
Zap. 16:30. Mojategi.

**Amaikak Bat - Aloña Mendi**
Zap. 16:30. Errotazar.

**UDA - Oiartzun**
Dom. 16:30. Ibarra.

EMAK. OHOR. ERREG.

**Leintz Arizmendi - Bergara**
Dom. 17:30. Mojategi.

**Bergara - Antiguoko**
Dom. 17:30. Ipintza.

PREFERENTEA

**Antzuola - Urki**
Zap. 11:30. Eztala.

OHOREZKO GAZTEAK

**Ilintxa - Aloña Mendi**
Egu. 19:30. I. Paredes.

**Mondra - Anaitasuna**
Zap. 18:30. Mojategi.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

**UDA - Olarizu**
Zap. 17:30. Ibarra.

**Leioa - Bergara**
Dom. 15:30. Sarriena.

**ARETO FUTBOLA**

MAILA NAZIONALA

**Mondrate - Batzarre**
Zap. 16:30. Musakola.

**Labastida - Eskoriatza**
Zap. 17:45. Labastida.

GIPUZKOAKO TXAP.

**Eguzki - Mondrate**
Egu. 20:50. Chorraut kiro.

**Tolosala - Ingou Aloña**
Egu. 22:30. Uzturpe.

**ESKUBALOIA**

TERRITORIALA KOPA

**Fagor Industrial - Soraluce BKE**
Zap. 12:00. Zubikoa.

GAZTE MUTILAK

**Lana Aloña - Karibe Zaharra**
Egu. 19:15. Zubikoa.

**Ingou Arrasate - Hondarribia**
Zap. 10:00. Iturripe.

**Ingou Arrasate - Ordizia**
Dom. 11:30. Iturripe.

KADETE MUTILAK

**Hiru Thermik Aloña - Eibar**
Zap. 17:30. Zubikoa.

**Zerbimex Bergara - Ereintza**
Dom. 11:00. Labegaraieta.

## ZIKLISMOA Gazte mailako ziklistak Arantzazuko Igoeran

Txirrindulariek 70 kilometroko proba izango dute Oñatin. Erdigunean hasi (16:00) eta Santipillauko aldapa igo ostean, Bergararainoko joan-etorria egingo dute, eta gero Arantzazuko bidea hartu. 58. Arantzazuko Igoeran Jose Antonio Mur omenduko dute antolatzaileek. Murrek 1969an irabazi zuen proba, eta otsailean zendu zen.


**Ziklistak Santipillauko aldapan.** GOIENA



# "Bakerako gerra jartzen dutenak erratuta daude"

**JOSE ANTONIO VILLAR** IDAZLEA

Idazle oñatiarrak lehenengo eleberria aurkeztu du: 'Escuchando a mi alma' liburua; egilea gerraosteko lekuko izanik, pertsonaia batez baliatzen da bizipenak kontatzeko

**Miren Arana** ARRASATE

Jose Antonio Villarrek (Oñati, 1939) *Escuchando a mi alma. En un vuelo virtual sobre la memoria* liburua aurkeztu du, Espainiako gerraren ondorengo 60 urteetan girotutako eleberria. Gerra kritikatu eta, oro har, gerra guztiak inplikatutako alde guztien sufrimendua erakusten du. Izatez euskaraz hasitako saiakera izan arren, gaztelaniaz argitaratu dute; hala ere, euskaraz nahi duenak ere eskura izatea gustatuko litzaioke.




Jose Antonio Villar, liburuaren aurkezpenean. AITZIBER ARANBURUZABALA

**Nola sortu zen Espainiako gerran oinarritutako eleberri bat idazteko ideia?**

1939an jaio nintzen, gerra bukatu eta berehala. Beraz, gerraren ondoren eta ondorioz sortu zen giroaren lekuko izan nintzen, eta lekukotasun hark, nolabait, hunkitu egin ninduen. Normalean, horrelako zerbait suertatzen denean, sorreraren eta zergatien analisia egitea gustatzen zitzaidan, eta gustatzen zait; baina haiek nire artxiboetan geratzen dira, ez baitut aukerarik aurkezteko. Orduan bururatu zitzaidan beste batzuk egin duten moduan, nobela historiko eran, egitea; pentsatu nuen nire saiakeretako ezaugarri eta ideiak, nolabait, nahasi eta pertsonaiei atxikituz aurkeztea.

## "LITERATURAK GERRAREN AURREAN JOKATU BEHARKO LUKEEN PAPERA EZ DU JOKATZEN"

**Zein helbururekin idatzi duzu liburua? Ez dago gerra bat justifikatzen duen motiborik; hori da zure tesi nagusia, ezta?**

Hori da mezu nagusia, bai. Ez dago gerra justifikatzen duen arrazoirik, ez oraingoa, ez inoiz, ezta inongoa ere. Nirea neurea den mezu bat da; ez dut sinesten gerra soluzioa denik, eta bakerako gerra jartzen duten horiek erratuta daudela uste dut.

**Fikzioa aukeratu duzu oraingoan. Horrek eskatzen du pertsonaia batzuk sortzea… Nola deskribatuko zenuke, esaterako, Joseba?**

Narratzailea da; haren ahotan jarri dut kontakizuna. Haren bizipenak beste lagunekin nahasiz uste dut ikus daitekeela ideologia orokor bat, gerrari eta gerraren ondorioei buruzkoa. Bertan ere nik izandako harreman batzuk islatzen ditut, baina, batik bat, saiakeratan adierazten nituen ideiak azaltzea zen nire nahia; erlijioari, eskolari eta politikari buruzko ideiak.

**Dokumentazio-lana egin ohi duzue idazleek idazten hasi aurretik. Zure kasuan eta liburu horretan nolakoa izan da dokumentazio-prozesu hori?**

Ideologia askotariko lagun asko ezagutu ditut, eta ideologia desberdinekoak izan arren lagun onak. Lagunen ideien buruzko adierazpenak egiten ditut; goraipatu gabe, noski. Nolabait, kontraste moduan jarri ditut, eta ez zait zaila iruditu.

**Zure ustez, literaturak zein paper jokatu behar du 36ko gerra moduko gertaera lazgarri baten aurrean?**

Jokatu beharko luke, baina ez du jokatzen; diruaren menpe dago literatura. Haien askatasuna lortuko balitz, beste kontu batekin ibiliko ginateke.

**Zein izan daiteke literaturatik egin daitekeen ekarpena?**

Literaturak ahotsik ez duenari ahotsa emateko balio dezake. Aukera bat ematen du literaturak egiaren eta zuzentasunaren alde egiteko, baina aukera gehiago eman beharko lituzke.

**Irakurleen iritzirik jaso duzu ala goiz da oraindik?**

Literaturari buruz ezer jakin gabe Kutxak antolatutako lehiaketa batean parte hartu nuen, eta ez zuen balio izan. Gaztelaniara itzuli eta editorial batzuetan aurkeztu nuen, ez zuten interesik izan, eta, azkenean, nik neuk argitaratu nuen. Orain, diotenez, idazle fabulosoa naiz.

**Beti duzu zerbait esku artean. Noizko hurrengo aurkezpena, Jose Antonio?**

Pentsatzen aritu naiz euskaltzalea izanda, agian, nire euskal bertsioa ere ateratzea, nahi duenak eskura izan dezan.

# Trudy Lynn blues izarra, Arrasate Blues jaialdian

Uztailaren 15ean Herriko Plazan izango da Grammy sarietan bitan izendatua egon den abeslaria

**M.A.P** ARRASATE

Motorrak berotzen hasi dira Arrasate Blues jaialdiko antolatzaileak –Ibai-arte eta Arrasateko Udala–. Bosgarrenez kale eta plazak betetzeko asmotan aurten kartel-buru izango dena aurkeztu dute: *bluesaren azken dama*, Trudy Lynn. Texasko emakume artista Arrasateko Herriko Plazan izango da uztailaren 15ean, 22:30etan; Bilboko Travellin' Brothers-ekin batera igoko da oholtza gainera, eta kontzertu hori izango da Euskadin abeslariaz gozatu ahal izango den aukera bakarra.

**Ibilbide oparoa**

Grammy sarietan bi aldiz eta Blues Music Awards-etan hamabitan izendatua egoteaz gainera, bestelako sari gehiago ere baditu Lynnek. Martxoaren 18an album berria aurkeztu zuen, *Golden Girl*, eta "ziurrenik lan berriko zenbait abesti Arrasateko kontzertuan entzun ahal izango direla" aurreratu dute Ibai-artekoek. Rhythmairesen ahots eta Tina Turnerren telonero izan zena bakarlari ibili da munduan, Texasko bluesaren harmonika-jole baloratuenetako eta eskuineko esku duen Steve Krase musika zuzendariarekin.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA

PERU ALTUBE
HUNTZA TALDEKO BATERIA-JOLEA
'GALDEGAZTE' SAIOA
MAIATZAREN 4AN, EGUENA,
21:30EAN ETA 23:30EAN
ARETXABALETAKO KURTZEBARRI BHI-KO IKASLEEK EGINDAKO ELKARRIZKETA
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena Zu hemen zaude.



# Gizartearen erradiografia, hitz zorrotzekin abestuta

Zortzi kantu biltzen dituen 'Antzua' diskoa argitaratu berri du Arrasateko punk eta hard-rock talde La Banda Del Abuelo hirukoteak, Jaime Lizaranzu harmonika-jolearen kolaborazioarekin eta, aurrekoa moduan, Desacorde eta DDT argitaletxeekin

**Aitziber Aranburuzabala Juldain**
ARRASATE

"Presa barik, musika industriak bultzatzen duen erritmo azkarrari men egin barik" argitaratzen ditu La Banda Del Abuelo taldeak lanak; bost urte pasatu dira *Rockanrolla mailu bat da* CD-liburua kaleratu zutenetik; bada, labetik atera berri dute zortzi kantu berri biltzen dituen *Antzua* diskoa.

Hogei urteko ibilbidean hainbat kide izan ditu Arrasateko taldeak; gaur egun, hirukote formatuan ari dira Josu Arteaga, Oskar Loiti eta David Clemente, baina lagun bat gonbidatu dute diskoko kantuak grabatzera: Jaime Lizaranzu harmonika-jolea. "Aspaldiko lagunak gara, garai batean lokal berean ibilitakoak. Azkeneko urteetan Ane Arregi ibili da harmonika eta bestelakoak jotzen, baina taldea utzi zuen, eta hark utzitako hutsunea betetzeko Jaimeri proposatu genion kantu batzuetan kolaboratzeko", azaldu du Josu Arteagak.


**La Banda Del Abuelo hirukotea.** ALBERTO MARTINEZ DE LA HIDALGA

## Soinu "iluna eta gogorragoa"

Punka da taldearen jatorria, baina handik harago joatea da euren nahia. "Motorhead eta halako taldeen doinuetan ibiltzen gara gustura. Melodiak eta hitzak lantzea gustatzen zaigu; lelo hutsak kantatu baino gehiago, zerbait ezberdina eta modu ezberdinean esateko gogoz. Autoekoizpenean sinisten dugu eta etxeko lapikoekin egosi dugu lan berria ere. Lokalean grabatu genuen, eta Oskarrek masterizatu du. Aurrez halako lanik egin bakoa zen arren, asko ikasi du, eta lan txukuna ondu du. Soinu argiegia zuen hasieran, baina, diskoaren izena eta kantuen hitzak aitzat hartuta, soinu ilunagoa eman diogu, azkenean".

Hamasei kantu grabatu dituzten arren, zortzi aukeratu dituzte *Antzua* lanean biltzeko.

**JAIME LIZARANZUREN KOLABORAZIOA IZAN DU ARRASATEKO TALDE BETERANOAK 'ANTZUA' LANEAN**

"Asko zatartu den gizarteari buruz idatzitako kantu kritikoak eta zuzenak dira. Nik sortutakoak batzuk eta beste idazle batzuen idatzietan oinarritutakoak besteak; Eneko Barberena arrasatearraren eta Kubako Pedro Juan Gutierrezen poesiak *lapurtuta,* besteak beste. Euskaraz abestutakoak dira guztiak eta gure euskalkira ekartzeko ahalegina ere egin dugu, adibidez, *Pandemonium* kantuan".



**ANTZUA**
- **Egilea** La Banda Del Abuelo & Jaime Lizaranzu.
- **Estiloa** Hard-rocka eta punka.
- **Diskoetxeak** Desacorde eta DDT.

## Diskoa eskuragarri dago

Aspaldiko lankide dituzten Vallecasko Desacorde argitaletxearekin eta Bilboko DDT zigiluarekin elkarlanean argitaratu dute lan berria, eta haien ataarietan dago salgai, baita Arrasateko Iluntz tabernan ere. Taldekideak "gustura" dira emaitzarekin, eta jasotzen ari diren zaleen iritziak ere positiboak direla dio Arteagak: "Behin eta berriz entzuteko gogoa pizten duela esan digute, eta aurreko gure lanarekin konparatuz pauso bat gorago dagoela ere bai".

## Kontzertuak lotzeko bidean

Jendaurrean jotzea "oso gustuko" dute, baina ez da euren asmoa kontzertu askorik lotzea. "Asteburuoro kontzertu bat egitea ez da gure helburua, baina emanaldi batzuk lotzeko ahalegintan ari gara. Etxe inguruan baino, Bilbo aldean jotzea da gure joera gehiago".

Goienakideen txokoa

APIRILEKO IRABAZLEAK

'MUNDU BERRI BAT GUZTIONTZAT' LIBURUA ETA DVD-A
Miren Segura Arkauz (Eskoriatza)

HARREMAN DENDAKO OTARREA
Ainhoa Moral Navarro (Arrasate)

MAUXKA JATETXERAKO BI PERTSONARENDAKO OTORDUA
Milagros Moyua Elorza (Oñati)

ARRIKRUTZ KOBETAKO SARRERAK
Miguel Angel Sanchez Montero (Bergara)
Akaitz Garai Zapata (Aretxabaleta)
Mari Murillo Murillo (Arrasate)

REALAREN ETA RAYO VALLECANOREN ARTEKO PARTIDARAKO SARRERAK
Maitane Arizabaleta Astiazaran (Bergara)

SARIAK JASOTZEKO:
**Arrikrutzeko sarrerak.** **Otarrea** **Liburua eta DVD-a jasotzeko,**

Realaren eta Gironaren arteko partidarako sarrerak
**futbol zelaiko tokirik onenean**

**2023AN ERE, GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA**
Reala-Girona partida beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek.
**Reale Arena futbol zelaiko tokirik onenetik.**
**Partida maiatzaren 13an izango da.**
Parte hartzeko azken eguna: maiatzaren 8a

**Irabazi bi lagunendako sarrerak**
Tartean Teatroari esker
*'Boke lehorra'* ikuskizunerako sarrerak ditugu.
Bergara | Seminarixoa | Maiatzak 6 | 20:00
PARTE HARTZEKO:
**E-postaz:** goienakide@goiena.eus **WhatsApp:** GOIENAKIDE "Boke lehorra" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. **"goiena app"-a / zozketa atalean.**

**Irabazi bi lagunendako otordua**
BERGARAKO BATZOKIA JATETXEARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: maiatzak 2.
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus 'Goiena app'-a / zozketa atalean.
*GOIENAKIDE Jatetxea* [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



*Puntua* aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...
BAZKIDETZA KUOTA: 65 €
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia.

## BERRI-ZAKUA



**Urrezko ezteiak**
Miren Palacios eta Agustin Olmedo oñatiarrek bihar ospatuko dituzte. "50 urte elkarrekin bizitza proiektu bat josten eta gozatzen. Mila esker sortu duzuen guztiagatik".



**61 urte ezkonduta**
Aretxabaletako Garbiñe Gaztañagak eta Luis Mari Beitiak domekan beteko dute urtemuga. Etxekoen partetik, laztan handi bana. "Egun zoragarria pasa. Maite zaituztegu".

## GUARDIAKO FARMAZIAK

**ARRASATE** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 28 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Zapatua, 29 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Domeka, 30 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 1 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Martitzena, 2 RUIZ: Nafarroa etorbidea 1 / 943 79 14 09
Eguaztena, 3 ETXEBERRIA: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Eguena, 4 AZKOAGA-AZKOAGA: Ferrerias 1 / 943 79 15 15

**BERGARA** *EGUNEZ*

Egubakoitza, 28 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 29 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Domeka, 30 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Astelehena, 1 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 2 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 3 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 4 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

**OÑATI** *EGUNEZ BAKARRIK*

Egubakoitza, 28 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Zapatua, 29 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Domeka, 30 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Astelehena, 1 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Martitzena, 2 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Eguaztena, 3 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28
Eguena, 4 JULDAIN: Kale Barria 6 / 943 78 11 28

**ARRASATE** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2023 osoan: JUNCAY: Kontzeziño 12 / 943 79 79 99

**BERGARA** *GAUEZ EGUNERO*
*(22:00etatik 09:00etara)*

2023 osoan: MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15

**Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:**
*COF Gipuzkoa* aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

### ESKER ONA

## Xabier Arkauz Arana



2023ko apirilaren 24an hil zen, 73 urte zituela.

Bere emaztea: Karmele Gabilondo. Seme-alabak: Markel eta Amparo Garrigues, Ion. Biloba: Ion. Anai-arrebak: Rosario eta Julian, Jose Antonio(†) eta M. Jesus. Ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizuete. Agurra senide artean egingo da.

Arrasaten, 2023ko apirilaren 28an.

### ESKER ONA

## Beatriz Rubio Olalla



2023ko apirilaren 24an hil zen, 53 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Eskoriatzan, 2023ko apirilaren 28an.

### ESKER ONA

## Juana Zugasti Igartua



Iñazio Aguirreren alarguna

2023ko apirilaren 25ean hil zen, 98 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi, hiletara etorri eta gurekin egon zareten guztioi.
Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Oñatin, 2023ko apirilaren 28an.

### OROIGARRIA

## Beatriz Rubio Olalla

Eskolako guraso ohia

2023ko apirilaren 24an hil zen, 53 urte zituela.

Luis Ezeiza Herri Eskolako komunitateak bat egiten du familiaren saminarekin.

Luis Ezeiza

Eskoriatzan, 2023ko apirilaren 28an.

### URTEURRENA

## Jesus Maria Madina Alzola



2022ko apirilaren 29an hil zen, 82 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, apirilaren 29an, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokian.

Aurrez esker on bertaratuko zareten guztioi.
Oñatin, 2023ko apirilaren 28an.

### OROIGARRIA

## Maria Carmen Urizar Larrañaga



2022ko maiatzaren 2an hil zen.

*Ederra da bizitza eta egunero ospatzen dugu zurekin oroimenean.*

*Asko maite zaitugu.*

Zure familia.
Bergaran, 2023ko apirilaren 28an.

## HILDAKOAK

**Ermitas Rodera Carrera.** Aretxabaletan, apirilaren 20an. 86 urte.
**Agustin Morcillo Morcillo.** Bergaran, apirilaren 20an. 69 urte.
**Julia Zarraoa Zarraoa.** Arrasaten, apirilaren 22an. 91 urte.
**Luis Maria Inda Orobengoa.** Arrasaten, apirilaren 22an. 77 urte.
**Beatriz Rubio Olalla.** Eskoriatzan, apirilaren 24an. 53 urte.
**Xabier Arkauz Arana.** Arrasaten, apirilaren 24an. 73 urte.
**Luis Mugarza Aranburu.** Oñatin, apirilaren 24an. 89 urte.
**Pedro Mari Lana Etayo.** Arrasaten, apirilaren 25ean. 91 urte.
**Luis Alaba Zubia.** Eskoriatzan, apirilaren 25ean. 83 urte.
**Juana Zugasti Igartua.** Oñatin, apirilaren 25ean. 98 urte.

BABESLEA

Oroilore
Maitasunez bizi,
maitasunez agurtu

*Guri deitu zazenean edo, nahiago baduzue, jakinarazi zuen aseguru-konpainiari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuena.*

*Marioren, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuentzako, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuentzako, gure beharra duzuenerako.*

**Mario, Iban eta Maribi**



*Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA*
*Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37*

## ASTEA GOIENA TELEBISTAN



**AITOR AJURIARI ELKARRIZKETA**
Aloñako Igoera irabazi berri duen korrikalari otxandiarrarekin egingo du berba Mireia Bikuñak. Gatzagan egin dute hitzordua.
***'Luzapena'*** *Egubakoitza, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**BONES OF MINERVA TALDEA**
Madrilgo laukoteak Kooltur Ostegunetan egindako emanaldia osorik ikusteko aukera.
***'Kooltur Ostegunak'*** *Egubakoitza, 21:00 eta 23:00*



**DEBAGOIENEKO TRIKITI EGUNAREN GAINEKOAK**
Maiatzaren 6an egingo dute, Elgetan, eta aurtengoaren gainekoak kontatzeko Adolfo Jainagari egingo diote elkarrizketa.
***'Hemen Debagoiena'*** *Martitzena, 18:00, 20:00 eta 22:00*



**KEPA ALTUBERI ELKARRIZKETA**
Ikaslan Gipuzkoak 30. urteurrena ospatzen dihardu, eta hango kudeatzaile Kepa Altube elkarrizketatuko du Goiatz Aranak.
***'Harira'*** *Martitzena, 21:30 eta 23:30*



**KAZETARI GAZTEAK PERU ALTUBEREKIN**
Aretxabaletako Kurtzebarri ikastetxeko ikasleek elkarrizketatuko dute Huntza musika taldeko kidea.
***'Galdegazte'*** *Eguena, 21:30 eta 23:30*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
***goiena.eus/telebista***
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

# AGENDA

**EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN.** Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

## EGUBAKOITZA 28

**BERGARA 'Zer dago sare sozialen atzean?' hitzaldia**
Sare sozialen gaineko jardunaldien baitan.
***Zubitxako eskolan, 18:00etan.***

**BERGARA Apirilean Musika ekimena**
18:30ean, kantu ikasleen emanaldia; eta 19:30ean, biolin eta biola ikasleen emanaldiak.
***Seminarixoan.***

**ARRASATE 'Eskubideak eta askatasuna' hitzaldia**
Aitor Gisasola abokatuak egingo du berba, Askatasuna eta Giza Eskubideen herri plataformak gonbidatuta.
***Kulturaten, 18:30ean.***

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
19:00etan, etxafuegoak, eta ostean, mamuarekin kalejira; eta 22:00etan, Larru Beltzak, Broken Legacy eta Muxutruk taldeak. Autobus zerbitzua egongo da.
***Olabarrieta auzoan.***

**ANTZUOLA Katarsia eta Nhil Band taldeak**
Ogitartekoak egongo dira.
***Gaztetxean, 20:00etan.***

**BERGARA Ordem, Calathea eta Hellwatzh taldeak**
Egubakoitza Berreskuratzen egitasmoaren baitan. Sarrerak, zortzi euro.
***Kartzela zaharrean, 22:00etan.***

## ZAPATUA 29

**OÑATI 'Kantu eta kolorez migrazioaren alde' ekitaldia**
Askotariko ekintzak egingo dituzte, Hotz Oñatiren eskutik. Besteak beste, *Migrazioa guztion eskubidea* kanpaina ipiniko dute martxan.
***Foruen plazan, 10:00etan.***

**OÑATI Bisita gidatuak Arantzazun**
10:00etan euskaraz eta 12:30an gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63.
***Arantzazun.***

**BERGARA San Prudentzio jaiak**
11:00etan, ongietorria; 12:00etan, auzoaren gaineko kontakizuna, eta umeendako jolasak; 14:00etan, auzoen arteko bazkaria; 17:00etan, lekuko aldaketa; 17:30ean, helduendako jolasak; 20:30ean, ogitarteko-afaria; 21:30ean, Arima Galduak, Lukiek, Lizartxo eta Fresa Morango taldeak.
***Elorregin.***

**OÑATI 'Txokolatearen mundu ezagutzen' bisita gidatua**
11:00etan eta 12:00etan.
***Txokolateixan.***

**BERGARA Bisita gidatuak**
11:00etan eta 12:30ean. *Bergara monumentala*, *Lorategi historikoak* eta *Laboratorium museoa* bisitak aukeran.
***Laboratoriumen.***

**ARRASATE Ludoteka ibiltaria**
3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30.
***Erguingo gazte txokoan.***

**ARETXABALETA Gazte Eguna**
11:30ean, murala margotzea; 13:30ean, poteoa; 14:45ean, argazkia; 15:00etan, bazkaria; arratsaldean, Izenbarekuak txarangaren kalejira; eta 22:30ean, Eten ta Oihu! taldeak.
***Aretxabaletan.***

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
12:30ean, ardo dastatzea; 17:00etan, jolasak, *Altxorraren bila* eta pilota txapelketako finalerdiak; eta, 19:00etan, txorimaloak.
***Olabarrieta auzoan.***

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitate zaharra eta parrokia bisitatuko dituzte. Izena: *turismo@onati.eus* edo 943-78 34 53.
***Turismo Bulegoan,13:00etan.***

**OÑATI Arantzazuko Igoera**
Gazte mailako txirrindulariendako 70 kilometroko proba.
***Trianako biribilgunean, 16:00etan.***

**ANTZUOLA 'Erresistentzia Kutxa' jaialdia**
16:30ean, pala txapelketa; eta 21:30ean, Berandu Baino Lehen, 112, Txakurrak eta Kontralde taldeak.
***Gaztetxean.***

**ARRASATE 'Mihi bero' jolasa**
Gaztetxoendako.
***Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.***

**ESKORIATZA 3 Kuervos taldea**
Maitane Otamendi gitarra-jotzaile eta Joseba Olmo baxu-jotzaile eskoriatzarrak kide dituen taldearen emanaldia.
***Aldatz tabernan, 19:30ean.***

**BERGARA 'Migratzaileak' dantza emanaldia**
Aukeran taldearekin. Sarrerak, zortzi euro.
***Seminarixoan, 20:00etan.***

## DOMEKA 30

**BERGARA 'Hartzaren urratsa' ibilaldia: Bergara-Arrasate**
19,2 kilometroko ibilaldia. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
***San Martin plazan, 09:00etan.***

**OÑATI Bisita gidatuak Arantzazun**
10:00etan euskaraz eta 12:30an gazteleraz. Izena: 943-79 64 63.
***Arantzazun.***

**ELGETA Erretiratuen irteera: izen-ematea**
Gaur eman behar da izena, 11:00etatik 13:00etara. Irteera maiatzaren 10ean izango da.
***Ozkarbi elkartean.***

**ARRASATE Familia-meza haurrekin**
Katekesian parte hartzen edo parte hartu izan duten familiendako.
***Parrokian, 11:00etan.***

**BERGARA Bisita gidatuak**
11:00etan eta 12:30ean. *Bergara monumentala*, *Lorategi historikoak* eta *Laboratorium museoa* bisitak aukeran.
***Laboratoriumen.***

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
12:00etan, herri kirolen erakustaldia; 14:00etan, bazkaria;

eta 18:00etan, erromeria Izer eta Alaiber trikitilariekin.
*Olabarrieta auzoan.*

**OÑATI Musika Bandaren kontzertu didaktikoa**
Instrumentuak gertutik ikusteko, ukitzeko eta entzuteko aukera.
*Zubikoan,13:00etan.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Unibertsitatea eta parrokia ezagutzeko. Izena: *turismo@onati.eus* edo 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*

**ARRASATE Zinema emanaldia**
Gaztetxoendako.
*Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

## ASTELEHENA 1

**ARRASATE 'Hartzaren urratsa' ibilaldia: Arrasate-Gatzaga**
20,3 kilometroko ibilaldia. Izena emateko: *infoturismo@debagoiena.eus* edo 943-79 64 63.
*Monterron parkean, 09:00etan.*

**OÑATI Bisita gidatuak Arantzazun**
10:00etan euskaraz eta 12:30an gazteleraz. Izena: 943-79 64 63.
*Arantzazun.*

**BERGARA Txistulari Bandaren kalejira**
Labegaraieta auzoan.
*Labegaraietan, 10:00etan.*

**OÑATI Espeleo Arrikrutz abentura**
Izena emateko: *arrikrutz@onati.eus* edo 943-08 20 00. 18 urtetik gorakoendako pasarelaz kanpoko abentura.
*Arrikrutzen,10:30ean.*

**OÑATI Olabarrietako jaiak**
11:00etan, meza nagusia eta ostean, pilota txapelketako finalak; 12:00etan, luntxa eta dantzak; eta, 16:00etan, mus txapelketa.
*Olabarrieta auzoan.*

**BERGARA Bisita gidatuak**
11:00etan eta 12:30ean. *Bergara monumentala*, *Loretegi historikoak* eta *Laboratorium museoa* bisitak aukeran.
*Laboratoriumen.*

**OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua**
Izena: *turismo@onati.eus* edo 943-78 34 53.
*Turismo Bulegoan, 13:00etan.*



AUKERAN DANTZA TALDEA

**BERGARA 'Migratzaileak' dantza emanaldia**
Mugimenduari irekitzeko ariketa bat proposatzen du Aukeran taldearen ikuskizunak. Alegia, gorputzak mugimenduari ireki, ez dadin norbera izan hormarik altuena. Sarrerak, zortzi euro.
*Bihar, zapatua, 20:00etan, Seminarixoan.*

## MARTITZENA 2

**ARRASATE 'Pertsonengan oinarritutako preskripzioa' hitzaldia**
Naiara Fernandez mediku geriatrak egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
*Kulturaten, 17:30ean.*

**ARRASATE Literatura solasaldia ingelesez**
*Girl with a Pearl Earring* liburuaren gaineko saioa.
*Kulturaten, 18:30ean*

**ELGETA Irakurketa taldea**
Garazi Goiaren *Txartel bat (des) herrira* liburuaren gaineko saioa.
*Liburutegian, 19:00etan.*

**BERGARA 'Elbira' dokumentala**
Elbira Zipitriaren gaineko lana. Sarrerak, bi euro.
*Seminarixoan, 19:00etan.*

**ARRASATE 'Norte salvaje' pelikula**
Harreman dendaren 25. urteurrenaren harira.
*Amaia antzokian, 19:30ean.*

## EGUAZTENA 3

**BERGARA Frankismoari buruzko hitzaldia**
Javier Bucesek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
*Seminarixoan, 10:00etan.*

**ARRASATE 'Euskal nazioaren epika' hitzaldia**
Patxi Zabaletak egingo du berba.
*Kulturaten, 19:00etan.*

**BERGARA '20.000 especies de abejas' pelikula**
Ostean, Esti Urresola zuzendariarekin solasaldia. Sarrerak, hiru euro.
*Seminarixoan, 20:00etan.*

## EGUENA 4

**ANTZUOLA Landatxoperen batzarra**
Bazkideendako.
*Olaran etxean, 18:00etan.*

**ARETXABALETA Seme-alaben autoestimua sustatzen ikasteko saioa**
Gurasoendako, Nerea Mendizabalen eskutik.
*Arkupen, 18:00etan.*

**ARRASATE Kooltur Ostegunak: Gli Ultimi taldea**
Street punk doinuak Italiako taldearen eskutik. Sarrerak, zazpi euro.
*Gaztetxean, 22:00etan.*

## ZINEMA

**ARRASATE**

AMAIA ANTZOKIA

**Loli tormenta**
Domeka eta astelehan: 19:30.

**Oink oink**
Domeka: 17:00.

**BERGARA**

SEMINARIXOA

**20.000 especies de abejas**
Domeka eta astelehena: 19:30. Eguaztena: 20:00.

**Mavka: guardiana del bosque**
Domeka: 17:00.

**OÑATI**

KULTURA ETXEA

**El imperio de la luz**
Egubakoitza eta zapatua: 22:00. Domeka: 19:30, 22:00. Astelehena: 19:30.

**Mavka: basoaren zaindaria**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**ARETXABALETA**

ARKUPE

**20.000 especies de abejas**
Egubakoitza: 22:00. Zapatua eta domeka: 19:30.

**Super Mario Bros**
Zapatua eta domeka: 17:00.

**GASTEIZ**

FLORIDA

**20.000 especies de abejas**
Egubakoitza: 17:00, 19:30, 22:00. Zapatutik astelehenera: 11:30, 17:00, 19:30, 22:00. Martitzena: 17:00. Eguaztena eta eguena: 17:00, 20:00.

**A los libros y a las mujeres canto**
Egubakoitzetik astelehenera eta eguaztena: 21:15. Domeka: 20:00. Martitzena: 19:00.

**Air**
Egubakoitzetik eguaztenera: 17:00.

**Empieza el baile**
Egubakoitzetik astelehenera: 21:00. Martitzenetik eguenera: 19:30.

**Guardianes de la galaxia 3**
Eguena: 17:00, 20:00.

**Hanna y los monstruos**
Zapatutik astelehenera: 12:00.

**La impaciencia del corazón**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:15, 21:45. Martitzenetik eguenera: 19:30.

**Libres**
Egubakoitza: 17:15. Zapatutik astelehenera: 11:30, 17:15. Martitzenetik eguenera: 17:30.

**Los buenos modales**
Egubakoitza, zapatua eta astelehena: 17:30, 19:30, 21:30. Domeka: 17:00, 21:00, 22:00. Martitzena eta eguena: 20:00. Eguaztena: 17:00, 20:00.

**Mavka: basoaren zaindaria**
Egubakoitza: 17:00. Zapatutik astelehenera: 11:45, 17:00. Martitzenetik eguenera: 17:15.

**Momias**
Zapatutik astelehenera: 12:00.

**Plan 75**
Egubakoitzetik astelehenera: 19:30, 21:45. Martitzenetik eguenera: 20:00.

**Super Mario Bros**
Egubakoitza eta eguaztena: 17:15, 19:15. Zapatua eta astelehena: 11.45, 17:15, 19:15. Domeka: 11:45, 17:30, 19:00. Martitzena, eguena: 17:00.

## KRITIKA

**20.000 especies de abejas** ★★★☆☆
**Zuz.:** Estibaliz Urresola. **Herr.:** Espainia (2023). **Aktoreak:** Sofia Otero, Patricia Lopez Arnaiz, Ane Gabarain. **Iraupena:** 129 minutu.

### Argia topatzeko borrokan

**ANTONIO ZABALA**

8 urteko haur bat da *20.000 especies de abejas* filmaren protagonista nagusia. Fisikoki mutikoa izanik, haren sentitzeko modua neskato batena da, eta trantsizio-prozesu batean dago, gizartean funtzionatzeko erabiltzen ditugun arauak edo jarraibideen eskuliburua zalantzan jartzen. Eta familia gizarte txiki edo erle-multzo moduko bat da. Alde batetik, gizarteak gidatzen ditu familian ezartzen diren balioak, eta, beste alde batetik, familiak ezartzen ditu haren kide direnen balioak. Itxurak gorde nahi direnean krisi pertsonala sor daiteke. Bizitzak eta gu geuk sortzen ditugun presioei aurre egiten saiatu behar dugu.

Haurrak bere amarekin, amonarekin, anai-arrebekin eta lagunekin dituen harremanak ikusiko ditugu. Tradiziotik eta erlijiotik hurbilago dauden familiako kideak, eta naturarekin lotura handiagoa duten eta pentsamolde libreago duten familiako kideak. Amak eta alabak borroka parekoa dute: biek ahalegin berezia egiten dute euren bizitzetan argia topatzeko.

*20.000 especies de abejas* pelikula interesgarria da. Estibaliz Urresola zuzendariak sentiberatasuna erakusten du haren pertsonaietara hurbildu gaitezen. Detailez azaltzen du nolakoak diren guztiak eta nola bizi den pertsonaia bakoitza. Istorioari dagokionez, une batzuetan, kontakizunaren garapena trabatu egiten dela esango nuke, eta filmak gehiegi irauten duela ere bai.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

goiena
Zu hemen zaude.

AZKEN BERBA



MIKEL BIAIN

## Irunberri

Asteon bete dira 33 urte Irunberriko arroilako gertakarietatik. Gaztetxoa nintzen, baina ondo gogoan dut gertakari hark herrian sortu zuen samina. Halakoetan gertatu ohi denez, Estatuak, Guardia Zibilarekin eskutik, bertsio ofiziala plazaratzeaz batera, hedabide gehienek, taxuzko azterketa edo kontrasterik egin gabe, bertsio ofiziala bere egin zuten. Zertarako buelta gehiago eman… Finean, tiroketa bat, modu batera edo bestera. Komenientziara eraikitako gezurra saldu nahi izan ziguten, berriz ere.

Pako Aristi idazleak liburuaren aurkezpenean adierazi bezala, hau gertakari soltea izatetik harago, gure herriko historia garaikidearen erretratu esanguratsu bat da. Bertan ikusten baita halakoetan nola jokatu izan duen Guardia Zibilak, hedabide nagusiek, alegia botere faktikoek, Estatuak eskainitako inpunitate osoaz baliatuz.

Irunberrikoak, gainera, gertatu zenak, lekuak, garaiak… ez al du barnebiltzen halako sinbolismo berezi bat, halako lirika gogor bat? Gazte euskaldunak, askatasun egarri betean, Arroilaren edertasunean, hara non eta Irati ibaiaren urertzean, heriorik latzena aurkituko duten.

Bejondeiela Gure Bazterrak-eko kideei eta Pako Aristiri Arroilaren iluntasunean argia egiteagatik.

BUKATZEKO

# 'Figueras' gogoratzeko, omenaldi-kontzertua

San Andresko jaietan ekitaldiaren zati bat eskainiko zaio 'Figueras'-i, punk-rockaren ikono arrasatearrari: boluntario aurkeztu diren zenbait musikariren eta San Andresko Jai Batzordearen elkarlanari esker, omenaldi-kontzertua egingo dute apirilaren 30ean

**Miren Arana Pagaldai** ARRASATE

Azaroaren 6an, "hutsune handia utziz joan zen Arrasateko azken punka", *Figueras* ezizenez ezaguna zen Alberto Rollan. Hilabeteak pasata, haren ahotsa berpizteko gogoz aurkeztu dira herriko musikariak, eta horretarako momentu aproposaren bila aritu dira: San Andresko jaiak. Oiana Sanchezek antolakuntzan zelan ibili diren azaldu nahi izan du: "San Andresko Jai Batzordea kolaboratzaile gisa bakarrik aritu da, musikariak izan dira boluntario etorri direnak doako lana egiteko; norbait nabarmendu behar bada Des-kontroleko Magu da, buru-belarri aritu baita lanean".

"Auzoko eta herriko ikono punka" zena musikan murgilduta egon da betidanik, hori izan da haren rola: herriko taldeak animatzeko festibal guztietara joatea, babesa eta elkartasuna erakustea. Horregatik, harentzat horren asteburu berezia zen hori eskaini nahi izan diote lagunek; eta, beraz, San Andresko jaietako apirilaren 30ean omenaldi-kontzertua egingo dute, Arrasateko azken punkaren oroimenez.



*Figueras,* haren ohiko keinu bat egiten kamerari. IKER CABALLERO 'FELE'



*Figueras,* Jul Bolinagari eta RIP taldeari eginiko omenaldian. IMANOL SORIANO

### Ekitaldi berezia

Aurtengo egitaraua desberdina da, musika estilo asko batzen ditu. Besteak beste, flamenko feminista kutsuko taldeak ikusi ahal izango dira oholtza gainean: Alarma Morea; baina beste tankera bateko musika ere egongo da. Figueras Fest izeneko omenaldian, Mondra & Roll jaialdian izandako zenbait taldez ere gozatzeko aukera izango dute herritarrek: Crap, Zero, Xementerio eta Des-kontrol.

### Aitaitaren hutsunea

Komisioko kideentzat oso garrantzitsua zen arrasatearra, haientzat "kolpe gogorra izan zen aitona bezalakoa zen norbait galtzea", eta asko nabari dute haren falta. Horregatik, San Andresko Jai Batzordearentzat "plazera eta ohorea" izan da beste talde batzuekin elkarlanean aritzea helburu komuna lortzeko asmoz. Asko eskertu dute haien boluntariotza eta erakutsi duten lanerako gogoa.

### Bide posible berria

*Figueras*-en ahotsa oraindik ere entzuten jarraituko den isla gardena da omenaldia, eta etorkizunera begira gauza polita izan daiteke horrekin jarraitzea. Domeka honetakoa berezia izango da, lehenengoz ospatuko baita Figueras Fest jaialdia, baina, agian, ez da azkena izango. Datorren urtean ikusiko da ea desbideratzearekin jarraitzea posible den eta haren izenpean horrelako jaialdi bat antolatzea egingarri den. Izan ere, auzoko jaietan hari egun bat eskaintzea hunkigarria izango litzateke, bai orain eta baita etorkizunean ere.

